

Chillidaren omenez

GUGGENHEIM BILBAO

EDUARDO CHILLIDA-REN OMENEZ.....	3
26 HARRI CHILLIDA-REN ZABALAGA ETXERAKO	35
CALDER-I BURUZ.....	40
AZKEN ELKARRIZKETA	45
PASARTEAK.....	49
ARTISTEN BIOGRAFIAK.....	52

EDUARDO CHILLIDA-REN OMENEZ

KOSME DE BARAÑANO

PROIEKTUA, ARRAZOIA ETA ZENTZUA

Eduardo Chillidak bere karreraren zehar omenaldi ugari egin izan dizkie harekin nolabaiteko lotura izan duten hainbat artistari. Adiskidetasun eta errespetuaren seinale diren omenaldi horiek jaso dituzten artisten artean ditugu Braque, Giacometti, Calder, Miró, Twombly eta beste hainbeste. Era berean, idazle, poeta eta filosofoei ere omenaldiak egin izan dizkie, baita lagunei ere. Hala ere, dakigunez ez da gauza bera gertatu alderantziz, hau da, hura hil zen arte beste artista batzuek Eduardo Chillidari omenaldirik egin izana.

2002ko abuztuan hil zen eta haren heriotzak agerian utzi zuen artistek zioten estimu eta errespetu izugarria. Hala, Pedro Carreras-ek eta Ignacio Múgica-k, Bilboko Colón XVI galeriaren arduradunek, Eduardo Chillidarekin lotura zuten artistek, eskultoreari omenaldia egingo zioten erakusketa bat antolatzea proposatu zien. Honela, haien kidetasuna eta esker ona azaltzeko aukera eman nahi zieten, Chillidak berak beste artista batzuekin egin zuen bezala, eskultorearen omenez artelan bereziak sortuz. Eduardo Chillidari omenaldia egiteko leku aproposena —pentsatu zuten hasiera batean— Chillida Leku izango zen, Eduardo Chillidaren heriotzaren lehenengo urteurrenean. Baina jasotako erantzuna ikusita toki handiago batera jotzera bultzatu zituen, Guggenheim Bilbao Museora.

Ideia hura artistaren alargun Pili Belzunce-ri aurkeztu zioten urte bereko irailaren amaieran, eta familia osoak gogoz hartu zuen. Piliren ustez babesle bat aurkitzea zen onena, debalde eta amore eskatu beharrik izan gabe (artistekin beti egin ohi den bezala, ez ordea gainerako profesionalekin), hala, erakusketaren kalitatetik eta antolamendutik sortutako gastuen finantzaketa bermatzeko. Une hartan, galeria horretako bezeroetako batek, Urvasco taldeak, Chillidaren lanen bildumagile Antón Iraculis-en lehendakaritzapean, —besteak beste, 1994ko *Arkitekturaren omenez III (Homenaje a la arquitectura III)* gailenaren jabea, eta bereziki garrantzi handienetakoa duen bere azkenaldiko lanetako batena, *Argiaren bila IV (Buscando la luz IV)*, alegia— bere Fundazioaren bidez proiektuan buru-belarri eta desinteresatuki sartzearabaki zuen. Era berean, proiektu hori egun gauzatu izana Urvasco taldeko kide Pablo Couto-k erakutsitako babesari eta gogori esker ere eman da.

Hala, “Eduardo Chillidaren omenezko erakusketa” egiteko proiektua egin zitekeela ikusita, bizirik dauden nazioarteko artista garaikideei dei egitea izango zen hurrengo pausoa. Hain zuzen ere, momentu horretan jarri ziren nirekin harremanetan: Pili Belzuncerekin batera artistak aukeratzeko, proiektu serioa dela haiei konbentzitzeko eta familiaren izenean haiei idazteko eta haiekin guztiekin harremanetan jartzeko zereginak Chillida Lekurekin koordinatzeko, eta proiektua ikuspegi kontzeptualetik ondo bideratzeko.

Proiektu konplexua izan denez ahalegin handiak egin behar izan dira eskuraketen eta garraioen kudeaketan eta koordinaketan, eta zeregin horiez proiektuaren bi sustatzaileak arduratu dira.

2003ko maiatzeko ia antolatuta zegoen proiektu osoa, berehala erantzun baitzuten artistek. Eduardoren adinekoek, hau da, sir Anthony Caro-k, Ellsworth Kelly-k, Antoni Tàpies-ek, Ráfols Casamada-k, [Pablo Palazuelo-k](#), [Sol LeWitt-ek](#), Ron Kitaj-ek, Pierre Alechinsky-k, David Hockney-k, Robert Rauschenberg-ek, Zao Wou Ki-k, berehala erantzun eta onartu zuten parte hartzea. Zehazki, Cy Twombly asko poztu zen ideiarekin baina ezer berezirik bururatzen ez bazitzaion ez zuela ezer egingo jakinarazi zuen, Eduardo Chillidari omenaldia egiteko konpromisoak erabatekoa izan behar zuelako. Erantzun materialak, artelanak alegia, anitzak izan dira. Belaunaldi ezberdinetakoak izan arren honela sailkatu ditzakegu sortzaileok: berehala erantzunez obrak egin dituzten artistak, obra erreferitua egiten duten artistak eta orotariko obra egiten dutenak. Adibidez, Carok mahai bat egin du txamota lurraraz (Chillidak erabili zuen materiala) Frantziako hegoaldean, Hans Spinner maisu zeramikagile bikainarekin, Chillidak bere etxeko saloian zuen harakin-mahaiaren eta tresna batzuen oroigarri gisa, Chillidak berrogeita hamarreko hamarkadaren hasieran burdina pudelatua erabiltzen zuen modua gogora ekartzen diguten tresnak izanik, bere eskultura-lanak osatzeko erremintak, alegia. Zao Wou Ki frantses-txinatarrak ia bi metroko paisaia izugarri handi bat egin zuen, Donostiako *Haize-orrerien* (*Peines del Viento*) ikuspegiarekin, *E. Chillidaren omenez* (*Hommage à E. Chillida*) izenburupean; zoritxarrez, handik gutxira izango zuen hark ere Eduardoren gaixotasun bera.

Beste artista batzuek entregatzen duten lana erreferitua dela esan dezakegu; beren erreperitorioan sartzen den lana da, baina Chillidaren interes jakin bati lotzen zaiela pentsatzen dute; horixe da Baselitz-en *Ezkerreko oina* (*Linker Fuss*) artelanaren kasua. Alemanak dioenez beti begiratu izan ditu arreta handiz Chillidak eskuen inguruan egindako marrazkiak, berari gai gisa sortu ez bazaizkio ere; baina oinak atera izan zaizkio, ordea, eta oin horietako bat izango da artistari omenaldia egiteko kontrapunturik egokiena. Aitzitik, Günther Förg-ek esku bi egin ditu zuzenean omenaldi gisa. Obra erreferitua da Yves Dana egiptoar-suitzarraren kasua baita ere; *Eskaintza* (*Offrande*) izeneko batel handi bat egin du harriz eta zurez, hondoratutako ontzien antzera Chillidak egindako mahai horien oroimenez —besteak beste Luca Paccioli-ri eskainitakoa—. Anish Kapoor-ek altzairuz eta lakaz egindako bere *Pool* horietako bat entregatu du, baina beltzez lakatuta Eduardoren lanak bezala.

Azkenik, entregatu dituzten beste artelan batzuk orotarikoak dira, nork bere obrak, denbora edo inspirazio faltagatik Chillidaren mundu bisualera “hurbiltzeko” inolako asmorik ez dutenak, esate baterako David Hockney-rena edo Magdalena Abakanowicz-ena. Baina horrekin ez dut esan nahi artista horiek omenaldiaren aurrean interesik erakutsi ez dutenik; aurkeztutako artelan moten bereizketa soila egin nahi izan dut, balorazioetan sartu gabe. Artista batzuk, Eduardori berari gertatu ohi zitzaion bezala, ez dira gai beren lana eskari berezi batera egokitzeko, edo une jakin batean sortutako presa handiari erantzuteko, adinagatik edo diskurtso artistikoaren izaeragatik. Aipatutakoen kasuan ez ezik artista hauen lanetan ere ziurta daiteke hori: [Christo](#), Richard Serra edo Ron Kitajenean edo Eduardoren anaia [Gonzalo Chillida](#)renean ere, bere mundu pertsonalagora, hondartza begiratzeko adiera bakarreko modu horretara, bere lanaren unibertso nagusira igortzen gaituen horretan.

Hamabi artista horietatik, adinez nagusiak izanik, guztiek Richard Serra, George Baselitz eta Twombly izan ezik — Chillidak grabatu bat eskaini zion hari 1988an Centro de Arte Reina Sofía inauguratu

ondoren, non harekin batera erakusketa bat egin zuen—, berehala erantzun dute. Chillidak *Argian* akuaforteia egin zuen Erroman bizi den amerikarraren lanean pentsatuz; tintarik gabeko akuaforteia da. Twomblyk, laurogei urte baino gehiagorekin Erroma inguruko landazabalean erretiratua bizi denak, denbora gehiago eskatu zuen Eduardori omenaldia egiteko.

George Baselitz, A. R. Penk, Markus Lüpertz, Günther Förg, Anselm Kiefer eta Sigmar Polke alemanek azkar erantzun dute, artista zaharragoek bezalaxe. Kieferrek, orotariko lanarekin, gainerakoek, lan erreferituarekin, edo berehalakoarekin, Lüpertzek Chillidari egin dion erretratu antzeko horrekin adibidez, euskaldunaren sendotasunak eta “etrusko handiaren” bere buru horrek hainbeste erakarri izan duelarik.

Arnaldo Pomodoro eta Mimmo Paladino italiarrek lan zuzenekin erantzun dute. Lehenak, ate batekin, *Atalasea* (*Soglia*) izenekoarekin, Eduardoren lan guztien *barrualde/kanpoalde* joko hori gogoraraziz, Tony Cragg britainiarrak egin duen bezalaxe *Barruan-kanpoan* (*Inside Out*) lanarekin. Paladinok, *Gurdia* (*Carro*) bere lanarekin, sir Anthony Caro bezala, Chillidari erremintek eragiten izan dioten funtsezko interesa gogora ekarri digu, Zabalagarako pentsatua dagoen obra ematen duelarik. Italian bizi den Jannis Kounellis grekoak bere ohiko erreperitorioari loturiko lana entregatu du: zaku bat altzairuzko plaka baten gainean, *Chillidarentzat* (*Per Chillida*).

Per Kirkeby daniarrak eta Julião Sarmiento portugesak pintatzeko dagokien moduaren bidez erantzun diote Eduardoren paisaiari eta koloreari buruz duten oroitzapenari. Sean Scully irlandarrak aurrena pastel bat egin du gris koloreez, Chillidaren grabatu handiak oroitzuz, eta hurrena koadro bat, *Figura horia* (*Yellow Figure*). Nomaden belaunaldiak, besteak beste Abakanowiczek edo Christok, beren oraingo erreperitorioko lan bana entregatu dute.

Ingelesak, Tony Cragg, *Richard Deacon* eta Anish Kapoor (Eduardorekin batera Julio González Nazioarteko Saria jaso zuena 2003an, eskultorea ordurako hilda zegoela) baita sir Anthony Caro ere omenaldira elkartu dira, Chillidarekin askotan egon izan diren Serra eta Shapiro amerikarrak bezala. David Hockneyk aulki huts batekin egin dio omenaldia Eduardori, haren ausentzian pentsatuz. Rauschenbergekin koadro bat aukeratu du, artistari eskainitako atzera begirako erakusketa zela-eta Bilbora etorri zenean hirian egindako argazkien irudiak biltzen dituen, euskal eskultorearekin batera egon zen azkeneko aldia izanik. Nabarmenezkoa da orain Urvasco-k Isozaki dorreak altxatu ditueneko lehengo portu frankoaren orubetik hartutako irudiak direla. Ron Kitajek eta Ellsworth Kellyk beren produkzioari dagokion lan bana entregatu dute; adinagatik eta lanpetuak daudelako barkamena eskatu dute biek. Kellyren kasu zehatzean, laurogei urte betetzen zituela-eta mundu guztian zehar hainbat erakusketa zituelako. Kellyk pena hartu du; 1949an ezagutu zuen Eduardo kasualitatez Louvreko *cour*-ean, I. M. Pei arkitektoak bere piramidea zeharkatuz Frantziako Museorako sarbidea egiteko erabiliko zuen patio handi horretan. 25 urteko bi ikasle haiek, kultur ibilbide bat egiten ari zirenak, berriro elkartu ziren urte batzuk geroago Dallasen, 1989an, Peik Morton Meyerson Symphony Center-eko bere proiektuan parte hartzera gonbidatu zituenen: amerikarrak erliebe handi bat egin zuen eraikinaren barrualderako, eta Chillidak, *Musikaz* (*De música*), altzairuzko bi koloma kanpoalderako, laurogeita bat tonakoa bakoitza. Urte asko igaro dira ordutik hona, eta bi artistak berriro elkartu dira.

Espainolen erantzuna amerikarrena edo europarrena bezalakoa izan da. Artista batzuk berehala inspiratu dira proposamenarekin eta beste batzuk, berriz, parte hartzeko nahiarekin. Manolo Valdés-ek,

Chillidaren eraikitze moduan eta alabastroaren erabileran pentsatuz, material hori landu du; Kubismoari ere, zehazki Picasso-ren Horta del Ebroko paisaiari omenaldi egiten dion eraikuntza batean, eraikin itxurarekin “deseraikita” ordea. Eskultura bilakatutako paisaia horrek alderantzikatu egiten du Chillidaren prozedura, paisaiak dinamizatzeko instalatzen baitzuen hark eskultura. 2003ko *Horta de Ebro. Chillidaren omenez* (*Horta de Ebro. Homenaje a Chillida*) honetatik sail bat sortu da gerora, Chillidaren bereizgarri diren beste material batzuk, marmol beltza, burdina eta abar landu dituenekoa. Valdés izan zen *Omenaldi* honetan parte hartzea onartu zuen lehena, eta bere lana aurkezten lehena, beharbada Eduardo jadanik oso galdua zebilenean bisitatu zuelako Zabalaga. Hala ere, Valdésekin gogoan du Eduardoren adimenaren handitasuna, burua galtzen zuenean ere: egun hartan haxe zioen Chillidak gurekin berrikeria aritu ondoren, hirurehun mila tonako ontzi handi bat sartu behar zuela Donostiako kaia txikian. Bere gaixotasunaren ametsean, kezka nagusiak espazio eta eskala kontua izaten jarraitzen zuen. Valdésekin haxe aipatu zuen bere ohiko jarrera positiboarekin: “Eduardok beti aurre egin izan die arriskuei, eta garrantzi handiko lanei ekin die bere abentura artistikoan; orain ere, bere buruaren eldarnio horretan, bere adimenak proiektu utopikoen bila jarraitzen du”. Eduardo Arroyo-k, baliteke bultzada sentimentalaren batek eraginda, Eduardoren erretratu bikaina eta berezia egin du — Lüpertzekin bezala—. Miquel Navarro-k eta Jaume Plensa-k bi obra erreferituagoak egin dituzte, *Esfínges* (*Esfinge*) burdinez eta *Hizketa* alabastroz eta argi elektrikoaz. Lehena, Shapirori gertatu zitzaion bezala, Chillidaren hasierako lan figuratibo urriari lotu zaio; bigarrenak, Plensa katalanak, omenaldi sotilagoa, literarioagoa eta sinbolikoagoa egin du. Juan Genovés, Luis Gordillo, Antonio López, Ràfols Casamada edo Antoni Tàpies bezala, haren obraren koordinatu klasikoetan mantendu dira. Juan Hernández Pijuan-ek —duela gutxi hil da omenaldi hau ikusteko aukerarik izan gabe— olio-pintura bat entregatu du, *Eduardo gogoan* (*Recordando a Eduardo*) izenburua duena, oso berezia baita ere, Pierre Alechinskyrena bezala, *Zuri hegazkorra* (*Chillidarentzat*) [*Le Blanc Volatil (pour Chillida)*]; biek mantendu dute beren piktografia berezia eta biek, aldi berean, gogora ekarri dute euskal artistaren mundu bisuala, Penckekin egin duen bezalaxe bi begi horiek aukeratzean eta Chillidari, haren begirada finkoari eskaintzean. Eduardori obra pertsonala eta erreferitua eskaintzen azkena Miquel Barceló izan da; kolorea erabiltzeko berezkoa duen gaitasun hori alde batera utzita, lan soila egin du, ia zuri-beltzean, Eduardorena bezala. Beltz mota desberdinez osatutako orban joko batekin eta bi zuri oso metalikorekin, zuloen eta sakonuneen espazio bat sortu du, non karakola batzuk flotatzen ari diren, artistarentzat Bachen musikaren irudiak izanik, euskal eskultoreak hainbeste maite zuen musikarekin.

Chillidaren familiartekoei, anaia Gonzalok, haren seme Pedrok eta Eduardok, urteetan laguntzaile leial izandako Carlos Lizarrurri-k, eta haren lagun handi eta bizilagun Andrés Nágel-ek irizpide berei erantzuten diete. Pedro Chillidak altzairuzko eskumutur batekin, *Esku VI* (*Aitaren omenez*) [*Esku VI* (*Homenaje a Aita*)] izenekoarekin egin dio omenaldia aitari eta Eduardok, berriz, aitaren etxeko sarreraren barrualdearen pintura batekin. Carlos Lizarrurri harri baten barrualdearen bila aritu da, eta Nágel, sinbolikoago eta konplikatuago, formen oreka.

Guztira berrogeita bost artista elkartu dira omenaldi honetan, maitasun eta adeitasun handia erakutsiz. Bukatzeko, lerro gutxi batzuk eskatu nahi izan dizkiegu noizbait Chillidarekin elkarlanean aritu izan ziren arkitektoei. I. M. Pei izan zen erantzuten lehena, ondoren John Pawson, Chillidaren eskulturaren hoztasuna hainbeste miresten duena. Bestalde, lord Norman Foster-ek laster erantzun zigun lady Elenaren eskuartzeari esker, baita Frank Gehry amerikarrak eta Arata Isozaki japoniarrak ere. Ondoren Jean Nouvel eta Zaha Hadid elkartu ziren. Lan horiek guztiek hau bezalako omenaldi baten maitasun-

giroa erakustez gain eskultore donostiarra mugitu izan den mundua dagokion testuinguruan ezartzen laguntzen dute, Chillidaren *Omenaldiak*, irakurtzen zituen liburuen edo miresten zituen artisten bitartez intelektualki garatu izan zeneko mundua dagokion testuinguruan ezartzen laguntzen duten bezalaxe.

CHILLIDA, OMENALDIAK

Chillidak 84 eskultura inguru, berrogeita hemezortzi estanpa eta bi marrazki egin zituen pertsona jakin batzuen oroimenez. Zehazki, bere poeta kutunena zuen San Joan Gurutzekoari eskainitakoak dira bi marrazkiak, eta nolabait ere mistiko gaztelauak idatzitako bertso batzuen transkribapen grafikotzat hartu izan dira. “Eskainitako” lan horietako gutxi batzuk lagunei (Rafael Elósegui, Manolo Millares, [Rafa Balerdi](#), Annely Juda, Cristobal Balenciaga eta abarri) eta familiartekoei (emazte Pilarri, alaba María-ri haur txikia besterik ez zenean eta abar) dagozkie; gainerako guztiak, berriz, erakarpena sentitu izan zuen idazle (poeta edo filosofoei), musikari edo artistei eskaini zizkien.

Ageriko erreferentzia duen lehenengo lana *Vivaldiren omenez I (Homenaje a Vivaldi I)* da, 1951koa. Garai hartako Chillidaren lanek musikaren eta soinu egituren munduaren konnotazio nabarmenak dituzte, orduko lanen izenburuak izanik horren seinale. Begiratu ditzagun berrogeita hamarreko hamarkadako izenburu hauek:

Esferen musika I (Música de las esferas I), 1953

Kontrapuntua (Contrapunto), 1953

Konstelazioen musika (Música de las constelaciones), 1953

Oyarak, edo oihartzunak, 1954

Vivaldiren omenez II (Homenaje a Vivaldi II), 1954koa, arbel zati batean grabatutako arrastoez osatua

Musika isila I (Música callada I), 1955ekoa, *Musika isila II (Música callada II)* altzairuzko lanean 1983an berriro erabili zuen izenburua

Hala ere, Chillidak gehien goresten zuen egilea, edo behin eta berriro gogoan erabiliko zuena, [Johann Sebastian Bach](#) da; artista horri, ikusiko dugunez, bost eskultura eta liburu itxurako grabatu-karpeta bat eskaini zizkion Chillidak.

Bestalde, irakurtzen zituen idazle, poeta edo filosofoei egindako omenaldiak daude. Gaztelaniazko poeten artean, Pablo Neruda, Octavio Paz, Jorge Guillén (haren bertsoetako batean inspiratuta sortu zuen *Sakona airea da (Lo profundo es el aire)* saila); euskarazkoen artean, Gabriel Aresti, Orixe, Lizardi; eta frantsesez irakurri zituenen artean, Omar Khayyam pertsiarra, Goethe alemana edo Edgar Allan Poe amerikarra. Filosofoen artean bere obrarekiko interesa erakutsi zuten haiek daude, besteak beste, Gaston Bachelard frantsesa, Martin Heidegger alemana, Emil Cioran errumaniarra, René Thom matematikari frantsesa; edo pentsamendu presokratikoaren antzinako irudiak, haien artean, Parmenides; edo geometriaren teorikoak, adibidez Luca Paccioli edo Juan de Herrera.

Azkenik, eskultoreari gogoeta egiteko balio izan dioten artelanen egileei egindako omenaldiak daude. Picassori, 1975ean, Juan Gris-i, 1987an, edo Georges Braque-ri, 1990ean. Eta zerrenda horretan gehitu beharko genituzke Rembrandti 1971n egindako omenaldia, edo Cy Twomblyri 1989an egindakoa. Eta batez ere kuttunenei egindakoak daude, Vasily Kandinsky-ri, 1965ean, eta eskultore eta lagun Alberto Giacometti eta Alexander Calderri.

Hortaz, ondoko hauen omenez Chillidak egin zituen artelanak aztertuko ditugu besteak beste:

Bachen omenez
Giacomettiren omenez
Calderren omenez
Kandinskyren omenez

Kontuan hartu beharra dago Eduardo Chillidak egin zuen lehenengo lan publikoa *Omenaldi* bat izan zela: Flemingi eskainitako eskultura bat, 1955ekoa, Donostiako Ategorrieta parkean egon zena, eta 1990ean berregin ondoren Kontxako badian kokatu zutena. Era berean, kontuan hartu beharra dago zenbait lagunentzat ere lanak egin izan dituela, haien lehendakaritza edo zuzendaritzapeko instituzioa izanik hartzailea. Haien artean aipatzekoa da, adibidez, haren lagun eta hormigoiz egindako lanetan kolaboratzaile izandako José Antonio Fernández Ordóñez bide-ingenariarentzat eta Prado Museoaren lehendakariarentzat egindako urrezko medaila, 2000ko urtarrilaren 3an hil zenean.

Adiskidetasun-sen hori 1992an egin zuen lanean ere antzeman ahal izango dugu, *Miró-ren omenez* (*Homenaje a Miró*) izenekoan, pintorearen jaiotza oroitzeko medaila bat izanik (43 x 34 x 6 mm). Lehenik, Chillidak urrez egin zuen 1992an aurreneko alea eta ondorengo aleak Miró Fundaziorako galdatu zituzten, 1993an Madrilgo Francisco Pacheco bitxigileak prestatutako kautxua oinarritzat hartuz. Berrehun egin zituzten brontzez eta hemezortzi zilarrez (aurrealdeko inskripzioa: “Joan Miró 1893–1993”, eta atzealdekoa: “Fundación Joan Miró, Barcelona”). Obra honek Chillidarengan piztutako interesa eskultoreak medailaren forma lortzen tematu zen moduan antzeman daiteke. Hamasei dira gutxienez Miró Fundaziorako oroigarritzko plaka horiek lortzeko egin zituen saialdiak, Chillidak eskuz egindako pieza berdingabeak. Chillida Fundazioan gordeak daude hamasei modelo, bi markatan, bi begi bezalako bi zirkulu zentrokidetan eta urrezko xafak bere baitan izurtzen den moduan eskultoreak Miróren mundua jasotzeko zuen nahi hori aditzera ematen digutenak. Bi zirkuluen irudi hori 1985eko *Diptikoa G-96* (*Díptico G-96*) txamota lurrean dago jadanik, Miróri eskainitakoan, baita urte bereko *Miró-ren omenez* (*Homenaje a Miró*) altzairuan ere, lau tonakoan (AEBko Coca-Cola da jabea).

Medailek —eta *lurrak*—, ebakiak aurrealdean eta alboetan bakarrik dituzten metal-zati txiki horiek, bere lan monumentaletan aditzera emandako kezka espazial berak biltzen dituzte. Eskulturaren hizkuntza hitz egiten dute, bere burdinek edo bere hormigoiek bezalaxe. Chillidarentzat, zizelkatzea emandako materialaren gainean inposatzea da (haren izaeran jartzea, ez gainjartzea) eta, materia hori izateari utzi gabe, bizia ematea, arnasa ematea, izate jakin bat maila berri batean, maila artistikoan ematea. Zentzu horretan, Miróri eskainitako plaka pieza ezin hobea da, beltz koloreko marrazkidun *Diptikoa* bezala —labean orbainduko den zauriaren antzera lurra ebakiz— pieza osoa inguratzen duena, Ariadnaren hari baten antzera bere buruari jarraituz. Bere *continuum* horretan eskultura sortzen duen haria edo lerroa:

pieza erliebe gisa eta, hala eta guztiz ere, bere jarrera guztietan ikusi ahal izateko moduan, eta beti zentzu desberdina bereganatuz.

ESKULTURA MEMENTO ETA GOGOETA GISA

Eskultura publikoa monumentu gisa hartu izan da mendebaldeko tradizioan, hau da, ekintza historiko bat, gertaera edo pertsona berezi bat oroitzeko erabili izan da. Hedaduraz, hiztegieta dioten bezala, balio arkeologikoa, historikoa edo artistikoa duten eraikuntzak izendatzeko erabiltzen da terminoa. Monumentu horiek brontzeari lotuak egon izan dira historian zehar, denboraren iragaitea jasaten duen materiari, nahiz eta K.a. 23. urtean jatorriz hispaniarra zen poeta latinoak, Quinto Horacio Flaco-k, bere *Oden* hirugarren liburuaren epilogoan zioenez, poema, idazketa eta oroimena iraunkorrak izan daitezkeen:

*Brontzea baino iraunkoragoa den monumentua altxatu dut eta piramideen iraunkortasun bikaina baino garaia... Ez naiz erabat hilko*¹.

Izan ere, Horacio-ren bertsoak Erromatar Inperioa baino luzeago eta armak egiteko berriro moldatutako brontzezko hainbat eta hainbat eskultura baino luzeago bizi izan dira. Baina ez da monumentuaren betierekotasun hori Chillidak artisten edo idazleen oroimenez —Rosalía de Castro edo María Zambrano besteak beste— egin izan dituen eskulturetan edo grabatuetan bilatu nahi duena. Chillidaren kasuan, Omenaldiak gogoeta dira oroigarri baino gehiago. Horregatik gogoetari dagokion alderdi hori memento gisa har dezakegu eta ez hainbeste oroitzapen liturgikoaren zentzuan, “arreta eta xehetasun bereziaz axola zaiona pentsatzen geratzearen” zentzuan baizik.

Chillidaren Omenaldiek, pertsonei, artistei edo artelanei eskainitakoak izateaz gain, haren pentsamenduaren xede izan diren kontzeptuak ere jaso izan dituzte: hala, *Argiaren gorazarre* (*Elogio de la luz*), *Arkitekturaren gorazarre* (*Elogio de la arquitectura*), edo Gijongo lan publiko bikain hori, *Zerumugaren gorazarre* (*Elogio del horizonte*) izenburua duena. Chillidaren lan horiek, *Omenaldi* horiek, ez dira kartelen antzera gertaeraren batez ohartarazteko edo norbait gogora ekartzeko eskulturak. Gudan gogoeta pizten duten eskulturak dira.

Kasu horietan, eskulturaren espazioa hiru dimentsioen espazioa ez ezik konfigurazioa da, ikusmenarena, entzumenarena, emozioarena, zentzumeneren bereizketaren aurrekoa. Itsasgizonarentzat, ekaitza dagoenean itsasoaren espazioa espazio objektiboa (kartografiarena) ez den bezala, ekintza-eremua baizik. Nabigatzailearentzat, olatuen garaiera tamaina kontua ez den bezala, mehatxua baizik. Era berean, eskultorearentzat, dimentsioa ez da datu geometriko bat, existentziari, ikusmenari eta ukimenari dagokien zerbait baizik.

Chillidaren lan publikoetatik mundu guztiak ezagutzen du Donostiako *Haizearen orrazia* (*Peine del viento*) (1975–77), baina badira beste batzuk hori bezain garrantzitsuak: *Goetheren etxea* (*Casa de Goethe*) Frankfurten (1986) edo *Musikaz* (*De música*) Dallasen (1989). *Zerumugaren gorazarre* (*Elogio*

del horizonte) (1990), Gijongo Santa Catalina muinoan kokatua, aipatutako aurreko guztien esperientziaz baliatu da. Chillidak kontenplaziorako leku bilakatu du eremua —lehen gotorleku izandakoa—. Izan ere, “talaia” eskultoriko bat da, muinoaren goialdetik zerumuga aurrez aurre duena. Itsasoaren parean eta muinotik elipse erdi bat eraiki du, bostehun tonakoa, eta hamabi metroko altuera bider hamabost metroko luzera eta hamar metroko zabalera duena. Horrela, zeruaren eta lurraren arteko banalerroa horma kurbatu batean geratu da itxita, eta horma aldi berean kolokan geratu da simetrikoki, pieza ez baita berdina bere alde guztietan.

Zerumugaren gorazarre zerua eta ozeanoa ikusteko lekua da —giza gorputzaren eta lurraren arteko ituna—. Ikusmenarentzako eta ukimenarentzako babesa da, itsasoa begiratzean biltzen gaituena. Gure gorputz osoarekin ikusten laguntzen digu: zutik egotera behartzen gaitu. Hormigoiaren astuntasuna sumatu egiten da, eskuetan prismatiko on batzuen pisua nabaritzen den bezala. Lan honek, gure begirada baino gehiago, gure gorputza ezartzen du, zeruaren eta lurraren artean tartekatzen du, uren handitasunaren aurrean.

Chillidaren estiloa, bere lan guztietan, baina bereziki honetan, sinpletasunean oinarritzen da, irudiaren soberakin erretorikoak ezabatzean. Espazioen modulazioa nabarmentzen da. Esan ez denaren, hutsunearen orkestrazioak ikur-maila hartzen du. Jakin badakigu eskultorearen materiala espazioa dela, baina baita hutsunea ere, musikaren materiala soinua eta isiltasuna diren bezala, eta biekin bakarrik eraikitzen dira leku beteak. *Zerumugaren gorazarre*, musika bezala, distantziarekin zabaltzen da. Ez da arkitekto mentalitatearekin eraikitako etxea, bizitzeko etxea alegia, pentsatzeko etxea baizik. Chillidak monumentu bat eraiki du (hau da, gogoetarako lekua) elkartzeko leku izateko, abestu eta harrapatzen gaituen teilatu-hegala izateko, iparraldeko argian zeru babesle izateko.

*Espazioa anonimo izango da mugatzen ez badu
Lehen nire obrak protagonista ziren
Orain, bitarteko izan behar dute espazioa protagonista bihurtzeko
Eta honek anonimo izateari uzteko.
—Chillida*

CHILLIDAREN LANAK: HARAINDI

Jorge Guillénen poema-liburu baten izenburupean —*Más allá*— 1973an Chillidak grafikaren alorrean, zurgrabaketan nahiz artearen historian funtsezkoa izan den lana egin zuen: tintarik gabe, presioa bakarrik erabiliz egindako irudiak. Eskultura, espazioa eta bolumena presioaren mugaren bidez, bere besaurreak eragindako indarraren bidez sartzen ziren paperean. Leku poetiko eta erlijioso horrek, edo besterik gabe leku huts horrek, presioak markatutakoak ordea —beste zuri bat paperaren zuriaren gainean— poetaren bertso batzuen esanahia azaldu zioten Chillidari: “sakona airea da”. Horixe izan zen ondoren granitoz egin zuen lan-sail baten izenburua eta bere proiektu handiaren abiaburua, bere oeuvre guztiaren amaiera alegia, mendi bat hustean datzana, *Mendi huts*: Fuerteventura uhartean, Tindaya mendiaren barrualdean espazio bat, eskultura bat sortzea. Guillénen poema sortaren izenburuarekin hasi nuen nik eskultorea hil

zela jakinarazteko berria: Eduardo Chillida lurrera itzuli zen, abiatzen garen lekura, guztiongan egunero erortzen den presioak, hau da, adinak edo gaixotasunak bultzatuta.

Artisten artean, idazleen artean ez bezala (Juaristi, Valente eta abar), gutxi izan dira nire lagun onak eta minak. Artista baino nahiago izan dut plastika-lana, saihestu nahi izan baitut nire begirada eta nire profesionaltasuna artistaren nortasunaren “eraginpean” egotea. Haietako dozena batekin baino gutxiagorekin adiskidetasun handia landu eta eraiki dut eta adiskidetasun horretan oinarrituta zentzu handiz bideratu izan dut orain arte nire bizitza eta pentsamendua. Haize horietako bat, Eduardo Chillidaren aire leuna, neurtua eta kristaua —edo hobeto esanda frantziskotarra— 2002ko abuztuan utzi genion arnasteari.

Gonzalo Fonseca eskultorearekin Michelangelo harrobietan ibilia naiz Seravezzan, baita New Yorken ere metroaren lurpeko pasabideetatik, Keopsen piramide handian egongo bagina bezala. José María Ucelay-rekin, beti taxi bat zain genuela, Parisko kafetegi eta museo guztietatik ibilia naiz, gure euskal herrian urrian haizeak hegoaldeetik jotzen duen egunetan izaten den argia bezalakorik ez dagoela jakinda. Gabi Ramos Urangarekin batera Tiepoloren marrazkiak eta Toscanako freskoak aztertu izan ditut *pentimenti* bila: Errenazimenduko eta Barrokoko ekintza-eremu osoan zehar ibilia naiz, ezagutzen duen frontoi batean pilotan ari den baten antzera. Markus Lüpertzekin Corvette baten 340 zaldiren indarra sentitu izan dut, Düsseldorf eta Karlsruhe artean, Beckmannek pinturan beltza erabiltzen duen moduz hizketan ari ginen bitartean. Georg Baselitzekin batera Velázquez-en pintzelaren indarra nabaritu izan dut, baita Tintoretto mihisearen aurrean jartzen den modua eta haien ahulezia ere: uzten duten hutsuneengatik ezagutzen duzu aukaria. Zoran Music-ek bizitzaren aurrean duen pesimismoarekin, gutzia jarrera kritiko batez begiratzeko erabiltzen duen filosofia horrekin (ondoren hain modu ederrean formulatua agertu zena Thomas Bernhard-en *Alte Meister* nobelan, edo hobeto esanda saiakeran), maisulan orok akatsen bat duela ulertu nuen. Hala ere, artelan batek ere ez du gizakia ordezkatzeko; Dachau-en marrazki batek ere ez ditu erraustutako lagunak berreskuratzen.

Eduardo Chillidarekin, orain dela hogeita hamar urte edo, ingeniari eta Estetikako irakasle José Félix Tobar-ekin batera haren estudioa lehen aldiz joan nintzenean haxe ikasi nuen: eskultura, objektu izateaz gain, ametsen ingudea eta mugen zurrumurrua dela. Eskulturan San Agustín-en hitzak eta Edmund Husserl-enak zizelkatuta daudela bereizi nuen, eta gizakia gauza guztien neurria denaren lekuko izan nintzen —Parmenidesen poeman bezalaxe—. Itsasoko olatuak dimentsioa baino ekintza-eremua direla ulertzen asmatu nuen.

Gure etxeetako edo mundu guztian zehar dauden hainbat museotako paretetan hark utzitako arrastoek, beste batzuek Santimamiñen utzi zituztenek bezala, haren argia, formaz eta geometriaz zuen ideia, gure ikusmenari aukerak zabaltzeko modua mantentzen eta proiektatzen jarraitzen dute. Eduardo Chillidaren heriotzarekin XX. mendeko eskulturaren izen handienetako bat galdu dugu, Constantin Brancusirenekin, Pablo Picassorenekin, Julio González-enarekin, Alberto Giacomettirenekin, Tony Smith-enarekin edo Alexander Calderrenekin batera. Guztiak ezagutu eta errespetatu zituen, ez bakarrik artista handiak, lanean edo kalean inguratzen zuten guztiak baizik.

Ekologiarekin konpromisoa hartu zuen, Lemoizeko zentral nuklearraren aurka borrokatuz; ondoren, amnistiaren alde agertu zen Franco hil ondoren, eta geroago ETAk bahitutakoak defendatu zituen.

Aberriak mugak dituela edo mugatu egiten gaituela pentsatzen zuen, lekuak ez ordea. Bilakaera unibertuala, kosmopolita lortzeko, aberrian baino lekuan sustraituagoak egon behar dugula jakin zuen. Horregatik egin zuen lurretik sortzen den eskultura — Chillida Lekun agerikoa— baina gure burdinaz eta gure adoreaz munduko bazter guztietan hitz egiten duena.

Chillidaren ikonografia geometria puruari dagokiona da, XX. mendeko filosofia espaziala (Heidegger, Cioran, Thom) plastikaren dimentsiora eramana. Horregatik, bere lana poetek eta filosofoek aztertu dute historialariek baino gehiago. Eskuen inguruko bere lanek bakarrik errealitatearen motibo bat aditzera ematen digute, azken finean lerro batekin edo ebaki batekin bolumena sortzeko ahalmenean pentsatzera eramaten bagaituzte ere. Esku horiek hatzen artean espazioa sortzeko aukera anitzak erakusten dizkigute.

Bere lana, bere lerroa, beti egon izan da musikari lotua, batez ere Bachen fugaren, soinu bolumenaren unibertsoari. Chillidak ondo zekien pianorako musikan aditua den batek, gaitasun analitikoa erakusten duen batek, ez duela nahitaez piano jole handia izan behar. Hatz guztiak ez dira aginduak bidaltzen dizkien adimena bezain azkarak. Baina hatzek eta adimenak aldi berean lan egin behar dute eta elkarren artean berez soinu egiten ez duten partitura batzuei soinu-materia eman behar diete. Musikan —bestalde baita kritikan eta eskulturan ere— jotzean, aztertzean, elkarrekin batera joan behar dute kontzentrazioak eta energiak (fisikoak, mentalak eta emozionalak). Hiru ezaugarri horiek Chillidaren lan guztietan daude: bere marrazkietan, lurretan, altzairuetan eta zuretan. Materialei, esaterako altzairuari edo hormigoari, kalitate poetikoa eman die eta, artearen historian lehen aldiz egin ditu baxuerliebeak paperarekin: grabazioak, zintzilikatutako paper horiek.

Chillidak topografia baten antzera eraikitzen du eskultura, Oroimenera zuzendutako arkeologien elkargune baten antzera, ikuslea bere unibertsoan barneratzera behartuz, Donostiako *Haizearen orrazian*, Frankfurtoko *Goetheren etxean*, Fuerteventurako Tindaya mendian edo San Joan Gurutzekoaren bertso batzuen ilustrazioan: “Nire maitea, mendiak”. Bere lanak gure aukerak zabaltzen ditu eta natura osoa da bere santutegia.

Harriarekin eta altzairuarekin, harrian eta altzarian azaltzen da. Bere esperientzia, aldi berean ezkutatzen zaizkigun sekretuak aditzera ematen dituzten ikur misterioitsu horien ahalmena, unibertsoaren berezko mugimenduan sartzen da; artearen historiari dagokio. Bere eskulturak zatiak dira, Lezama Limaren lanean bezala, beren imanari hitz egiten diotenak. Daubigny-ren kontsignari jarraituz (tu ne mets rien sur la toile et il y a tout!), Chillidak ez du ezer marrazten, ez du ezer jartzen eta guztia hor dago. Hori hamalau urterekin jakin zuen Pilar Belzunce, eta harrez geroztik arduratu izan zen Eduardori ez ogirik ezta gatzik ere falta ez izateaz, Fray Angelico bezala, bere San Markos komentu bereziko zeregin handi horretan aritzeko. Eduardok kaligrafiaz interpretatu zuen eta *Tolerantziaren gorazarreari* (*Monumento a la tolerancia*) bide eman zion, *Salmoetako* bertso batek (33–7) dioen bezala:

*Hark ditxoan artean elkartu zituen itsasoetako urak
eta bildu zituen andeletan amildegiko urak.*

Beti jakin zuen bere izateko arrazoia bere estudioko bakardadeko forja lanean zegoela eta egin zezakeen hoberena ez zela beste egile batzuei buruz idaztea, bere eskuekin haien oroimenez zerbait “egitea” baizik. Halaxe sortu ziren bere *Omenaldiak*, eta halaxe egin nahi izan diogu hari omenaldia: berarekin harremana izan duten, ezagutu edo miretsi duten artistek ez idaztea, beren lana Eduardo Chillidaren oroipenez edo oroimenez egitea.

GIACOMETTIREN OMENEZ

Alberto Giacometti izan zen Chillidak lan bat eskaini zion lehenengo eskultorea. Maeght galerian elkarrekin egon arren oso bestelako bizimodua zeraman hark, eta gau-giroa, estudio zikin narrasa, eta igeltsuzko lana dira Chillidarengandik gehien bereizten diren alderdiak. Hala ere, antzeko interesa erakutsi zuten biek eskulturaren alderdi abstraktuaren aurrean: espazioaren zentzua, mugaren zentzua, eta eskulturaren ahalmen sakratua edo ikonikoa. Chillidaren lanaren ikasbideetako bat, batez ere txamota lurrez egindako lanena, hauxe da: monumentaltasuna ez da gauzen tamainaren edo eskalaren baitan dagoen zerbait, beren barne indarraren baitan dagoen zerbait baizik. Ikasbide hori Alberto Giacometti eskultore suitzarraren lanetik ikasi omen zuen Chillidak. Eta, izan ere, eskultoreari egindako bere *Omenaldietan* islatu eta aditzera ematen da hori. Lehenengo *Omenaldia* hau da: *Albertorentzako hilarria* (*Estela para Alberto*), 17 x 10 x 12 cm-ko altzairua, 1974an Donostiako tailerrean egina, eta eskultorearen anaiak, Bruno Giacometti arkitektoak urte hartan bertan Aimé Maeght eosi ziona. Ondoren, Eduardok corten altzairuzko bi mahaia egin zituen, *Giacometti-ren mahaia I* (*La mesa de Giacometti I*), 1988an, eta *Giacometti-ren mahaia II* (*La mesa de Giacometti II*), 1989an.

1990eko azaroaren 11n Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía-n inauguratutako *Alberto Giacometti. Esculturas, Pinturas, Dibujos* eskultore suitzarrari buruzko nire erakusketarako, Museoak berak ekoiztutako aurreneko erakusketarako alegia, testu bat idazteko eskatu nion eskultoreari eta haren lagunari. Chillidak Donostiatik bidali zidan 1990eko ekainaren 10ean sinatua, eta faksimilean erreproduzitu zuten:

“Espazio zabala, hobe naturala ez bada, artifizia baizik, gizakiak egina. Plaza handi bat, San Marcos, Obradoiro, Siena, Salamanca eta abar. Espazioaren edukitzailer handiak, gizaki ugari hartzeko eginak. Leku horietan harriduraz ziurtatu nuen egun batean Giacometti bihurtzen direla atzean geratzen diren guztiak, goiz jaikitzen diren guztiak, bakarzale guztiak. Hori ulertzen saiatu naiz eta berrogeita hamarreko hamarkadaren hasieran Alberto Giacomettik egun batean esan zidanaz gogoratu naiz. Hauxe galdetu nion, ea zergatik ez zituen eskultura handiagoak egiten. Hauxe erantzun zidan berak: ‘txikiak egiten ditut horrela espazioa handiagoa delako’. Hiru *Omenaldi* egin dizkiot Albertori. Bata 1974an eta beste bi duela gutxi. Azkeneko bi horiek *Giacometti-ren mahaia* izena dute, beren egitura formalagatik, baina hori baino gehiago artearen historiako berealdiko ibiltari bakarti bati eskainitako plazak dira”.

Erakusketaren ondoren eta Escorialera bidaia bat egin eta gero, Chillidak *Agurra Giacometti-ri* egin zuen 1992an, idulki astun eta trinko baten gainean ezarritako altzairuzko pieza txiki bat. Ez da figuratxo mehe eta txiki horien erreferentzia, Centre Pompidou-ko *Irudia kutxa batean bi etxeren artean* (*Figurine dans*

une boîte entre deux maisons) (1950) piezak sorrarazten zuen sentrazioa oroitz egindako keinua baizik, erakusketa hartan berrogeita hamar metroko luzera zuen korridore bakarti batean kokatutako pieza izanik. Eduardok kutzako irudiaren esanahia aldatu eta keinu bat markatzen du: soberan geratu zitzaion altzairu zati bat idulki baten gainean jartzea, iruditxo abstraktu baten antzera, bi altzairu sekziorekin jolastuz, bata bestearen gainean, horrela, monumentaltasuna eskalaren baitan egon beharrean bere barne energiaren baitan dagoela erakustearren.

Mark Tobey-ren pinturari buruz William C. Seitz-ek bere “Tobey’s World View”-n (MoMA-ko erakusketaren katalogoan, 1962an) esaten duenaren antzeko zerbait esan genezake Alberto Giacomettiri buruz. Bere lanak ia gehienak formatu txikikoak dira eta frontaltasun sentrazioa da hasieran jasotzen duguna; baina denbora luzean behatzeko jarrera sendoa hartuz gero, formaren, espazioaren eta esanahiaren mundu berezi batean barneratzen gara. Honetaz konturatzen gara, txikitasuna (*least arresting work*) izugarri handia izan daitekeela sakontasunean, hedaduran eta esanahian. Tamaina erreala eta eskala potentziala oroimenean konbinatzen dira, eta ikusmenaren oroitzapenean formen eta ideien berezko unibertso gisa definitu edo mugatzen dira.

Horixe da Alberto Giacomettiren unibertsoa. Horregatik, batzuetan, espazioak zedarritzen dituzten kutxez edo kaiolez baliatzen da, nabarmenena 1950eko *Irudia bi etxeren artean* izanik. Irudia mugitzen deneko kutzak trinkoarazi egiten du eskala. Baliabide hori beranduko eskulturetan nahiz lehenengo saialdi surrealistetan antzeman daiteke, esate baterako 1930eko *Bola esekita* (*Boule suspendue*) edo 1930–32ko *Kaiola* (*La cage*) lanetan, espazioa hertsu, enkoadratu behar izaten duen horietan. Nola mugatu espazioa? Nola ixten da irudi bat bereak ez diren beste muga batzuetan? Giacomettiren galdera, edo hobeto esanda bere erantzun plastikoak, ez dira inolaz ere kontzeptualak, biziari loturikoak baizik; horrexegatik, eskala aldaketak ez die monumentaltasuna kentzen irudi txikiei. Giacomettiren galdera izatearen esentziara zuzendutakoa da, bere existentziaren *hic et nunc* horretan: horrela, gizakia itzal izatera murriztuz, ikono bihurtzea, ez zaio beste erremediorik garatuko.

Murritztean, Giacomettik berak zioenez —eta hala gogora ekarri du Chillidak bere orrian— “garrantzizkoa espazioa delako” egiten zituen txikiak irudiak. Giacomettik aurkitu nahi duena, Greziako tenpluen temenos sakratua, irudiak inguratzen dituen espazioa da. Hori ondo asko ikus dezakegu Bilboko Plaza Berrian, Campidoglio-n edo Escorialen frontean; espazio horiek bakarti daudenean, pertsonak —haien tamaina edo bolumena edozein izanik ere— Giacomettiren eskulturak bezalakoak dira. Gizakiak, bere bakardadean, espazio enkoadratuaren, eraikitakoaren aurrean, itzal malenkoniatsua izaten jarraitzen du begirada pesimistarentzat.

Formatu txiki horiekin Giacomettik modu berezi batez areagotzen du gizakiaren eta espazioaren arteko harremana. Hala, bere handitasuna murriztua bada ere, kontziente bihurtzen ditu espazioaren distantziak eta berretsi egiten ditu, diren bezalaxe, espazioaren osagaiak. Beste hitz batzuetan esanda, bizitako esperientziaren murrizketa fenomenologikoa eragiten du (E. Husserl-ek aldarrikatua eta Merlau Ponty-k frantsesera itzulia); handitasuna txikitasunean hertsatuta. Iruditxo horiek hauxe besterik ez dute behar, *pick-up* disko-jogailu baten orratzaren antzera begi batek beren kontzientzian anplifikatzea.

Giacomettiren eskulturari eta dagokion monumentaltasunari buruz Chillidak ikasi zuenaz aparte, suitzarrak gorputzak behetik marrazten zituen moduaz ohartu zen baita ere, oinetatik hasita, alegia; haren

birtuosismoaren beste erakusgarri bat zen, ezkerrekin marraztea bezalaxe. Chillidaren beraren esanetan:

Plastikaren munduan, eraikitzaile handiek berebiziko garrantzia ematen diete oinei. Mantegnak bezala, giza irudia behetik gora eraikitzen baitu, etxeak eraikitzen diren moduan. Oinek, oinarriak, asentamenduak duten garrantzia funtsezkoa da beste batzuentzat ere, esate baterako Giacomettirentzat, edo Hodler-entzat. Horiek guztiak behetik gora hasten dira, akademietan erakusten dutenaren kontra. Horixe da eraikitzeko modua.

Giacomettik ikusten zena marraztu zuen: gelan bakartutako objektuak, Parisko kaleetako gizon bakartiak. Irauten duena ez da gorputza ezta objektua ere, begiradan nahasten dena baizik, paperean trazu adieraztezin eta bizidun gisa korapilatzen dena baizik. Eskultoreak bakardade filiformearen presentzia erritualarekin aditzera ematen du gizakia inguratzen duen espazioaren handitasuna, eta bertan desagertzeko joera erakusten duen egitura da gorputza eta dagokion esentzia, begiradak bakarrik emandakoa. Filiforme nolakotasun hori Chillidaren *Agurra Giacometti-ri (Saludo a Giacometti)* eskulturan agertzen da, gure begirada ere eskatzen duen horretan, idulkiaren indarrak erakarrita. Altzairuzko besoaren noranzkoa, idulkitik, bere enborretik irtenez espazioa bildu eta itauntzen duen besoarena, 1973an agertu zen lehen aldiz Chillidaren lanean, *Oroitarria Novalisi (Estela a Novalis)* (altzairua 15,5 x 13 x 13 cm) izenburua duen altzairu txiki batean —Berlingo lehenengo maketarena bezalakoa—. Sorburuko pieza da, gerora bere hiriko badia, batxilergoko ikasleak naturaren legeak, haizearen indarra, olatuen garaiera edo zerumugaren lerro ukiezina ikastera ihes egin ohi zuen lekua itxiko zuen *Haizearen orrazian* oihartzun argiena izan duena. Chillidak alboratu egin ditu irudiak, Giacomettiren estatuariak duen zentzuaren abstrakzioa egin du eta altzairuan trinkotu du hark espazioaz duen nozioa.

CALDERREN OMENEZ

Alexander Calder eskultoreari egindako lehenengo omenaldia pieza txiki bat da, 1979koa, *Calder-entzako estudioa (Estudio para Calder)* (10 x 12 x 13 cm) izenburua duena, eta zintzilikatzekoa. Lau osagai kurbatu dira eta elkartuta esfera bat osatzen dute, eguzki-eratzun edo zeruesfera eseki baten antzera mugitzen dena. *Calder-en omenez (Homenaje a Calder)* lanaren maketa, hamar zentimetroko diametroa duena, nylonezko pita batez sabaitik zintzilikatua dago —Sánchez Cotán-en irasagar baten antzera— Chillidaren estudioan. Kareztatutako pareta zuriaren kontra ikusita (habe baten presentziak eraginda bi mailatan izanik zuria, paretan lerro zuzenean moztutako hiru tonalitate sortuz), Heideggerren arabera plastikaren espazioa itxuratzen den barne eta kanpo horretara itzularazten gaitu, mugaren analisira alegia, begien bistako kontzeptua izanik, euskal eskultorea bezala itsasoaren ertzean bizi den eta zerumugaren lerroa ondo ezagutzen duen batentzat, jatorriz bi urdin tonalitateren, zeruaren eta lurraren arteko “muga” besterik esan nahi ez duena.

Handik gutxira, Chillidak tamaina handian ekin zion *Calder-en omenez* (Plácido Arango bilduma) pieza forjatzeari, egiten zaila eta ikusgai jartzen ere konplexua den lana, esekita behar baitu egon. *Calder-en omenez* funtsezko eskultura izan zen 1979aren bukaeran Pittsburg-en izandako erakusketan, eta ondoren

—1980an— New Yorkeko Solomon R. Guggenheim Museum-en eta Madrilgo Kristalezko Jauregian ikusi ahal izan zen. Chillidaren argazkia, besoak eskultura horren gainean jarriak dituela, *Guadalimar* aldizkariaren 1980ko martxoko 50. zenbakiaren azala izan zen; irudia eskultoreak berak diseinatu zuen aldizkariaren zuzendari Miguel Fernández-Braso-k eskatuta. *Guadalimar*-ek lehendik ere eskaini izan zion eskultoreari, bost urte lehenago, lehenengo zenbakiaren azala. Chillidak zuri-beltzeko argazki bat aukeratu zuen orduan. Eskultore handi baten omenez sortutako bere azkeneko artelan handiarena aukeratzen du.

Calderrekin oso harreman berezia eta estua izan zuen, hirurogeiko hamarkadaren hasieran Frantziako hiriburuan elkar ezagutu zutenetik, baita Georges Braque pintorearekin ere, Picassorekin batera Kubismoaren aitzindari izandakoarekin. 1961ean Parisko Maeght galerian Chillidak 23 eskultura eta berunez grabatutako 7 harri aurkeztu zituen eta bertara Braque joan zen Chillida ikustera. Pintoreak bere olio-pinturetako bat eskaini zion Chillidari erakusgai zegoen *Ametsen ingudea* (*Yunque de sueños*), — *Enclume de rêves*— obraren truke. Erakusketaren katalogoa J. J. Sweeney-k idatzi zuen, garai hartan New Yorkeko Solomon R. Guggenheim Museum-en zuzendari eta ondoren Houstongo Museoaren zuzendari izango zenak —1966an Chillidaren atzera begirako lehenengo erakusketa egin zen bertan—. Garai hartan, hain zuzen, izendatu zuten Franz Meyer, Chagallen alaba bakarraren senarra, Basileako Museoaren zuzendari. Chagallek Chillidaren garrantzizko bi obra erosi zituen alabarentzat, *Ilarik*, aurreneko lan abstraktua, eta *Ikaraundi*, burdina forjatu horizontal bikaina.

Erakusketa haren ondoren, pintoreak obrak trukatzeari proposatu zion eskultoreari. Chillidak atsegin handiz eta hunkituta onartu zuen proposamena, eta pintorearen estudioa joan zenean koadro bat baino gehiago topatu zituen zoruan. Frantsesak nahi zuena aukeratzen utzi zion. Chillidak ez zuen zalantzarik egin, mihise haietako bat ikusi eta hura aukeratu zuen, eta jadanik atzealdean berari eskainia zegoela konturatu zen. Braquek bazekien zein zen eskultoreak gustuko izango zuen obra. Chillidak inoiz ez zuen pasadizo hori ahaztuko. *Braque-ren omenez* (*Homenaje a Braque*), altzairuzkoa, hiru tonakoa eta bi metroko altuera duena, 1990eko eskultura da, eta behealdeak, altzairuzko pieza ebaki batek zeharkatuta —leiho baten modura— sortzen deneko idulkia balitz bezala, Braquek etengabe formulatu ohi zituen txori horietako baten perfilaren antza du.

Sweeneyren bitartez Alexander Calder eskultore amerikarraren lagun egin zen baita ere. Biak ziren galeria berekoak, baina bakoitza bere estudioan erretiratuta bizi zen, Chillida Donostian eta Calder Sachen eta Connecticuten. Sweeneyri esker maiz elkartu ohi ziren. 1964an Maeght Fundazioa sortu zenetik hura izan zen bi eskultoreen elkargunea, eta Mirórekin ere bertan elkartu izan zen Chillida, ia beti udaldiaren hasieran. Chillidak ez zuen ahaztuko Calderrekin egon zen azkeneko aldia. 1976ko urriaren 20an Whitney Museoan artista amerikarraren ohorez egin zen afari baten ondoren, Chillidatarrak hirian geratu ziren egun batzuk gehiago Perls Gallery-k Madison kalean antolatu zuen paper gaineko lanen atzera begirako erakusketa, *Calder. Works on paper 1925–1976*, ikusteko. Azaroaren 9an elkarrekin afaldu zuten bi senar-emazteek, Chillidatarrak Donostiara bueltan abiatu ziren egun berean. Calder azaroaren 11n hil zen, Chillidatarrak etxera heldu aurretik. Chillidak ez zuen hori inoiz ahaztuko; artista eta lagunari omenaldia egiteko izan zituen ideien abiapuntua izan zen hura, lan egiteko moduan berarengandik hain urrun zegoen eskultoreari.

Hainbat arrazoiengandik, Chillidarentzat bai espazioa bai denbora funtsezkoak ziren bere lanean:

*Beti ari naiz bila nire estudioan
 —gehien atsegin dudan lekuan—
 ezagutzen ez dudan horretara hurbiltzeko asmotan.
 Hor konturatu naiz existitzen dela denbora
 nire eskulturan.
 Bertsio bat dago denboraren bertsio arrunta ez dena.
 Denboraren anaia batena da: espazioarena.
 Bi kontzeptu horiek paraleloak eta antzekoak dira zeharo.
 Eta espazioak nabarmen baldintzatzen nauenez,
 asko interesatu izan zait beti denbora.
 Izan ere, nire denbora oso geldoa da,
 baina denbora hori erlojuarena da,
 niri interesatzen ez zaidan denbora.
 Interesatzen zaidan denbora harmonia da, erritmoa da,
 neurriak dira.*

Chillidak bide berriak urratzeagatik miresten zuen Calder, beste eskultore batzuek, adibidez Moore-k edo Marini-k ez bezala. Ez du tradizioaren material astunekin lan egin, eta ez dio suteagiko beroari aurre egin behar izan ezta altzairuaren edo hormigoiaren pisuari ere. Altzairuzko edo aluminiozko xafila arinak landu izan ditu, pintura antolatzen den era sinplearen antzera; xafila inguruak eta beren areen tamainak, kolore primarioek eta errepikapenek eredu serial bat sortu dute, objektu eskultoriko gisa indar dinamiko eta espazial berezia hartzen duena (pentsa dezagun zorutik altxatzen den mugikor batean, zapalduta egoteari uzten diona ondoren esekitzeko). Brancusik zorua bilatzen zuen bere eskultura azaleratzeko; Calderrek, berriz, bere eskultura zerutik jaitsiarazten du. Calderren eskulturak zorua gainean dantza egiten du.

Normalean, eskulturaren ikusleak piezan zehar ibili eta pieza inguratu behar izaten du, ikusmena bere fisikotasunaren zentzua bilatzen ari den bitartean. Giacomettik uko egiten zion fisikotasun horri, irudia kantu bihurtu arte argalduz. Brancusik leundu egiten zuen, marmolezkoa edo letoizkoa izan arren, gure begirada kurbetatik labaindu ahal izateko moduan; hortik dator Chillidak 1993an eskaini zion buru etzan antzeko hori, hamabi kiloko altzairu txiki hori. Aldiz, bere piezak zintzilikatzean, Calderrek bide bat asmatu zuen ikusleak inguratu behar izan ez zitzaizkien, piezaren inguruan ibili behar izatetik askatzeko. Calderrek mugiarazi egiten ditu piezak eta, hala, ikusleak aulki batetik gozatu ahal izaten du hark egindako piezaren *performance* librearekin eta anitzarekin (aire korronteak baino gehiago denborak lagundutakoa). Calderrek izaera ludikoa ez ezik ikuspegi sakona barneratu zuen XX. mendeko eskulturan: denborak begiradari ematen dion ikuspegia.

Aireak astindutako eskulturek irudien edo pentsamenduen asoziaziorantz mugiarazten dute gure begirada. Calderrek analogia lantzen du, saiakuntzarako beharrezko ezaugarria, hainbat eta hainbat forma probetan elkarrekin batera jartzean baitatza. Calder denbora eta espazioa elkartzen aritzen da jolasean. Chillidak, *Calder-en omenez* eskulturan, esfera batean trinkotzen du amerikarraren lanaren mugimendu hori, mugitzen ez bada ere esfera armilar antzeko bat izanik, bere barrualde huts horretan dena mugitzen delarik.

Chillidaren lana, 1949an *Ilarik* eskulturarekin hasi eta 2000ra arte aurrera egin zuen bere poetika abstraktua, ez da narrazioen poetika, sinfonia musikalen etengabeko konposizioa baizik. Bere jardura nagusia erreperitorio zehatz bat esperimentatzea da, arazo desberdinetarako egon daitezkeen irtenbideez osatua. Berak esan zuen bezala:

*Esperimentatzeko nahiak, ezagutzekoak
sarritan behartzen nau nire lanean martxa
jarraitua ez eramatera; arrazoa baliteke izatea
esperientzia baino nahiago dudala esperimentazioa.
Bestetik ezagutza baino nahiago dut ezagutzea.*

Musikari baten antzera, Chillidak soinu bihurtuta adierazten ditu ideiak, fraseatzen orkestrazio bihurtuta. Chillida musikatik oso hurbil dagoen eskultorea da. Sakonetik ezagutzen du musikarekin elkarrekintzan aritzen diren denboraren eta espazioaren arteko erlazioa eta, izan ere, bere eskulturan fraseatzeko gaitasun hori eta piezetatik egindako ibilbide hori harmonia perfektuan elkartzen dira edozein ikuspuntutik.

Alderdi horiek guztiak laburbiltzeko duen gaitasuna, testuinguruari lotuta, ikerlanari lotuta nahiz produkzioari lotuta, gai abstraktuak eta absolutuak esperimentatzeko erabili izan dira: proiektu ororen berezitasunetik abiatzen den prozesuaren helmuga. Chillidak paisaia dagoen arkitektura iraunkortzat hartzen ditu bere lanak; moden tiraniaren pean edo estilo arkitektoniko iragankorren pean egon beharrik ez duten lanak dira. Tipoean, portaeretan, edo egoeretan miatu beharrean, tradizio formala arakutzen du; zorroztasunez jarraitzen die tradizio horren iturriei eta materialak metatzen ditu harmonia sorraraz dezaten, kezka formala, adimenaren indarra —aldi berean oroimena izanik— osatu dezaten.

Bere lan askok, lehendik aipatutako berrogeita hamarreko hamarkadakoez gain, erreferentzia akustikoak dituzte. Hirurogeiko hamarkadan zurezko lanak daude, besteak beste *Abesti gogora*, *Mugen zurrumurrua* (*Rumor de límites*) eta *Espazioaren modulazioa* (*Modulación del espacio*), 1963koa, edo *Haize-orrizak* (*Peines del viento*) hirurogeita hamarrekoa, Donostian itsasoaren aurrean jarri zuena. Chillidak musikarekin eta zehazki Joan Sebastian Bachekin zuen lotura ikuspegi kronologikotik azter daiteke. Musikariari eskaini zion lehenengo lana 1979koa da eta azkenekoa artista-liburu bat da, 1997koa, serigrafia estanpatuak biltzen dituen.

Beraz, 1979koa da *Johann Sebastian Bachen omenez* (*Homenaje a Juan Sebastián Bach*), musikariari eginiko lehen omenaldia. Gerora, 1981ean Chillidak altzairuzko lan txiki batzuk egin zituen hormigoizko lan handietarako proiektu edo abiaburuko gai gisa, oso dinamikotasun kezagarria duten lanak izanik. *Etxeak* (*Casas*) izenekoak dira. Lehena *Hokusairen etxea* (*Casa de Hokusai*) da (altzairua, 25 x 32 x 40 cm), baina benetan txundigarriak direnak, laurogeiko hamarkadako lehenengo urteetan egin zuen lanik onena, *Goethe-ren etxea* (*Casa de Goethe*) (altzairua, 30 x 25 x 42 cm) eta *Bach-en etxea* (altzairua, 22 x 45 x 55 cm) dira. Hurrengo urtean, azterketa estilistiko hori segituz, askoz ere eskala handiagoan ordea (metro eta erdiko altuera gutxi gorabehera), *Oroitarria Agamennon-i* (*Estela de Agamennon*) eta

Oroitarria Goethe-ri egin zituen, eta aldi horri 1984ko *Askatasunaren atea (Puerta de la libertad)* eta 1986ko *Goethe-ren etxea* eskulturek eman zioten amaiera. Bestetik, *Musikaz (De música)*, 1989koa, Dallasko Morton Meyerson Symphony Center-erako proiektua, 81 tona pisatzen zuena, Bachi eskainitako omenaldia izan zen hasieran. *Gora Bach* grabitazioak 1991koak dira eta esekitako paper batzuk dira, collage ez direnak, erliebearen forma berriak baizik. *Bach-entzako instrumentua (Instrumento para Bach)* granito horizontala 1996koa da, eta urte hartako udakoak dira Menorcan txamota lurraz egin zituen bi liburu.

Chillidari eta Bachi buruz bi erakusketa egin izan dira: bata, Christa Lichtenstern-en *Chillida und die Musik. Baumeister von Zeit und Klängen*, erakusketa trinkoa, 1997ko apirilean Bad Homburgeko Sinclair-Haus-en egina. Izenburu berarekin haren saiakera bat eta elkarrizketa bat ere bildu zituen, Mario Teresek artistarekin 1996an izandako elkarrizketa, “Musikari buruz” izenburupean; eta bestea, 2000ko *Bach, Homenaje de Chillida: Bach en el pensamiento, las artes y la música* argitalpenean bildutako erakusketa laburra izan zen, Granadako Archivo Manuel de Falla-ren argitalpena izanik, Chillidak Bachi buruz sortutako liburuen aurkezpena zela eta. Liburu hura Edouard Weiss-ek editatu zuen 1997an eta Madrilgo Real Academia de San Fernando-n eta Berlingo Kupferstichkabinett-en aurkeztu zuten. 129 aleko (120 gehi I-IX) tirada izan zuen, eta hamabi estampa serigrafian eginak, erliebean egindako bat izan ezik, hamabi egileren hogeita bat testu eta J. S. Bachen hamasei eskuizkribu biltzen zituen, eskuizkribuak Berlingo artxiboetako (Preussischer Kulturbesitz) jatorrizko formatuaren arabera erreproduzitu zituztelarik.

Chillida eta Bach amaigabetasunaren zentzu beraren jabe ziren, denbora galduko balitz bezala, espazioaren sentazio hipnotizatzaile hori sorraraziz; izan ere, biek sortu zuten poesia intemporal. Hala dio Chillidak *Johann Sebastian Bach-en etxea (Casa de Johann Sebastian Bach)* bere lanari buruz:

“Bachen biriken indar hori eta bere bariazioak —harrigarriak eta elkarrengandik hain antzekoak, denboran eta espazioan hedatzeko ahalmen horrekin— aditzera eman nahi nituen. Itsasoko olatuetara hurbiltzen da, itxuraz beti berak direlarik, nahiz eta desberdinak izan, eta horixe da Bach, hain zuzen ere. Gogoan dut duela pare bat urte Istanbulen Santa Sofian izan nintzenean —ordura arte bisitatu ez nuen lekua, liburuetatik bakarrik ezagutzen nuena— eta fantasiatzeko espazio hartan sartu nintzenean. Bachen biriketan sartzen ari nintzeneko sentazio zirraragarria izan nuen. Musikari alemana, arkitektoa, eraikitzailea da, Masaccio edo Mantegna bezala; lanerako erabiltzen dituen materialak denbora eta soinua dira, arkitektoari dagozkionak izan beharreen”.

Bachek ez bezala, Chillidak hutsarekin eta mugarekin eraikitzen du, eta biek eratzen dira leku beteak. Chillidak badaki soinua dela musikaren materiala, baina baita isiltasuna ere. Berrogei urtetan edo gehiagotan Chillidaren eskultura lana isiltasunera zuzendutako lan gisa agertzen aritu izan da, inguruko espazioaren kontzentrazioa eskatuz.

Antzeko osagai gehiago daude Bachen eta Chillidaren artean:

Konposizioaren eta xehetasunaren arteko banalerroak.
Inprobisazioaren eta interpretazioaren ñabarduraren arteko
desberdintasuna.
Abiapuntu baten beharra.
Arriskuaren faktorea.
Ezagutza mailako egiturak, batek marrazten duena edo
bestearen musika a priori kontrolatzen dutenak.
Inprobisazioaren bideak, eskuaren askatasuna.

Lehen esan dudan bezala, bere obren izenburuek aditzera ematen digute hori, berrogeita hamarreko hamarkadaren hasieratik, besteak beste, hauexek izanik: *Soinuzko espazioak* (*Espacios sonoros*), *Airearen gorazarre* (*Elogio del aire*), *Dardara handia* (*Gran temblor*), *Sakona airea da* (*Lo profundo es el aire*), eta abar.

Asko idatzi izan da Johann Sebastian Bachen letrari eta kaligrafiari buruz, haren grafia eta arabesko bereziari buruz, jauziz bete-betea eta bere betiko melodia neurridunetatik eta uhinduradunetik hain urrundua. Haren idazkera fugaren arte horretan egituratua egon beharrean —musikaren denbora ehotzen ez duen sare baten antzera eutsia— espazialki eratzen da, bere matematizazioan perspektiba perfektu bati lotua egongo balitz bezala.

Bach, Mozart, Beethoven eta Brahmsen batera, konpositore handietako bat da. Haren bizitzari buruz ezer gutxi dakigu beste musikari handi batzuenarekin konparatuta. Musikari lotutako familia batean jaioa, organista, kaperako maisu, eta *kantor* izan zen saxoniar Turingia lurraldean. Haren biografiari buruzko informazioak protokolozkoak dira gehienak, curriculumeko informazioa, alegia lan-kontratuak, haren presentzia ziurtatzen duten agiriak eta abar. Haren eskutitz pertsonal gutxi batzuk besterik ez dira geratzen. Hala ere, haren konposizio ugari kontserbatzen dira, organo, piano, biolin, biolontxelo, ganbara musika, orkestrarako musika edo beste instrumentu zehatz batzuetarako. 200 kantata baino gehiago daude gordeak, motibo profano edo erlijiosoetarako (oratorioak, mezak edo Pasioa).

Obra horiek, adituen esanetan, besteren artean Bachek bere aurreko musikarien konposizio artearekiko zuen interesaren erakusgarriak dira: koral luteranoak, eliz estilo zaharra, organorako konposizioak eta iparraldeko Alemaniako munduari loturiko moteteak, Palestrinako erromatar eskolaren polifonia eta holandarren pentsamendua, kontrapuntuari lotua. Bachek tradizio hori guztia kontuan hartu eta bereganatu zuen. Baina ez da kopia soila, agertzen zaizkion musika formen hedapena baizik, modulazioaren plegu handiekin eraikin berri bat eraikiz. *Pasioa San Mateoren arabera* konposizioan, *Meza si minorrean* konposizioaren kirie-an, organorako *Koraletan*, *Fugaren artean*, bere arkitektura berezia eraikitzen du, baina aldamioetan lehenaldiko friso- eta arkitrabe-zati izugarri handiak daude. Aurreko ereduak kopiaitzeko baino gehiago zabaltzeko eta bere pentsamenduaren itzalean uzteko erabiltzen ditu.

Chillidak hutsunea lantzen du eskulturan. Badaki isiltasunak inguratu egiten duela, Bachen musikak bezala. Musikan, isiltasuna ez da diskurtso musikalean agertzen den etenaldi bat, mihisearen zuritasuna ez-kolorea ez den bezala, konposizio osoaren parte bat baizik, edo Musicen edo Reveron-en obraren, eta Tintoretorenaren ia konposizio osoa. Musikan, isiltasuna musikaren gertakariaren beraren funtsezko

partea da. Hori badakite Olavide-k, Ligeti-k eta beste zenbaitek. Debussy-k berak haxe zioen: “isiltasuna frase baten balio emozionala nabarmentzeko adierazpidea da”.

Stravinski-ren ustez, isiltasunak hutsegite ugariatetik salba zezakeen, lorpen ugariatetik ere urrundu zezakeen arren. 1995eko martxoan, Chillidaren lan bakar baten “erakusketak”, Stommelneko sinagoga isilean, Alemaniako Pulheim udalerrian, espiritu klasikoaren bi adierazpen zahar gogora ekarri zizkigun: isiltasuna eta *temenos*. Chillidaren lanak sakontasunaren isiltasunera eta bere baitan zerbait duen espazio hutsera eramaten gaitu, antzinako munduan “espazio sakratu” terminoa erabiliz izendatu edo itzuli izan den horretara.

Berrogei urteren buruan Chillidaren eskultura-lana isiltasunera zuzendutako lan gisa garatu izan da, inguruko espazioaren kontzentrazioa eskatuz. Chillidaren estiloa sinpletasunean oinarritzen da, irudiaren soberakin erretorikoak ezabatzean. Espazioen modulazioa nabarmentzen da. Esan ez denaren orkestrazioak, hutsunearen energiak, ikur maila hartzen du. Chillidaren lanean hutsunea —sortu gabeko espazioek neurriak ezartzen dizkiotena— isiltasuna bezalakoa da, “akordeen ondoren dator, ez du batere zerikusirik isiltasun ernearekin, isiltasun bizia da”, dio Marguerite Yourcenar-ek, eta jarraitzen du, musikari buruz: “bi mugimenduren arteko isiltasuna musikaren osagai da, hutsunea eskulturaren osagai den bezala”.

Musika isilune baten eta ondorengoaren artean sortzen da, tentsioz betetako erabateko isiltasun horretatik sortzen da, eta itxuratzen doa. Hasieratik isiltasuna urratze horretatik, hutsunea lantzen duen hasierako energia horretatik sortzen da obra eta bere bizitasuna. Chillidaren lanak mugarekin jolas egiten du, zubi bat edo pitxer baten paretak ipintzen direneko mugako une horiekin. Musikariak lehenengo akordearen mirarian lan egiten du, tentsiozko isilune horretan; musikaren eta isiltasunaren arteko une horretan aurreneko konpasaren, itxuratzen doan eta jadanik harrapatu den lehenengo isilunearen keinua agertzen da: hortxe sortzen da artelanaren epifania. Trantsilvaniako György Ligetiren konposizioek —Imperiale saridunak— eskatzen duten kontzentrazio berarekin hasten ditu Chillidak bere marrazkiak. Izan ere, konposizio horiek hamar segundoko isilunea agintzen dute zehazki partituretan musika interpretatu baino lehenago eta geroago. Álvaro Guibert-ek dioenez: “gozamen handia da zuzendaria isiltasun-konpas batzuk airean markatzen ikustea eta Ligetiren musika ezerezetik sortzen dela eta minutu batzuk geroago ezerezeroa itzultzen dela entzutea”.

Isiltasun hori ez da Minimalismoarena bezalakoa. Eta Chillidaren hutsunea ez da ezta ere Kontzeptualismoaren hauste-esperientzia. *Silence*-n John Cagék haxe dio, isiltasuna entzuteko gela anekoiko batean sartzea probatu zuenean —erabateko isiltasuna dagoen lekua, ezer entzuten ez denekoa— bi soinu entzun zituela, bata baxua eta bestea altua, eta jarraitzen du esanez: “soinu horiek soinu-ingeniari bati deskribatzean, hark zera esan zidan, altua nire nerbiosistemaren funtzionamenduari zegokiola, eta baxua nire odolaren zirkulazioaren soinua zela. Hiltzen naizen eguna iristen den arte egongo dira soinuak eta soinu horiek ni hil ondoren ere jarraituko dute. Ez dugu musikaren etorkizunaz kezkatu beharrik”. Olavideren isiltasuna, Ligetirena, Chillidarena, tentsioz betetako isiltasuna eta hutsunea dira. Eta isiltasunak eta hutsuneak artearen miraria sortzen deneko elkargunea eraikitzen du, objektuaren miraria sortzen denekoa, eta haren presentziak zentzumenei hitz egiten die eta, aldi berean, zentzumenek objektura lotzen gaituzte.

Chillidaren esperientzia mugez esperientzia da eta, nolabait ere, muga horiek lotzeko edo urratzeko saioa, hizkuntzaren eremuan mistikoen esperientzia den bezalaxe. Antzeko zerbait agertzen da Paul Klee-rengan ere. Erich Franz-ek “Näherungen—Die Intensivierung der Leere in Klees Zeichnungen von 1939” saiakeran (*Paul Klee: Späte Zeichnungen von 1939* erakusketaren katalogoa, Essengo Folkwang Museoan eta Kasselgo Fridericianum Museoan, 1989an), hutsunearen esanahia aztertzen du Kleeren marrazki batzuetan. Bertan adierazten duenez, garai hartan artistak osagai formalen drama bihurtzen zuen marrazkia, elkarrekin harremanetan dauden eta elkar eratzen duten osagaiak izanik: “azken urteotan Kleerentzat marraztea ia bitarteko espazioen eratze soila besterik ez da”². Emandako indarra ez dagokio lerroari espazio hutsei baizik, lerro arteari, marraztua ez dagoenari, Matthias Bärmann-ek Jules Bissier-i eta Chillidari buruz adierazitakoaren antzera: “Forma artistikoa emateari eta energiak betetako hutsuneari buruz ari bagara, derrigorrez jo behar dugu Chillidarengana”³.

Chillidaren eskulturaren modulatzeko hori San Joan Gurutzekoaren (1542–91) *Cántico espiritual* poesian ere topatuko dugu, 1584ko bigarren eta behin betiko bertsioan:

*Gau barea
laster egunsentia izango denean,
musika isila,
bakardade ozena,
Afaria, atsegin eman eta maitemintzen duena.*

Roberto Rebora poetak, *Della voce umana* bere obran (Biblioteca di Autografo a cura di Nicoletta Trotta, Novara, Interlinea, 1999) isilune horretaz jarduten du 46 foliotan, 1945ean baldintza desesperagarrietan idatzitakoetan, Wietezendorfeko kontzentrazio-esparruan, Hannover inguruan. Reborarentzat ahotsaren bidez gauzatzen da gure ni-a, gorpuzten da gure pertsona izatea. Hala dio: “giza ezpainak askatasun- eta larritasun-seinale dira”⁴.

Reborak sailkapen bat egiten du, pre-voce-n hasten dena, honela ulertuta: “oihu baten, eske baten, hitz osatu eta asalatu baten desioaren aurreko desio unea”; voce espressa-ren bidez garatzen dena, “intonazioetan, soinuan eta izenen hautespen paraleloan heldutako norbanakoaren erantzukizunaren bidea hasten denekoa”; voce ascoltata-n amaitzen dena, “erlazio baten adierazpena” berekin dakarrena eta erantzun bat sorrarazi eta “elkarrizketarako bultzada”⁵ eragiten duena.

Ez dio axola ahots bat (edo marrazki bat) agertzen den moduak, ahots sendoa, dardaratia, garrasi bat, negarraren hasperena, edo konfiantza edo ontasunaren erritmoa pizten duen ahotsa baldin bada. Axola diona, ahots batek gure bularrean hartigarri antzeko bat sortzen baitu beste batekin hizketan aritzean elkartzeko, hauxe da, bestearekin izandako topaketa horrek, elkartzeko nahiak, beste bular batera hurbiltzekoak.

Bestalde, jazzaren isiluneen musika dago, adibidez Thelonius Monken (1917–82) musikan, etenaldien indarraren eta zolitasunaren pianista horren musikan, isiluneek neurtu eta markatzen duten *swing* horretan. Monkengan, etenaldien hutsuneak argira zabaldutako irekigune bihurtzen dira. Pianoa jotzen duen modu horrek taila zuzenarekin zerikusia du, formak leuntzen dituen eta, aldi berean, forma

horiengandik behatzeko urruntzen den Brancusi baten antzera. Bere musika, bere hutsuneak, Bachen klabizenbalo musika guztia baino gertuago daude Chillidaren *Mendi huts*-etik.

Euskal eskultorearen *swing* zail eta gogor horrek, tailatzen duen lerro horrek, Bachen errepikapenarekin baino zerikusi handiagoa du Monkekin. Monkek polirritmia erabiltzen du, hatzen izugarrizko trebetasun hori, baina baita bere gorputz handiaren etenaldi horiek ere, begiradarekin pianoaren aurren gelditzen den indar fisikoarenak. Bere pieza nagusietan antzeman daiteke hori: *Round Midnight*, jazzean bertsio eta tributu gehien ezagutu dituen gaietako bat, eta *Straight No Chaser* bikain hori, itzultzen zaila den izenburua eta jazzaren eta pianoaren filosofia oso bat laburbiltzen duena, filosofia lehorra, apaingarririk, izotzik gabea. Monkek erdi erretiratuta igaro zituen bere azkeneko urteak adimen arazoengatik, Chillidak bezala, baina eskultoreak baino denbora gehiago ordea, 1973tik 1982ra. Sendotasunean eta altueran ere antza bazuten, baita barnerakoitasunean eta definitzen konplexua eta kokatzen zaila zen lanean ere. Minton's Playhouse izeneko musikako lokal batetik hasita, Monkek, Charlie Parker eta beste batzuekin batera, musika berria sortu zuen, bebop musika, eta gazteei bidea egin zien, horien artean Miles Davis-i edo John Coltrane-ri.

Denbora bezainbat espazio daude. Erlojuak ordenatutako denbora dago, baina norbere baitan dauden gauzek dakarten denbora ere badago, eta denbora horren intentsitatea bestelakoa da; kanpoan dirauena ez bezalako denbora da. Halaber, denboraren igaroaldiak eta denbora trinkoak, dentsuak daude, non norbanakoak bere buruaz garatzen duen kontzientzia unitarioa lodiagoa den. Pentsa dezagun Mark Rothkorengan. Pintore abstraktua, espresionista amerikarra, hasierako ezerezetik abiatzen da, euskarriaren zurtasunetik, Kiotoko lorategitik, ondoren, arakatu edo arrastelatzeke (monjeek egunero egiten duten bezala) eta barne sosegua irudia sortzeko, kaligrafia modura pinturan islatuta. Biek, Chillidak eta Rothkok, elkarrekin egin zuten erakusketa bat Basileako Kuntshalle-n, 1966an.

Chillida paperaren irudi biluzitik abiatzen da, ondoren, itzalik gabe, “espazioak modulatu” elkar eratzen duten trazu zatikatu horietan bere eskuak, edo *Abesti gogorak* sortzeko. Barne-basamortuaren estasisko bizipenak dira, esperientzia positiboak, ezerezetik abiatuta meditazio berria sortzen baitute — eskultorearen kasuan espazioaren kontzeptuari berari buruz—. Bachek espazioaren koordinatuan ordenatzen du denbora (hau da, soinua, soinuaren isuria). Hala, fugak edukitzailer batean abestutako denboraren iragaitea ateratzen du, eta hala erakartzen, xurgatzen eta izozten gaitu bere eraikuntzan. Niretzat ezerk ez du Bachen fuga baten antza handiagorik, Chillidaren esku baten marrazkiak baino.

KANDINSKYREN OMENEZ

Mendebaldeko pinturan, abstrakzioaren aitzindari handiari egindako *Omenaldiak* lehen aipatu ditudan Giacometti eta Calder eskultoreei egindakoen aurrekoak dira. 1963an, Chillidak bidaia bat egin zuen Greziara Louis Gabriel Clayeaux-ekin (Parisko Maeght galerian izan zuen aurrenetako babeslea), Jacques Dupin poetarekin, haren emaztearekin, eta berearekin. Erroman egonaldi labur bat egin eta gero, Saint Paul de Vence-n amaitu zuten bidaia, Ameriketako Estatu Batuetan bizi zen arkitekto katalanak, José Luis Sert-ek, Fondation Maeght-en egoitza eraiki zuen lekuan.

Bidaia hartan ezagututako argiaren kontzeptuak, Greziako zeruaren garbitasunak eta Zikladeetako uharteetako munduaren argitasunak eragina izan zuten eskultorearen zereginean. Argia funtsezko osagaia da Greziako paisaia eta arkitekturan; gardena eta bizia: arrosa, urrea eta urdin argia, Egiptoko piramideetako gelak ez bezala. *Fos* argia da, *skatos*-en kontrakoa, ilunpearrena. *Faino* aditza, erakutsi, agerian utzi, *fenómeno*, *fantasma*, *diáfano*... gaztelaniazko hitzen sorburua da; *fa*- erroak distira egitea esan nahi du. Johannes Kepler-ek, ikusmenari buruzko bere teorian, desegin egiten du lux eta lumen arteko desberdintasuna, azkena aipatutakoa argiaren esperientzia subjektibotzat eta erlijiosotzat hartutakoa izanik.

Lawrence Durrellek (1912–90), ama eta anai-arrebekin Korfura iritsi zenean, itsasontziaren bizkarraren gainean zutik zegoela, Greziako uharteek eta bertako zeruak, *to fos*, bertako argiak eragin zituen zirrara laburtzen du *Prospero's Cell* (1945) obran. Hitz horiek Nicholas Urfe-k topatu zituen, John Fowles-en (1926–2005) *The Magus* (1965) nobelaren protagonistak, Parnaso mendian idatziak, Fraxos uhartean (Spetses errealtatean). 1998an bertara itzuli zen, eta lekua filmatzean idazleak Greziako argiaren izaera nabarmentzen jarraitzen du.

Foceako harkaitzetan, Frantziako Proventzako muinoetan bezala, bidaia amaitu zuten lekuan, natura fisikoaren ezaugarriak, argiarenak, antzekoak dira: Albert Camus-ek *Noces*-en deskribatutako moderazioa, August Macke, Matisse eta abar erakarri zituen Afrikako bortiztasun harekin batere zerikusirik izan gabe. Urruntasunaren doitasuna da, zehaztu eta ixten duen zerumuga, perfekzio itxi eta mugadun gisa. Begiak galdu egiten ditu perfilak, lerroak, aurkitu egiten ditu eta berriro galdu, ez ordea gardenak direlako, fin-finak direlako edo urruntasunaren doitasunak, zerumugak, zehaztu eta ixten dituelako baizik, perfekzio itxi eta mugadun gisa. Zerumuga Partenoia da, ez da katedrala. Rainer Maria Rilke-ren hitzetan “gorputza ukitzen duen” Greziako argi hori; eskulturak ukitzen dituen hori, Medardo Rosso bere plastikan barneratzen saiatuko den hori. Erroman egindako atsedendian, hain zuzen, izan zuen Eduardo Chillidak Medardo Rosso-ren lana ikusteko aukera, liluratua utzi zuen lana.

Argiaren ikuspegi horrek, Euskal Herrian existitzen ez den argi horrek, material berri bat, material zeharrargia, alabastroa, erabiltzera eraman zuen Chillida. Adierazgarria da material horrekin egin zituen lanen izenburuak hauexek izatea: *Argiaren gorazarreak* (*Elogios de la luz*), *Arkitekturaren gorazarreak* (*Elogios de la arquitectura*), *Arkitektura heterodoxoak* (*Arquitecturas heterodoxas*), eta abar. 1965ean hasi zuen etapa da, 1969ra arte etenik gabe iraun zuena. Izan ere, 1969ra arte egin zituen alabastrozko hamalau piezaren izenburua *Argiaren gorazarre* da. Eta ondoren ere berriro erabili zuen materiala, esaterako 1976an *Goethe-ren omenez* (*Homenaje a Goethe*), egin zuenean, hiltzean argi gehiago eskatu zuen artistari eskainitako omenaldian. Era berean, Greziara egindako bidaia haren ondoren, eta beharbada alabastroz egindako lanarekiko kontraste gisa, eskultoreak buru-belarri jardun zuen grabatuaren munduan, paperaren zuritasunaren eta, erdizka ibili gabe, orban beltzaren eta lodiaren arteko lan berezi eta iraunkor horretan.

Alabastroz egindako hiru lan mota bereiz ditzakegu:

- * baxuerliebeak

- * *Argiaren gorazarreak*

- * *Arkitekturaren gorazarreak*, horien aurrekariak izanik Kandinskyri eginiko Omenaldiak

Chillidak 1960an Kandinsky Saria jaso zuen. Aurreko urtean bere aurreneko zurezko lana egin zuen *Abesti gogora I* (orain Cuencako Museoan); *Abesti gogora V*, granitoz egin zuen 1966an (orain Houstongo Museoan). 1962an bere aurreneko marmolezko erliebea egin zuen eta hogeita hamabi pieza ikusgai jarri zituen Mark Rothkoren lanaren ondoan, Bernako Kunstmuseum-en. Rothkorentzat, inpresionistentzat bezala, espazioa substantzia zabala da, dardara egiten du, baina ez da gardena, ez da zeharrargia, eta ez da itxuraldatzen, da eta dardara egiten du. Bere laukizuzenetatik argia erauzteko Rothkok *staining*-a, pintura geruzen gainjartzeen boleroa euskarritzat hartzen duen bitartean, Chillidak ebaki ortogonal eta sinpleen errepikapenez zeharkatzen du alabastroaren argitasun zainduna. Ez al dira juduaren laukizuzen gainjarriak bihotzaren paisaia, belarraren eta uraren dardara non kokatu, objektuetatik urrun, pintore amerikarra bila ari dena? Chillida euskaldunarentzat, erlazio bat da, dardara bat, itxura hartzeko zeharkatu beharrekoa.

Alabastroz egin zuen aurreneko lana, *Kandinsky-ren omenez (Homenaje a Kandinsky)*, 1965ekoa da. Gutxienez lau pieza egin zituen izenburu horren pean: 1. *Kandinsky-ren omenaldirako estudioa (Estudio Homenaje a Kandinsky)*, alabastroa (20 x 33 x 26 cm, Jan Krugier-Ditesheim Art Contemporain bilduma, Geneva); 2. *Kandinsky-ren omenaldirako estudioa (Estudio Homenaje a Kandinsky)*, alabastroa (25 x 33 x 36 cm, artistaren bilduma); 3. *Kandinsky-ren omenez (Homenaje a Kandinsky)*, alabastroa (25 x 33 x 36 cm, bilduma pribatua) eta 4. *Kandinsky-ren omenez (Homenaje a Kandinsky)*, zura (20,5 x 33 x 36 cm, Dr. Jan A. Fischer bilduma, Zurich). Alabastroak argiarekin eta arkitekturekin elkartzeko aukera eman zion. Garai hartan, ilustrazio batzuk grabatu berri zituen akuafortez André Frenaud-en *Le Chemin des Devins* libururako, eta horren ondoren urte batzutan baztertu zuen grabatua, tintaren iluntasuna, alabastroa lantzeko. Material horrekin eginak hiru pieza mota bereiz daitezke: baxuerliebeak, *Argiaren gorazarreak (Elogios de la luz)* eta *Arkitekturaren gorazarreak (Elogios de la arquitectura)*. Alabastroak eta zurak eskuz egindako forja-lana eta burdina gorria nagusitu ziren zikloaren amaiera adierazten zuten.

Kandinsky-ren omenezko lau lanen konposizioan arkitekturaren berezko ezaugarriak antzematen dira: bi xaflak espazio huts baten zerrendak bereizitako estai bana itxuratzen dute eta behealdeko piezatik sekzio kubikodun hiru pilastra sortzen dira, hiru zutaberen antzera, goialdeko pieza ireki eta zeharkatzen dutenak. Artistak sentsazio jakin bat sorrarazi nahi du, pilastrek goialdearen euskarri gisa dihardutelakoa, zeharkatu arren. Lehenengo lana tamainan bereizten da gainerakoetatik, txixixeagoa delako, eta hiru pilastrek goialdeko pieza zeharkatzen ez dutelako. Zurez egindako lana goialdeko erpinetako batek saiheskako inklinazioa duelako bereizten da gainerakoetatik, ertz alakatu antzeko bat izanik. Lan horiek guztiak hiru dimentsiodunak izan daitezke, baina erliebe gisa ere jardun dezakete. Hirurogeiko hamarkadaren bukaerako argazki batzuetan artista ikus daiteke bere estudioan, lanak erliebe gisa paretatik zintzilik daudela.

Baina, zergatik aukeratu ote zuen Chillidak alabastroa, eta ez Parosko edo Pentelicoko marmol zuria, grekoek gustukoaren zuten materiala? Ez al du alabastroak harriaren zentzu arkitektonikoaren kontra doan ezpurutasuna eta hauskortasuna? Chillidak ez al zuen aurkitu alabastroan burdinatik, bere aurreko lan guztien materialetik gehien urruntzen den arrastoa? Alabastroa minerala igarotzean itxuratzen da eta haren dardara jasotzen du. Zainean estanpatua geratzen den dardara hori da, bitxia iruditzen arren, zatikatzen duena. Marmola puruagoa da, grekoen argi laua bezala. Baina ez al dauka alabastroak halako argi lainotsu bat, gaizki fokatuz eta erdi ezkutatuz, iparraldeko paisaia hezeko mendiei handitasuna ematen diena?

Chillidaren alabastroei buruz hitz egitean beti aipatu ohi da Greziako argia. Baliteke eskultoreak orduantxe materiala lantzeari ekitea. Baina bere sintonia iparraldeko lainoaren argiak eta hezetasunaren distirak modulaturatuko frekuentziarena da. Ez al da alabastroa, bere gardentasun inguratzailerik eta ez-argian, Chillidari bere jaioterriko espazioaren argia itzultzen diona? Harri horren argi lainotsuaren pean dagoen espazioa. Bissierren eta Rothkoren tenperan eta olio-pinturan nabari diren behelainoaren eta hezetasunaren ikuspegiaren antzera. Ez al da Maggiore lakuaren gainetik altxatzen den lanbro izugarria Bissierren ikuspegi figuratibo edo abstraktu guztia koordinatu eta jasotzen duena, esekita utziz? Ez al da kolorearen hezetasuna Rothko giroan trinkotzen saiatzen dena?

Anekdotarik gabe, asoziaziozko osagairik gabe, edukirik gabe eraikitze gaitasun hori da, hain zuzen ere, Rothko eta Chillida elkartzen dituenak. Biek ezabatu dute agerikoa den hori funtsezkoa den horretara heltzeko.

ARGIAREN ETA ARKITEKTURAREN GORAZARREAK

XX. mendeko eskulturan, forma puruen bilaketak edo ikerketa konstruktiboak baztertu egin dute argiaren modelatzea, XIX. mendearen bukaerako berezko ezaugarri gisa hartuta. Baina bi adibide interesgarri daude: batetik, Brancusiren lanak daude, bereziki bere bizitzaren amaieran egin zituenak, metal leunduekin lan egiten zuenean; bestetik, Chillidaren alabastroak daude. Brancusik Rodin-en eskulturaren zentzu postinpresionista eta Medardo Rossoren argazkiaren esperientzia paraleloak baztertu zituen lan intemporalak lortu nahian. Zentzu horretan, 1924ko *Torse de jeune homme*-ren hirugarren bertsioa, brontze leunduan egina, edo *Oiseau dans l'espace* lanaren bertsio desberdinak, 1934 eta 1941 urte bitartean eginak, forma puru horren bilaketa lanaren erakusgarri argiak dira, aldi berean argia islatzen duen forma horrena. Brancusik berak bere brontze txartatuak trapuekin estaltzeko zuen obsesioa aipatu ohi da, beti distiratsu egon zitezen, urre-xaflaz estaliak baleude bezala, Duccio-ren taulen antzera.

Lehen esan bezala, 1962an Chillidak bere aurreneko marmolezko erliebea egin zuen; ondoren Greziara bidaiatu zen. Bidaiaren ondoren, Chillida alabastrozko lanak egiten hasi zen Kandinskyren azkenaldiko lanaren ideia bisualekin. Greziako argian espazioa eraikitze material gisa ikusi zuen argia, arkitekturaren beste dimentsio bat gehiago balitz bezala. Nicholson-entzat Italia nostalgiaren eta hondakinaren indarra den bitartean, ausentziaren presentzia, dimentsio berri baten itzala alegia (formak formulatzeko eta arkitektura erreala gainjarritako espazio berriak eraikitze gaitasuna duen beste plano baten antzera), Chillidarentzat argia materia da.

Argia eta arkitektura, grekoen munduan kontzeptu paraleloak izanik, elkartuta agertzen dira euskal eskultorearen lanean. Horixe bera adierazi zuen hark elkarriketa batean, Madrilgo *El País* egunkarian, 1980ko martxoaren 29an:

“Alabastroa arkitekturaren dei zuzen batek bultzatuta erabiltzen dut. Alabastroa lantzen erraza da eta material horrekin ergelkeria asko egin izan dira. Alabastroa lantzean 1965. urteaz geroztik haxe nahi nuen, nire arazoak arkitekturarekin

lotura zuzenagoa izango nuen ikuspuntu berri batetik planteatzea, baina baita argira zuzendutako begirada berri bat ere; oso sartua egon izan nintzen ilunpean, Greziatik urrun. Alabastroak argiarekin eta arkitekturarekin topatzeko aukera eskaini zidan”.

Chillidari Louis Kahn-en (1901–72) arkitektura ere interesatzen zitzaion: masa eta espazioa. Masa, arkitekturaren osagai fisikoa, Kahnen arabera egituraren azpiko logika erakutsi behar duten materialen mihiztadura da. Espazioa —masa horietan hertsita— espiritualtasunez betetzen da argi naturalaren jokoari esker. Arkitektura ez da existitzen, arkitektoen lanak existitzen dira. Argiaren aurrean pintoreak, argazkilariak edo arkitektoak duen sentsibiltatea desberdina da. Arkitektoarentzat espazioa ordenatzeko, espazioa eraikitzeo eskueran duen material bakarra da, ez baitago grabitatearen menpe. Alabastroaren isiltasunean eta argian gauzatzean, Chillidaren lanak benetan egiten dio *Arkitekturari gorazarre*.

Chillidaren alabastroak Julius Bissierren uhin-luzeran mugitzen dira, azkena aipatutakoak, monje tibetar baten antzera kontzentratuta, Maggiore lakuko behe-lainoak estalitako argian bere miniaturak eraikitzen dituenen; ontziak eta elizak, kotoizko, urezko eta zeruzko espazioan, ertzetan flotatzen ari diren laku horretan, behe-lainoaren paper dentsoaren grisailan elkartuta. Materiaren hezetasun distiratsuan kolorearen xurgapena aditzera emateko Rothkok sintonizatzen duen uhin-luzera bera da. Rothko-Chillida konbinazioa Arnold Rüdinger-ek eskaini zuen lehen aldiz Basileako Museoa, 1962ko martxoan. Rothko Europar aurkezten zen lehenengo aldia zen, eta Chillidak 32 eskulturarekin lagundu zion, 1958ko Veneziako Bienalaren sarian Mark Tobeyri lagundu zion bezalaxe.

Argiaren orbanak, errepikatuak, Rothkoren helduaroko pinturaren *obstinato* hori, itsasargietako argizko kolpeak bezalakoak dira, itsasoaren iluntasun islatzailean errepikatutakoak. 1949. urtearen eta bere buruaz beste egin zuen 1970. urtearen artean formula bat jalki zen (koloretik kolorerako kontzentraziozko laukizuzenak, sakontasunaren eta distiraren jokoak), salbea edo beste edozein lelo errepikatzen den bezala errepikatuko zena. Bere bizitzaren amaieran, bere pinturaren norabidea aurkitu zuenean, gibelak oliba-tonu nabarmenagoa eman zion jasaten ari zen depresioari: Rothkori orban iluna erabiltzeko joera sumatzen hasi zitzaion, kobazulo platonikoaren iluntasuna bilatzeko joera. Platon parafraseatuz, haren “forma idealen” munduak gastatuta zituen pilak eta presoaren kristalinoa zikina, ahituta eta hezea zegoen ordurako. Heriotzarantz aurrera egin ahala, ekaitzaren grisean barrena, gau beltzean barrena sartzen hasi zen. Baina noiz edo noiz mihise laranja bat edo beste sortzen zen neguko arratsaldearen tonu triste horretan: lanbroaren zarrasta, belarraren belusa ikusten uzten duen horri.

Zerumugak, *orixo*-k, zehaztu egiten du, Partenoia edo Panteoia bezalaxe, markatu egiten du begiradaren erritmoa, kostaldeetakoa, mendietakoa eta uharteetakoa; harmoniak gailentzen dituela ematen du, tenpluetan zutabeen jokoak gailentzen duen bezala. Panteoiari buruz hitz egitean, hain zuzen, hauxe dio Louis Kahn arkitektoak:

*Goitik hainbestekoa da argia non ezin baituzu hurbildu.
Ezin zara bere azpian zutik geratu;
ia laban baten antzera ebakitzen zaitu...
Eta urrundu egin nahi duzu⁶.*

Neurria, harmonia, erritmoa, ezer ez dira argia gabe. Grekoak bere aberrian pentsatzen duenean bertako argian pentsatzen du; Edipo zaharra, hiltzean itsu, bere gorputzean jausitako argi ilun haren gura da: (*Ifigenia en Aulis* 1208: “O! distirarik gabeko argi hori, lehen, nolabait ere nirea zinen, baina orain zure muturrak ukitu egiten du nire gorputza”). San Pio martiri kristauak ere argiari buruz hitz egiten du Ifigeniak bezala: “zein gozamina argia ikustea”.

Argi horrek, Edipo-k bere materialtasuna deskribatzen duen argi horrek, argazki baten dramatismoaz ukitzen ditu Rossoren estatua. Chillidaren aurretik beste eskultore batzuek ere bizi izan zuten esperientzia hori, Henry Moore britainiarrak adibidez. Hauxe dio hark: “Greziako argia, mundu guztiak dioen bezala, bizitzen ez duzun arte imajinatu ezin duzun zerbait da. Ingalaterran, objektuak xurgatuta egongo balitz bezala dago argiaren erdia, baina Grezian objektuak berak argia isurtzen duela ematen du, bere barrualdea argituta balego bezala”⁷. Argi hori da Greziara egin zuen bidaldian Herbert List argazkilari alemana bilatzen aritu zena, eta 1939–53ko *Licht über Hellas* bere liburuan islatu zuena.

Greziako argia eta arkitektura ezagutu eta gero, argia arkitekturaren beste osagai bat gehiago zela, eta funtsezkoa zela konturatu zen Chillida. Argia masan bizi da, dio Louis Kahn. Argian, arkitekto grekoek arkitektura ikusten dute. Espazioa eraikitzeko material gisa ikusten dute argia, arkitekturaren beste dimentsio bat balitz bezala. Halaxe ulertzen ditugu haien tenpluak, ia irekiak direlarik. Arkitektoaren pentsamenduaren egitura konplexua eraikuntzan oinarritzen da, eta arreta berezia jartzen du bere funtzionaltasunean, bere trinkotasun edo sendotasunean eta bere edertasunean. Eraikuntzari grabitateak, ekonomiak eta materialen legeek ezartzen dizkiote dituen mugak. Nola erlazionatzen dira arkitektura eta argia? Arkitekturak eraikuntzaren funtsezko osagitzat du argia.

Argiak argazkilaritzaren edo zinemaren munduan bezainbesteko garrantzia du arkitekturan. Argia diodanean eraikuntzako materiala esan nahi dut, ez ordea argiztapen soila. Argiztapenak giroak sortzen ditu, eta eredu narratiboak ere, nahi izanez gero. Ez da gauza bera lanparen argia eta kandelaren argia, edo suaren argia; era berean, su hori ez da gauza bera Burgosko errota baten barrualdean eta basamortuaren espazio zabalean. Hortaz, argiaren zirrara, argiztapen gisa, ez da beti berdina; ez gara berdin sentitzen telebista-kamera batek bortizki fokatzeko gaituenean eta pub bateko giro intimistan. Hala ere, eta funtsean, argia berez arte guztien eraikuntza osagaia da.

Conversations with students (Rice University School, Princeton Architecture Press, 1998) bere liburuan, Kahn adierazi duenez:

Eguzkiaren argia horia

Eta itzala urdina zirenean hazi nintzen.

Baina argia zuria eta itzala beltza zirela konturatzen naiz⁸.

Poema labur antzeko horretan arkitekto lituaniarrak argiaren gaiaren aurrean erakutsitako interesa nabarmentzen da. Argiak inguratu ez ezik egituratu eta elikatu egiten du. Denboraren zikloek eta argiaren iragaiteak iheskortasunaren kontzientzia kokatzeko eta hartaz jarduteko balio izan diete poetei. Garai guztien poesian irrikatzen den argia dago eta erakusketen muntaian ere irrikatzen den argia dago, bestelakoa. James Turrell-en bizi-esperientzia, adibidez, ñabarduraren geografia da, zatitik osotasunera,

instalazio soiletatik Roden Crater-eko multzora joateko aukera ematen diona, eta mendiaren monumentaltasunetik bertako behatokien txikitasunera. Mundua argiari esker existitzen da eta argia sortzaileen, poeten, pintoreen edo artista plastikoen sugar itsugarrian bakarrik bizi da.

Kahn lotsatiak eta barnekoiak bezala hitzei buruz jardutean, Turrellek ere bi ezaugarri aipatzen ditu argiari dagozkionak: bata, egunero erabiltzen den zerbait izatea, eta bestea bere existentzian sorburua duen gaitasun poetikoa. Arkitektoak haxe zioen bere laguntzaile eta lagun leial Gabor-i buruz ikasleei hitz egitean:

*Hitz batek bi ezaugarri dituela uste du.
Bata neurtu daitekeena, egunero erabiltzen dena,
Bestea bere existentziaren miraria,
neurgaitza².*

Mendeko arkitekto guztiek erakutsi izan dute argiarekiko interes handia, baina inork ez du lituaniarrak bezala maneiatu. Frank Lloyd Wright-ek zioenez argiaren kolorea gorria da, Arizonako gorria eta, hala, bere autoak beti izan ohi ziren gorriak. Taliesin West-eko bere estudioan, ia aire zabalean zegoen estudioan, sabaiko olana kurbatuek ñabartzen zuten argia. Ez zekien itsasoko urak xurgatzen duen lehenengo kolorea, bost metro eskasetara, gorria dela, laranja eta horia baino lehenago desagertzen dela. Le Corbusier-entzat “arkitektura argipean dauden bolumenen joko doia da”. Giorgio Morandi-ren pinturatik Rothkorenetik baino gertuago dagoen ikuspegia da. Italiarrarena, suitzarrarena bezala, ordenari, pitxerren eta beiren argia xurgatzeko moduari buruzko gogoeta da. Kahn harago doa eta bere ustez argia, argitu ez ezik, gorpuztu eta gauzatu egiten da, arkitekturaren osagai gisa integratzen da. Eraikuntzaren osagai da espazioak itxuratu eta, beraz, gaitu egiten dituen neurrian.

ARGIAREN BILA

Chillidarentzat argia espazioa blaitzen duen fenomeno da, agerian jarri eta espresatzera bultzatzen duen neurrian. Arkitektura mugatzen duten planoak argiaren arabera daude eta horregatik dira argi-osagaiak. Masa mugitu egiten da eta bertan argia bizi da. Planoak, argia eta argi planoak arkitektura ororen osagaiak dira: gauzatu egiten dute arkitektura. Alberto Campo Baeza-k *La idea construida: la arquitectura a la luz de las palabras* (Colegio Oficial de Arquitectos de Madrid, Servicio de Publicaciones, 1995) liburu eder horretan aditzera ematen duen ideia bera da. Kontua ez da bolumenak argitzea, eskulturaren historiaren une jakin batean gertatu zen bezala, bolumen-sentsazioak sortzea baizik. Batetik, argia osagai narratiboa da, kualifikatzailea, hormak apurtu edo grabitatea eraso dezakeena. Bestetik, arkitekturak mugatu egiten du espazioan lekuak sortzean. Eraikitzearen mugekin, hormekin eta sabaiekin jolasteaz gain, eremu batean harrapatzen du argia, leku poetiko soil gisa ez ezik eraikuntza gisa ere, Aalto-k, Pei-k edo Barragán-ek egin duten bezala.

Chillidak grabatuan ere aztertu izan du, adibidez 1989ko *Argian*, Twombly-ren omenez (*Argian*, *Homenaje a Twombly*) izenburua duen horretan. Akuaforte bat da, tintarik gabea, paperaren testuraren gaineko presioaz bakarrik sortua. Paperean edo paperak duen argiarekin jolas egiteko saio hori 1971ko

Rembrandt-en omenez (Homenaje a Rembrandt) lanean nahiz ondoren sortutakoetan antzeman daiteke. Akuaforre horretan Chillidak argi-efektu antzeko batzuk gehitzen ditu espazioan zabaldutako orban eta tinta jokoarekin, altzairuetan eta burdinetan materialaren kalitatearekin eta oxidazioarekin konbinatu izan duen bezala, edo *collage*etan ertzak erreta dituen paperarekin.

Kromatikotasun “akromatiko” horren erakusgarri onena 1974an Chillidak Jorge Guillénen *Mas allá* libururako egin zituen hiru xilografiaz dira. Ez dago tintarik, zura bakarrik, ebakiduna edo ebakirik gabea, gubiak eta zizelak ildaskatuta edo ildaskatu gabe, horrela paper inprimatuaren gainazalean bi maila desberdin sorraziz: plantxa garbiak ukitutako paper laua eta arraildutako papera, ildaskara moldatu zena. Ukipenetik sortzen da lerroa, bi gainazal horien arteko tartean. Chillidaren grabatu zuri horietan inprimatutako planoen arteko harremanetik abiatuta eratzen da marraztutakoaren lerroa eta erritmoa, plano helezinekiko hurbiltasun horretan, haien arteko erlazioan. Elkar mugatze horretan sortzen da lerroa tinta beltzaren beharrik gabe, purutasunaren, argitasunaren eta argiaren alkimia antzeko batean bezalaxe; berdin agertzen da poeta espainolaren poesia trinkoan, linealean, eta arretaz neurtutakoan, edo Twomblyren pintura zurian.

1965ean *Kandinsky-ren omenez (Homenaje a Kandinsky)* eta 1976an *Goethe-ren omenez (Homenajes a Goethe)* egin zituen lanen ondoren, Chillidak *Argiaren bila (Buscando la luz)*, hain zuzen, edo iragarpen gisa, izenburua duten bere azkeneko piezak amaitu zituen. Itsasoarekin elkarriketan aritu nahian ibili ondoren, 1997 eta 2000 urte bitartean, argia irrikatzen zuen, zerua enkoadratuta nahian ibili zen.

Lehenengo pieza hasi eta berehala amaitu zuen Gipuzkoako tailer berri batean, Legazpiko tailerra eta Reinosakoa bere galderei azkar erantzuteko gai ez zirela ikusi eta gero. Corten altzairuzko txapa tailer bat topatu zuen eta pieza erraldoi bat sortu zen, zortzi bider hiru metro zabalerakoa (19,5 tona), olatuek astindutako kubo baten antzera zerurantz zuzendu eta enkoadratzen duelarik. Kapera individual antzeko bat da, batetik babestu egiten gaituena eta bestetik zerua zabaltu edo enkoadratzen diguna, ate edo kai oro aldi berean beste espazio baterako irteera eta sarrera delako Chillidak zuen ideia horrekin bat etorritz. Garai hartan bertan, eskultura bat egiteko eskaria jaso zuen Munichetik, bi pinakoteka zaharrak, Leo von Klenze-ren Alte Pinakothek eta Neue, II. Mundu Gerran zaharberritua, eta XX. mendeko arterako Stephan Braunfels eraikitzen ari zen berria, Pinakothek der Moderne, elkartuko zituen plazarako.

Alte Pinakothek eraikitze eskaria Luis I.a Bavariakoak egin zion Leo von Klenze (1784–1864) arkitektoari. 1826–36 bitartean altxatu zuten, eta Museo izena jarri ordez Pinakothek izena eman zioten soilik. Klenze bat zetorren, Friedrich Schinkel bezala (Berlingo Altes Museum-en arkitektoa), eraikuntza publikoen inguruko Napoleon-en garaiko ideiekin, hau da, argitasunari eta garbitasunari loturiko arrazionalismoarekin. Obra hark izan zuen arrakastari esker Errusiako tsarrak San Petersburgon Ermitage eraikitze eskatu zion, 1839–51 bitartean altxatutako eraikina. Handik gutxira, 1846 eta 1953 urte bitartean, August von Voit-ek (1801–70) Neue Pinakothek eraiki zuen. Bi eraikinak bonbardatu egin zituzten II. Mundu Gerran. Lehena, kalte handirik izan ez zuena, Hans Döllgast-ek (1891–1974) berziztatuta zuen 1946–56 bitartean. Bigarrena, erabat hondatua, ia osorik berreraiki behar izan zuen Alexander Freiherr von Branca-k (1919–2005). Arkitekto hark, irizpide egokiaz, harri berdina eta adreilu berdina erabili zituen, tonua desberdina bazen ere, eta eraikinak fatxadetan zituen zauriak agerian utzi eta barrualdea berriro antolatu zuen; 1981ean ireki zuten. Hirugarren Pinakothek hori (der Moderne), 1995ean eskatu zioten Stephan von Braunfels (1950) arkitektoari, eta 2002an inauguratu zuten.

Municherako, Chillidak hiru pieza egitea erabaki zuen, elkarri begiratzuz elkarrekin harremanetan daudenak eta, oxidatzeko Zabalagako basoaren soilgunean kokatu zituenak (aurreko jabeen tenis-zelaia zegoen lekuan). *Argiaren bila I* (*Buscando la luz I*) lanaren antzeko hiru pieza dira, baina irekigune estuagoa dute (hauek dira neurriak: 798 x 275 x 222 cm, 798 x 275 x 231 cm, 798 x 235 x 275 cm). Era berean, *Argiaren bila* proiektuaren eredu bat egin zuen, hiru piezakoa baita ere, aurrekaritzat 1991ko *Iru burni*, 1994ko *Monumentu baterako ideia* (*Idea para un Monumento*) eta 1987ko *Espazioari aholkua* (*Consejo al espacio*) dituenak. Chillidaren ustez kokaleku horretarako lan egokia egin zuen, baina ez ziren iritzi berekoak izan obra batzordearen arduradunak, bereziki museokoak eta Kunst am Bau Fundaziokoak; beste zer edo zer espero zuten harengandik. Chillidak bere ideari eutsi zion, hau da, lan hura izan behar zuela Munichera joan behar zuena, eta eskaria betetzeko beste bat ez zuela egingo esan zuen. Gaitzetsiko bazuten, Chillidak Zabalagan jartzeko asmoa zuen. Rolf eta Irene Becker bikotea, Berlinerako *Berlin-Berlin* lanaren mezenas izandakoak tartean sartu zirenean konpondu zen egoera, eta azkenean pinakoteka berriaren aurrean instalatu zuten, 2002an izanik inaugurazioa. Bitartean, multzoa Zabalagatik alde egiteko aukera egon zitekeela pentsatuz, Chillidak hirugarren lan indibiduala egin zuen: *Argiaren bila IV* (*Buscando la luz IV*) (oinarri estuagoa duena, 800 x 275 x 215 cm, 17 tonakoa). Lan horien ideiak 1990ean artistak burdinaz landu zituen eredu batzuetatik sortu zen, tailerrean dibertimentu gisa egin zituenak, nolabait esateko kartoiekin jolasean aritu izan balitz bezala, eta *Monumentu baterako proiektua*. *Argiaren bila* (*Proyecto para un monumento. Buscando la luz*) izena eman zien (burdinazko hiru pieza, posizio desberdinak hartzen dituztenak, bederatzi eta hamar zentimetro inguru bider sei zentimetro sakon), eta horietatik, 2000ren amaieran, hiru pieza egin ziren (230 x 236 x 90 cm, 205 x 222 x 140 cm, 179 x 190 x 117 cm).

Eskultura hura 2000ko ekainean eraman zuten Munichera; hortaz, ez zen irailaren 16an egongo Chillida Lekun, inauguratu zenean. Obra hori ez zegoen jadanik han, bai ordea *Berlin-Berlin* (1999ko abendutik), Alemaniako gobernuak Berlingo kantzilerraren egoitzaren sarrerarako eskatua, Axel Schütte arkitektoak Charlotte Frank-ekin lankidetzan egindako egoitzarako, alegia. Henry Mooreren eskultura Bonnekoko kantzelaritzan modernotasun sinbolo izan zen bitartean, orain, euskal artista izan da aukeratua. Chillida Leku inauguratu eta handik gutxira, urriaren 6an, Berlin-Berlin eskulturaren 87,5 tonak Zabalagako sarreratik Berlinera eraman zituzten urriaren 25ean eskusiban egingo zen inauguraziorako, egoitzazko eraikina amaitu gabe zegoelako. Eraikina 2001eko maiatzaren 2an inauguratu zuten.

Argiaren bila 2002ko abuztuaren 7an hasi ziren instalatzen Pinakothek der Moderne-ren aurrean, Luis Chillida bertan zela. Eraikina eta Chillidaren obra irailaren 16an inauguratu zituzten aldi berean. Izenburu bereko beste bi lan bertikaletatik, bata Zabalagan dago eta bestea Urvasco bildumak eskuratutako fondoetan (orain Guggenheim Bilbao Museoa), Yorkshire Sculpture Park-eko Henry Moore Fundazioan denbora luzean egon ondoren.

Chillida itsasoa behatzetik eta *Haizearen orraziekin* itsasoari buruz bere buruari galdezka aritzetik zerua behatzera igaro da, bere eskulturekin zerua *markoztatzer*a. Lehenik Zabalaga baserriarekin egin du, bertako sabaizulo eta leiho berriekin; ondoren Tindaya proiektuarekin eta bertako tximiniekin (eguzkiaren eta ilargiaren argira, eta itsasoaren ostertzera begira); eta orain obelisko hutsarekin (hiru pareta edo hiru olatu dituen Panteoi modukoa), *Argiaren bila* izenburua duenarekin. Bertan, Chillidak bat egin ditu esperientzia minimalista (adibidez Turrellen argiaren erabilera) eta bere poetika. Chillida, Turrell bezala, argiaren eta airearen fenomeno guztien ezagutza zientifiko sakonaren jabe da. Buruz dakizki Rayleigh

eta Tidall fisikarien teoriak; badaki argia bere ibilbidean lausotu egiten dela materiarekin elkarrekintzan aritzean, kontaktuan jartzen den partikulen tamainaren eta ezaugarrien arabera. Zerua eta itsasoa urdin ikustearen arrazoia azaldu zuen Rayleigh-ek; argi urdinaren difusioa berdintsu errebotatzen dute norabide guztietan ur molekula txiki-txikiek, gainerako koloreek molekula horiek normaltasunez zeharkatzen dituzten bitartean. Tidall-ek sortzen den difrakzioa aurkitu zuen, behe-laino gisa ezagutzen dugun hori. Zerua munduak eta ozeanoarenak nahiko antza handia dute.

Bai airea bai ingurune urtarra giza izatasunarekin zerikusirik ez duten inguruneak dira, baina biak daude gure garapenaren lehenengo hilabeteetara lotuta, likido amniotikoan blaituta gaude eta egiten dugun aurreneko gauza arnas hartzea da; arima (psikea) hatsa da, airea da, eta azken hatsa hartzea da joan aurretik egiten dugun azkeneko gauza. Horregatik, sakontasunak, zeru goialdeetan eta itsasoan, erakarpen indar handia eragiten du gugan, zalantzarik gabe geure buruak bertan murgiltzeko beldurra gainditzen duen erakarpena izanik. Aurrerapen teknikoek, ia Espresionismo Abstraktua zahartzen ari zen garai berean, zeruaren eta ozeanoaren mundu zoragarri horretara eramanez gaituzte, bi lekuetan isiltasuna izanik nagusi. Urpekari batek urpean dagoenean sumatzen duen arintasun sentsazio hori ehiza-pilotuek sentitzen dutenarekin bakarrik konpara daiteke (astronautak ere urpean entrenatzen dira). James Salter, 1956ko *The Hunters* obraren egilea (Random House, New York, 1999), pilotu izan zen Koreako gerran, eta honela dio: “zerua garbi-garbi zegoen, eguzkitako betaurrekoetan zehar are eta urdinago ikusten zen, ozeano sakonaren antzera”¹⁰.

Hala eta guztiz ere, itsas-hondoan, berrogei metrotik aurrera, argia ia ez da existitzen, urpekariak moztarroak kentzen dituztenean batzuetan miraguneak sortu arren. Haiengandik eta ikerlanei esker dakigu berrogei metrotik behera espazioa urdin bihurtzen dela, urdin sakonaren ilunantza, eta hirurehun metroak gaindituta gainazaletik sortutako argi distira leun eta urrunak beltz ilun-ilunari bide egiten diola, oso beltz lodia delarik, fauna abisalaren distira argikor batzuez zipriztindua. Argiak zeharkatzeari uzten dio, baina zenbait kasutan animalia edo landare batzuk argitzeko gai izaten dira —babes-metodo gisa—, iristen diren izpi ultramore urriekin energia elektrikoaren elkartzea sorrarazten dutelako, beste izaki batzuk ikaratzen dituen argia, baina urpekariarentzat deigarri ez dena.

Urpekarien miraguneari *raptures of the deep* deitzen zaio ingelesez, “itsas hondoko zoraldia”. Argi falta eta uraren presioa ia aldi berean sortzen direlako gertatzen da, nitrogeno narkosiaren eraginez. Horrez gain, kontuan hartu beharra dago uraren presioa itsas mailan ikusteko eta mugitzeko garaian atmosfera batekoa dela, eta atmosfera bat gehitzen dela 10,33 metro sakontzen den bakoitzean. Nitrogeno intoxikazioak, narkosiak alegia, urpekaria erasotzen du eta euforia eta haluzinazioa sentitzen du —mozkorraldiaren antzera—, eta sentsazio horrek betaurrekoak edo arnas hartzeko erreguladorea kentzea eragiten dio. Hegazkinlariarentzat, zeruaren esperientzia bestelako esperientzia da koloreari, baretasun zentzuari, eta koordinatu espazial faltari (ez duzu zorua zapaltzen) dagokienez; zenbat eta altuera handiagoa orduan eta sakonera handiagoa, deep blue handiagoa, beraz. Eskala eta perspektiba, urpean edo zeru goian, ezezagunak dira normalean, eta sen berezia behar izaten da orientatzeko.

Tindaya Chillidaren bizi-proiektua bada, Arizonako *Roden Crater*, Painted Desert-en, Flagstaff inguruan, Turrellen proiektua da. 1974an hasi zuen Guggenheim beka bati esker, eta harrez geroztik behatoki natural bihurtu nahian dabil Turrell sumendi bateko kraterra, eskultura, arkitektura eta paisaia konbinatuz. Sumendi horretan Turrell Prometeo balitz bezala dihardu, jainkoei sua lapurtzen dien heroi grekoa,

gauerako eta babes gisa argia ekartzen diguna. *Roden Crater*-en egunean zehar zeruaren urdina ikustez gain ozeanoaren *deep blue* hori ikus daiteke gauean zehar. Eugenio de Andrade (1923–2005) portugesak *Contra la oscuridad* bere liburuan (Blanco en lo Blanco izenburupean 1982–1984 aldia biltzen duen poesia zikloari dagokiona), hauxe dio “azken oharrean”:

*Argiaren izatea
hitzaren izatea izango denean,
bere erdigunean sugarrarekin
su hartzea eta goratzea
(edo uretara jaistea),
orduantxe izango naiz etxean*¹¹

Argiaren bila artearen eta naturaren arteko bilgunea eta elkargunea da, barrualdearen eta kanpoaldearen artekoa, eskulturaren eta gizakiaren artekoa. Chillidak badaki geometriaren espazio homogeneousak eta objektiboak gorputzaren orientaziozko espaziotik bakarrik abiatuta duela zentzua, nondik, abstrakzio bidez eraikitzen den: nire gorputza ez da zati soil bat espazioan, ez bailegoke espaziorik gorputzik izango ez bagenu. Izan ere, gure izatearen intimitatetik neurtzen dugu inguratzen gaituen mundua, gauzen mundua, eta gauzeekin neurtzen ditugu geure buruak.

Iragaita, eskulturaren inguruan, bere espazioan buelta ematea, musikaren fluxua bezala, beste gauza bat da leku bat izateaz gain. Adimen sentikorraren, gizakiak sentitzen duen horren mugimendura bideratzen gaituen pasaia da, mistikoengan iragaita bezala, zinean, edo eguneroko bizitzan iragaita bezala: kale bat ez da bere luzera eta bere dentsitatea bakarrik, bertako zikinkeria edo garbitasuna ere bada, bertako giroa eta asfaltoa (buztinezkoa, breazkoa, harritzkoa eta abar). Argia eraikuntzaren garrantzizko osagaia da zinemagintzaren hizkuntzan. Ez da bakarrik atmosferak birsortzeko eta sentimenduak aditzera emateko elementu magikoa, bilbe narratiboa pizteko elementua, zinearen osagai da. Zine-zuzendariak badakite horri buruz, beste modu batera ikusten dute bizitza berau argizatzen ari direnean.

Argiaren bila I eta *Argiaren bila IV* pieza perfektuak dira, herri-arkitektura ona kokatu edo ezartzen den paisaiaren alaba den bezala, soila da beharrak bultzatuta eta, jakin gabe, funtzionala. Zabalagako zelaian txertatzen da, edo hemen Guggenheim Bilbao Museoan (edo lehenago Ingalaterrako belardian), edo Municheko plazan, eskultura eta arkitektura handi guztien —anonimoak izan edo egile jakin batenak izan— akoplamendu melodiko horrekin, José Luis Sert arkitektoak aipatzen zuen “eskala unitate iraunkor” horrekin. *Argiaren bila* obrarekin, Chillidak eskultura batekin kokatzen gaitu, Bernini-k bere kolomadiarekin Erromako San Pedro plaza besarkatzen duen bezala. *Argiaren bila* obran sartzean, begirada gorantz zuzendu ez zik gure eskala, gure neurria, hau da, gure mugak ulertzen ditugu aldi berean. Grekoen munduan, kontzeptu natural hori (beren arkitekturak adierazten duen paisaian eta dagokion zehaztasunean), Heideggerren analisisian espazioari buruz beti agertu ohi den ideia hori, honakotzat hartu du Chillidak: “muga espazioaren benetako protagonista da; orainaldia, beste muga bat alegia, denboraren benetako protagonista den bezala”. Chillidak orainaldian jarraitzen du bere lanarekin. Omenaldi honekin aparteko gizakia gogora ekartzen dugu besterik gabe.

[Itzultzailea: Bitez
Egokitapena: Guggenheim Bilbao Museoa]

Oharrak

1. "Exegi monumentum aere perennius / regalique situ pyramidum altius, / non omnis moriar" [itzuli]
2. "Zeichnung ist für Klee in diesen letzten Jahren beinahe nur noch ein Artikulieren von Zwischenräumen" [itzuli]
3. "Was die plastische Gestaltung und Energetisierung der Leere anbelangt, so ist hier freilich auch an Eduardo Chillida zu denken" [itzuli]
4. "le labbra umane sono un segno di libertà e di angoscia". Roberto Rebora, Della voce umana. [itzuli]
5. "il momento di silenzio che precede il desiderio di una esclamazione, di un richiamo, di una piena e concitata parola"; "s' inizia la strada della responsabilità individuale maturata nella intonazioni, nel suono e nella parallela scelta dei nomi"; "formulazione di un rapporto"; "l'avvio al dialogo". Ibid. [itzuli]
6. "The light from above is such that you can't get near it. / You just can't stand under it; / It almost cuts you like a knife... / And you want to stay away from it". [itzuli]
7. "the Greek light is, as everyone says, something you can't imagine till you've experienced it. In England half the light is, as it were, absorbed into the object, but in Greece the object seems to give off light as if it were lit up from inside itself". [itzuli]
8. "I was brought up when the sunlight was yellow, / And the shadow was blue./ But I see it clearly as being white light, and black shadow". [itzuli]
9. "He considers a word as having two qualities./ One is the measurable quality, which is its everyday use, / and the other is the marvel of its existence altogether, / which is an unmeasurable quality". [itzuli]
10. "the sky was absolutely clear. His sunglasses made it a deeper blue, like deep ocean". [itzuli]
11. "Quando o ser da luz for / o ser da palavra, / no seu centro arder /e subir com a chama / (ou baixar à água), / então estarei em casa". [itzuli]

26 HARRI CHILLIDA-REN ZABALAGA ETXERAKO

BERNARDO ATXAGA

A

Begiak itxi, sartu eskua errekan, eta Zabalagara eraman nahi dudan lehen harria atera dut.

Eta dio E-k, eskuak: leuna da harria, eta sagar mardul bat bezain handia. Argi sumatzen dut bere pisua, eta gorantz bultzatuko ez banio ni gainditu eta lurrera eroriko litzateke.

Gogoetan kide, dio B-k, buruak: alabastrozko harria da. Mendeak egin zituen antzinako baseliza batean, aldarearen zati. Egun batez, aldarea txikitu egin zuten, eta haren pusketak erreka erori ziren. Halaxe iruditzen zait, harria berreskuratzearekin baselizan otoika aritu zirenen poza eta atsekabea ere berreskuratu ditugula.

B

Errekaren ertza aurkitu dut begiak zabaltu gabe, eta hantxe bertan utzi alabastrozko harria, lehorra eta hezea batzen diren lerroan. Bigarren harria hartu dut ondoren.

E-k dio: lehengoa baino txikiagoa da, baina pisu bertsukoa. Bestalde, prisma baten forma du.

Eta dio B-k: basaltozkoa da harri hau. Auskalo nondik iritsi den. Agian lurraren sakonean egon zen harik eta sumendi baten leherketarekin kanpora atera zen arte. Eta litekeena, halaber, eroritako asteroide baten barnean iritsi izatea, aspaldi batean, auskalo noiz. Islameko jendearen espirituaz ukituko bazenu, Gabrielelek Abrahami eman eta orain Mekan dagoen Kaaba sakratuaren kide ezdeusa irudituko litzaizuke.

C

Beltza bata eta zuria bestea, utzi basaltza alabastroaren ondoan, eta hirugarren harria atera dut uretatik.

E-k dio: handia da, sagar mardul bat baino are handiagoa, baina aurreko biak baino pisu txikiagoa du.

Aldeetako batean hainbat goroldioren collage bat dauka, gurutze baten arabera osatua.

Eta B-k dio: txit ezaguna izan behar zaizu orain daukazun harria. Izan ere, kare-haitza da. Ez da iritsi hona izarretatik edota lurraren auskalo zein barren sakonetik. Aldare baten zati ere ez da inoiz izan. Arrunta da harri hau. Berarekin daude eginak gure herriko mendiak.

D

Dagoeneko hiru harri daude erreken ertzean, eta hainbestekoa da haien artean oreka non bere horretan uztea erabaki dudan. Gainerako harriak beste aldean kokatuko ditut; ez nire eskuinean, baizik eta ezkerrean. Erabakia hartuta, laugarren harria kendu diot erreari.

E-k dio: arina da benetan, eusteko ez da indarrik egin behar. Kuboaren forma du, eta zulo txikiak dauzka alde orotan.

Eta B-k dio: dado handi baten itxura guztia dauka. Gorde dezagun, izan dadila halabehararren gogoangarri guretzat.

E

Zabaldutako batez begiak eta den-dena lehen bezalaxe dagoela ikusi dut. Erreken aurrera egiten du, urak urari darraio. Begiak itxi ditut berriro. Bosgarren harria atera dut.

E-k dio: izar bat dirudi.

B-k errekitazeari ekiten dio: arratseko izarra, artizarra, hik biltzen duk egunsentiak banatutako guztia: ardia ekartzen duk, bildotsa ekartzen duk, artzain- mutila ekartzen duk bere amagana.

F

Hiru harri daude nire eskuinean, bi berriz ezkerrean. Luze gabe, bi aldeak berdinduko dituen atera dut.

E-k dio: aski borobila da, eta, gauza bitxia, honek ere badauka izarrik. Bere bizkarrean markatua dago, hain zuzen ere.

Eta B-k: fosila da, zalantzarik gabe. Hatzekin aztertzen ari zaren hau itsas-trikua izan zen. Duela lauhun milioi urte bizi izan zen hemen.

G

Laurehun milioi urte geroago, itsas-trikua izarraren eta dadoaren alboan dago. Tarte batez begira egon ondoren, begiak berriro itxi eta zazpigarren harria atera dut.

E-k dio: G larri baten forma du. Edo galdera ikur batena, agian.

B-k: Harritua, ez dakidanaz egiten dut galde.

H

Uraren soinuaz jabetu naiz bat-batean, eta bere aldaeretan murgildu naiz, isiltasunaren esparrutik aldendu gabe urak, talka egiterakoan, edo abiadura bizkortzean, egiten dituen hotsetan. Zortzigarren harria atera dut jarraian.

E-k dio: pisu handia du, hain txikia izateko.

B-k: Burdina daukalako. Burdina alabastroa eta kare-haitza baino gai dentsuagoa da. Dentsuagoa, beteagoa, ilunagoa, mantsuagoa.

I J K L M N Ñ O P Q R S

Begiak zabaldu eta aurrean dudanari begiratzen diot, erreken beste ertzari eta uraren gainari. Behar adina harri daudela ikusten dut, hamaika baitira guztira. Ez da zaila izango erreka zeharkatzea.

Nire helburua bete orduko, B-k galdera egin dit: zenbatgarrena da orain hartzera goazen harria?

Eta erantzun du E-k: hogeigarrena da, zeharbide bezala baliatu zaizkigun horiek ere Chillidaren etxerako izango baitira.

Gauza txit berezia gertatzen zait hogeigarren harriarekin, dio E-k uretatik atera eta gero. Badakit ahurrean daukadala, baina ez dut bere pisurik sentitzen. Ezta indarra egiteko beharrik ere, beherantz eror ez dadin.

Isiltasunaren harria da, dio E-k. Orain arteko harri guztiak nabarmendu egin dira, baina hau ez. Hau isilik dago. Itxura batera, utzi egin dio grabitatzeari.

T

Errekaren alderdi batera begiratu eta hango harriak oso higatuak daudela ikusten dut. Xabalenetako bat hartu dut.

E-k dio: hogeigarrenarekin bezala gertatzen zait. Ez dut sentitzen. Bistan da, hala ere, aurrekoa baino urriagoa dela.

Eta B-k: aurrekoaren berdina da, baina alde batekin: oraingo honek denbora gehiago egin du uretan. Denborak ditu bereizten.

U

Beste harri bat, hain higatua non zaila den ur-xafla batekin ez nahastea.

Dio E-k: bustia ez balego, ez nuke sentituko. Erabat esku, esku huts, izango nintzateke. Eta B-k, umorez edo: agian ura besterik ez da, edo ura baino lodixeago den gai bat. Azken batean, gure hizkuntzaren arabera, UR dago gai guztien barnean, eta handik sortuak dira LUR, ZUR, EDUR, HEZUR, URTE eta beste hamaika.

V

Harri hauskor bat jaso dut orain, bolatxo baten tankerakoa.

Hutsik dago, dio E-k.

Hutsak ez du pisurik, dio B-k.

X

Bi hatzekin, hogeita laugarren harria jaso dut, harri txintxarra.

X baten antza dauka, dio E-k.

Inkognita guztiek eragiten didate ardura, dio B-k.

Y

Lanean jarri ditut berriro hatzak, arestian baino polikiago. Zerbait daukat ahurrean, dio E-k.

Y grekoaren antza duen abartxo bat dela uste dut, dio B-k.

Z

Begiak zabaldu ditut zerrendaren azkeneko harria, hogeita seigarrena, aukeratzearren. Ari nintzen zein harri aukeratu pentsatzen, eta hor non huskeria bat, izpi bat, pausatu zaidan eskuan errearen gainetik hegan etorrita.

Ez dut ezer ere sentitzen, dio E-k. Ez pisurik, ez usainik eta ez hezetasunik.

Nolanahi den, zerbait daukazu, dio B-k. Puntu bat daukazu, geometriaren arloan aipatzen den horietakoa. Puntu bat ez da ezer, baina lekua hartzen du. Eta, hain zuzen ere, puntu horrek adieraziko du zerrenda honen zenita, azkena.

CALDER-I BURUZ

KOSME DE BARAÑANO

Alexander Calder eskultore amerikarraren lanaren inguruan Eduardo Chillida-rekin izandako elkarrizketa 1994ko ekainaren 24an egin nion Bilboko Lersundi kaleko nire etxean, eta elkarrizketa luzeago baten laburpena da. Garai hartan Calderren atzera begirako erakusketa bat prestatzen ari nintzen Caracaseko Centro Consolidado Fundaziorako, lehenagotik, 1992an, *Chillida. Escala humana* eta 1994an *Marcas y trazos del dibujo* eginak nituen lekuan. Calder lan asko egindakoa zen herrialde horretan berrogeita hamarreko hamarkadan, eta haren lanaren ikuspegi orokorra eskaintzeko eskatu zidaten. Zoritxarrez, erakusketa, 1994ko azaroaren 27rako aurreikusia zegoena, azkenean ezin izan zen gauzatu herrialdearen egoera politikoak eraginda. Izan ere, estatu kolpeetako batek Caracasen bertan harrapatu gintuen euskal artista eta biok.

Eduardo Chillidaren *Calder-en omenez* (*Homenaje a Calder*) altzairuzko eskultura 1979koa da, eta dagokion estudioa, formatu txikikoa, urte askotan egon da zintzilikatua bere tailerreko txoko batean, artistak marrazten zuen lan-mahaiaren atzealdean. 1982an, *La obra artística de Eduardo Chillida* (1988an argitaratua) idazten hasi nintzenean, Eduardok lekuz aldatu zuen eta handik gutxira bere etxe berrira eramane zuen, Intz-eneara, Donostiako Itxasargiko pasealekura. Bertan, bi gillotina-leihoren artean jarri zuen, bigarren solairuan zuen gelan. Hain leku magikoa denez, etortzeko eskatu nion argazkilari eta unibertsitateko irakasle José Manuel Susperregui-ri bere plaketan jaso zezan. *Calderren omenaldirako estudio* (*Estudio para el Homenaje a Calder*) txiki hori bi leihoen artean dago esekia, beren markoen mugan eta proportzioan eta ikusten uzten duten bi urdin tonuen elkartzean —zeruaren urdina eta itsasoaren urdin iluna—. Leiho horiek Mark Rothko-ren bi koadro dirudite, Vermeer-en argi metafisikoa Inpresionismoan (irudia desagiten duen argian) barneratu duen pintore amerikarra, iparraldeko hezetasunaren bibrazio sentsazio hori kolore guztietan aditzera ematen duena. Urte askotan, Intz-eneara egindako bisitaldi bakoitzean, momentu bat hartzen genuen gela horretara igotzeko eta obra hori ikusteko. Lan horrez gain, Eduardok beti izan ohi zuen une hartan buruan zerabilkion edo bereziki kezkatzen zuen lanen baten burdinazko bozetoa edo txamota buztinezkoa bere gelako apaletan.

Kosme Barañano: Galdetu nahi nizuke, gogoratzen baldin bazara, zein izan zen Calderrekin elkartu zinen lehenengo eta azkeneko aldia?

Eduardo Chillida: Zehatz-mehatz ezingo nizuke esan; lehenengo aldiz galerian elkartuko ginen, jakina; seguru. Eta oso ondo gogoratzen naiz elkartu ginen azken aldiaz: New Yorkeko Whitney Museum of American Art-eko erakusketa hartan izan zen, inaugurazioan berarekin egon baikinen.

K.B.: Erakusketa-egun haietan hil zen.

E.C.: Bai, handik egun gutxitara hil zen. Lehentxeago bere etxean afaltzera gonbidatu gintuen.

K.B.: Roxburyn afaltzera?

E.C.: Ez, ez Villagen zuen apartamentuan; ez naiz kalearen izenaz gogoratzen. Lelong ere joan zen eta argazkilari hura... zein zen bere izena? Fredy Melgar, argazkilari espainola, Lelongen laguna. Bertan arratsalde osoa eman zuen argazkiak egiten. Denetaz hitz egin genuen eta, arratsalde osoa eta ia gau osoa bertan eman bagenuen ere ez nion ezer berezirik nabaritu, ezertxo ere ez. Betiko bezala zegoen eta normal hitz egiten zuen; tarteka logaletua zegoela zirudien baina hori normala da afarian nahiko edan baienuen; hala ere, denetaz jabetzen zen. Izan ere, alde egin behar genuenean taxi bila lagunduko zigula esan zigun, eta halaxe izan zen. Fredy Melgarrek argazki batzuk egin zituen Lelongekin eta Sandy-rekin geundela, eta hil zela jakin eta gero bidali zizkiguten. Espainiara iritsi bezain laster (hurrengo egunean edo bi edo hiru egun geroago abiatu ginen New Yorketik) prentsaren, hedabideen bidez jakin genuen Sandy hil zela. Hotelean geunden eta berri hark zirrara ikaragarria egin zigun. Bidali zizkiguten argazkiak, egun haietako argazkiak ikustean, ordurako hilda zegoela jakinda, oso gaizki zegoela konturatu ginen. Hori betirako markatua geratu zaidan zerbait da: han geundenean ikusi ez niona; ez bainion nabaritu aurpegi txarra zuenik. Hala ere, argazkietan antzeman daiteke; zerorrek ere ikusi ahal izango duzu. Argazki horiek etxean daude, ezta?

K.B.: Zein paper betetzen du zuretzat Calderren eskulturak, Eduardo? Brancusi-ren ondoren eta Giacometti-rekin, maila berean jartzen al duzu?

E.C.: Garrantzizko papera betetzen du, baina mailaren kontu hori oso zaila da neurtzen. Nire ustez Sandyk berezko ahotsa du; hori funtsezkoa da niretzat. Berezko ahotsa du eta gainera puntu bat ukitzen du, nire ustez lehenengo aldiz artearen historian: zentzu berri batean lantzen du mugimendua. Nire ustez bere lana jende askorekin erlazionatua dago, artista guztiei gertatzen zaien bezala, eta bereziki Miró-rekin. Oso erlazio berezia dago bien artean; Sandyk asko maite zuen Miró eta Mirók asko maite zuen Sandy. Eta bada komuna den zerbait bien lanean: beti ikusi izan dudana zerbait, Sandy, Miró ez bezalako norabidean zabaltzen den arren. Bera espaziorantz doa, izugarrizko garrantzia ematen dio espazioari baina askoz ere gehiago denborari. Bere lanean horrexek eraman zuen mugikorretara eta bere bizitza osoan zehar egin zituen esperientzia guztietara, zuk nik baino hobeto ezagutzen dituzun horietara.

K.B.: Mirórekin ez ezik, ez al duzu Mondrian-ekin ere erlazioen bat ikusten?

E.C.: Mondrianekin ere sumatzen da erlazioen bat baina baliteke kolore garbietan eta halako gauzetan izatea gehiago, baina formalki, Mirórekin lotura handiagoa duela uste dut. Horrez gain, esango nuke

zenbaitetan Sandyren lanean ikusi izan dituen gauza batzuen erantzun gisa sorrarazi dituela Mirók bere jardueretako batzuk, Sandyk nolabait ere harekin erlazionatuak zeuden gauzak egin eta gero. Izan daiteke, batzuetan hala dirudi, ezta?

K.B.: Zentzu horretan, ez al duzu uste eskultoreetatik baino pintoreetatik sortutako eskultorea dela?

E.C.: Baliteke pinturatik sortu izana, baina aldi berean eskultorea da. Eskultorea da; eskultorea goitik behera baina, nolabait esateko, espazioa eta denbora aldi berean martxan jartzean, Sandyk egiten duen modura, ia lehenengoz egia esan, agerian uzten du eskultore izateko jaio zela. Niri hala iruditzen zait.

K.B.: Ez al duzu uste aipatzen dituzun halako alderdi formalak, adibidez, nahiko ezkutuan geratu direla alderdi ludikoaren atzetik? Calder pertsonaia dibertigarria da, ergo bere eskultura dibertigarria da...

E.C.: Bai, baliteke hori bere izaerarekin pixka bat nahastu izana; oso gizon barregarria zen, oso sinpatikoa, on-ona, pertsona bikaina. Horrek guztiak izaera hutsalagoa eman dio agian bere obrari, harentzat zena baino.

K.B.: Eta zure *Calderren omenez*, noiz eta nola sortu da?

E.C.: Bera hil eta gero egin nuen; momentu hartan omenaldi bat egin nahi izan nion besterik gabe eta halakoetan sasi-artean sartzen naiz zerbait egin behar dudanean. Beti gertatu ohi zait omenaldi horiekin; jakina, nik egon behar izaten dudan zerbait egin nahi izaten dut, baina horrez gain omenaldia egiten diodan pertsona horrengandik zerbait egotea nahi izaten dut. Kasu honetan, noski, ez nuen mugikor bat egin nahi izan Sandyren zentzu berean, baina piezan mugimendua dago birtualki espazio horren barruan; ondo ezagutzen duzu zuk.

K.B.: Zer sentrazio sorrazten dizute zuri gouacheek? Goacheei areto berezi bat eskaini nahi diet.

Ch.: Marrazki batzuk ditugu guk etxean; nahasmen handia dut etxean, baina badut etxean baten bat. Ikusi al duzu?

K.B.: Bai, atondoan duzuen hori oso ederra da.

Ch.: Pasadizo barregarria da. Sachéra joan ginen, Caldertarrekin egon ginen eta egun osoa igaro genuen elkarrekin. Bertan, haien bizimodua oso bitxia zen han zuten etxeagatik: oso etxe dibertigarria zen, herriko etxea, oso polita, oso naturala.

K.B.: Lehenengo etxeaz ari zara, ezta? Françoise I.arena.

E.C.: Bai, hori da, iristen zen edozeinentzat zegoen zabalik. Hara iritsi eta jaten hasten zinen, ogiz betetako mahaiak zeuden, ardoa zegoen, jendea nahi zuenean sartzen zen...

Pilar: Haitzulo bat zegoen etxe barruan eta bere upeltegia zuen bertan, garrantzi handia ematen ziona; beti zegoen mahai handi bat janariz beteta: saltxitxoiak, gaztak, edariak, eta iristen zena gosaltzen, edo mokadu bat hartzen, edo jaten hasten zen... oso abegitsuak ziren.

E.C.: Beti zegoen janaria. Oso atseginak ziren, oso dibertigarriak eta sinpatikoak, oso jende ona. Eta etxe hartan, hauxe gertatu zen guk dugun gouache horrekin: Sandyk gouacheen karpeta bat erakutsi zigun eta orriak pasatu ahala, begiratu eta komentatu egiten genituen; ezer berezirik ez, ez bainion ulertu, ezta gutxiagorik ere, guk bat aukeratzea nahi zuenik; erakusten ari zitzaizkigula uste nuen, besterik gabe, ez ordea bat oparitu nahi zigula. Orriak pasatzean esaten genuen “zer interesgarria hau eta bestea” eta, bat batean, tarte baten ondoren hauxe esan zidan: “Zergatik ez didazu bat eskatzen?”. Sandyk uste zuen bat eskatuko niola, eta eskatzen ez niola eta oso ondo iruditzen zitzaizkidala komentatu besterik egiten ez nuela ikustean, bat aukeratu eta eskaini egin zigun hark.

K.B.: Zuk ez al duzu nolabaiteko gaitzespenik sentitzen brotxa lodiz egindako halako marrazkien aurrean?

E.C.: Ez. Badira oso bestelako gauzak, gustatzen zaizkidanak, nirekin batere zerikusirik ez duten gauza asko eta asko, alegia. Gutxiago gustatzen zait nirearen antza duen guztia: horixe da gutxien gustatzen zaidana.

K.B.: Eta *Zirkua*, zer iruditzen zaizu Whitneyko zirkua?

E.C.: *Zirkua* zoragarria da, apartekoa.

K.B.: Eskultura gisa edo dibertimentu gisa?

E.C.: Guztiarengatik, oso xehetasun interesgarriak dituelako, arte garaikidearen barruan lehen mailako dibertimendua izateaz gain. Baina asko du barruan, asmakuntza handia baita. Arretaz begiratzen baduzu eta osagai batzuk eta besteak ondo begiratzen badituzu, azkenean gauza interesgarri asko aurkitzen dituzu, ustekabekoak, harrigarriak eta bitxiak; gauza horiek multzo aberats baten barruan daude eta hasieran ez dituzu ia antzematen. Ondoren bakarrik, arreta handiz begiratzean, konturatzen zara gauza horietaz. Itxuraz dagoena baino askoz ere gehiago dago *Zirkuan* eta Calderrek gai horren inguruan landu duen guztian. Gainera, oso lotura estua du Calderren izaerarekin, Calderrek pixka bat duelako osagai horietatik guztietatik.

[Itzultzailea: Bitez
Egokitzailea: Guggenheim Bilbao Museoa]

AZKEN ELKARRIZKETA

KOSME DE BARAÑANO

Eduardo Chillida-k eta Kosme de Barañanok 1998ko abenduaren 28an izan zuten elkarrizketa hau, artistak Donostian zuen Intz-enea etxean. Javier Villalbak zuzentzen zuen *Descubrir el arte* aldizkariaren lehenengo zenbakian (*l. urtea*, 1. zk., 1999ko martxoa) agertu zen.

Elkarrizketa Museo Nacional Reina Sofía-n artistari eskaini zitzaion eta ni komisario izan nintzen atzera begirako erakusketaren (1998ko abenduak 15–1999ko martxoak 15) inaugurazioaren ondoren egin nion, Chillidak familiarekin batera Gabonak lasai eta gustura pasa eta gero. Seme-alabak eskiatzera joanak ziren eta bakarrik geunden, ikasle nintzenean goizeko hamarrek aldera Miracruz gainean zuen estudiora joan ohi nintzenean bezala.

Madrilgo museoko erakusketa hark proposatutako bidaia estetikoa Chillidaren 170 artelanen bilduma zen. Ibilbide zehatza eskaintzen zuen, eta giza eskala eta zeruertza bateratzearekin obsesionatua zegoen artistaren lana sakontasunez aztertzen zuen; 1948an figurazioa lantzen hasi zenetik helduaroraino, egungo abstrakzioaraino. Erakusketak, abenduaren 15ean Erregek inauguratu zuenak, hiru atal biltzen zituen: bata (70 lanez osatua) pisuzko eskulturei eskainia, bestea (40 lanez osatua) lurrarekin zituen esperientziei (lurrak) edo paperezko erliebee (grabitazioak) eskainia, eta bestea, (60 paper) marrazkiei eskainia. Ibilbide kronologiko bat izan zen hura, *Tolerantziaren omenez* (*Homenaje a la tolerancia*) eskulturaren egileak erabilitako material anitzak bildu zituen.

Eduardo Chillidak, hitz urriko gizona zenak, haxe adierazi zion prentsari erakusketari buruz: “nire artelanaren inguruan egin den erakusketarik onena da. Kosme de Barañanok ondo ulertu du erakusketa egiteko bukaeraraino iritsi behar zela. Berak egin duen modua, nik egin dudana bezain garrantzitsua da. Orain urte batzuk ere muntaketa bikaina egin zuen Alberto Giacometti-ren lanarekin. Erabat ulertu zuen”.

Erakusketa Guggenheim Bilbao Museoan ere egon zen ikusgai apirilaren 20tik abuztuaren 29ra arte. Bertan, espazioak kontuan hartuta, ez zen kronologikoki instalatu, erreferentzia formalen arabera baino, eta argia eta argiztapena modu berezi batez erabiliz. Madrilgo erakusketa —ibilbide kronologikoa— bisitatu zuen jendeak ikuspegi intimoago batez gozatu ahal izan zuen orduan, ez hain hotza, eta aldi berean formalistagoa. Lan guztiari, artistaren adiera bakarreko hizkuntzari eta bere “kantu gregorianoari” eskainitako ikuspegia zen hura, hedapen gisa baino gehiago poema sinfoniko gisa ikusita. 540.000 pertsonak baino gehiagok bisitatu zuten Bilboko erakusketa hark, Frank Gehry-ren arkitektura berezira moldatua, bere barruko zailtasunetatik eta bere erreferentzia formaletatik jarraitzen zion Chillidaren lanari.

Azkenaldian, adinak, edo giza gorputzaren kimikak, aurrez aurre jarri du artista depresioaren misterioarekin. Eta depresioari aurre egiteko borondatea izan da bere arma bakarra. Medikuek aste pare batez atsedean hartzeko gomendatu zioten, pattal samar baitzebil. Menorcan jandako ostra batzuek eraginda gaixotasun gastriko luzea izan eta gero, bere sormenaren indarraz guztiz baliatu ezin izanaren sentazio horrek, indarrak ahuldu izanaren sentazio horrek depresio sakonean murgildu zuen, udaldiaren bukaera aldera batik bat. Gero jakin dugu depresio-aldiaren hasiera hura koadro kliniko konplexuago bati zegokiola, gaixotasun larriago bati, alzhemerrari eta zahartzaroko dementziari. Koadro kliniko horrek bizkor egin du aurrera eta artistaren ordu gehienek jabe egin da Chillida Lekuren inaugurazio-egunerako. Juan Carlos I. erregeak erizain aditu baten antzera gidatu zuen artista, Sofía erreginari eta gainerako agintariei ingurune natural horretan piezetatik egin behar zen ibilbidearen norabidea azaltzen ari nintzaian bitartean, eta hainbesteko naturaltasunez lagundu zion erregeak ezen ia inor ez zen konturatu hura izan zela artistaren adimenaren “hutsune” aldiako bat.

Chillida: Aldi latza izan dut, oso konplikatua. Bat-batean dena eroriko balitz bezala da. Azkenaldi honetan hori gaitzen aritu naiz. Sekula ere ez dut halako ezer izan. Ez dakit ezer egiterik ba ote dagoen halako gauza baten kontra. Pentsatu egin beharra dago eta egunero pentsatu ere, gaitu ahal izango duzula, eta ez dela existitzen. Hasieran amorrua sentitzen nuen; gainera, bete beharreko konpromiso sozial ugari nituen. Baina gaitu beharra dagoela konturatu nintzen. Eta hemen nago, hortik ateratzen. Asko lagundu didate musikak eta irakurtzeak. Lehendik irakurrita nituen egileetara itzuli naiz, beste modu batera ulertzen edo ikusten ote nituen ikusteko. Orain berrogei urte arakatu nuen zerbait berriro irakurtzea oso positiboa da, non zauden esaten dizu berriro. Gainera asko ibili naiz pasioan, kilometroak egin ditut, eta jendea nola dabilen behatzen aritu naiz. Oso ikasbide ona da denek ibilera desberdina dutela ikustea, baina denak neba-arrebak direla, eta itsasoko olatuak bezain desberdinak. Egongo dira artearentzako bideak gizakiak dauden bitartean.

Chillida ez da erakusketak lortzeko asko lehiatu den horietakoa. Reina Sofía-ko erakusketa hau, Museoa ireki zutenetik ia hamar urte igaro direnean, bete-betean euskal artista honi eskainitako lehena da.

Chillida: Atsegin dut jendeari zer egiten ari zaren interesatzen zaiola jakitea. Baina omenaldirik egin ez balidate ere berdina izango litzaidake. Ez zait interesatzen lehenaldiarekin harremana izatea, etorkizunarekin baizik. Jakina, izugarri atsegin dut 40 urtetan ikusi ez ditudan lanak behatzea, berehala saldu baitziren atzerrian. Nire seme-alabek ere ez dituzte orain arte ikusi. Nik lan egin nahi dut, ikasteko lan egin, ez dakidana eta oraindik egin ez dudana egiten saiatzeko. Bizitzan merezi duena, miatu ez ditugun bideetan barrena sartzea da; lehen ibili ez ditugun bideak bilatu behar ditugu, ezagutzen ez ditugun bideak aurkitu.

K.B.: Osagaien testurak (altzairuen oxidoarena edo granitoen zainena) harremana du edo harremana nabarmentzen du artistak duen espazio-kontzeptuarekin. Zein da gustuko duzun materiala eskulturagintzan 50 urtez aritu ondoren?

E.C.: Burdina izan da niretzat material garrantzitsuena. Gogorra da baina manakorra. Eta horretarako bero egon behar du. Niri burdina kenduz gero gauza asko egiteko aukera kentzen didate. Material

erabakigarria izan da burdina. Hormigoia ere asko atsegin dut. Hormigoiz egin ditudan eskulturek garrantzi berezia hartzen dute zeruertza aurrean dutenean... Altzairua Reinosan egiten dut orain, han bakarrik egin baititzaket. Baina egia esan material guztiek eramaten naute, eta nik eurak eramaten ditut. Harro nago, adibidez, Donostiako *Haize-orraziarekin*. Naturara zabalik dauden nire lehen lanetakoa da. Gainera, leku hori da eskultore gisa izan dudana lehenengo ikuspegia, eta leku horrek sorrarazi du nigan berarengandik natorren ikuspegia, txikitan eta nire etxetik. Geroago, Pili eta biok paseatzera etorri ohi ginen bertara ezkongaietan; gehien atsegin genuen pasealeku erromantikoa zen, ametsen ingudeen gure lekua; olatuak guztiak berdin eta guztiak desberdin ikusten dituzu bertan, Johann Sebastian Bach-en fugak bezala.

Chillidaren eskulturaren espazioa ez da hiru dimentsioen espazioa, bolumenarena, hutsunearena baizik, osagai dinamizatzaile gisa hartuta eta, batez ere, materialena, beren pisua, beren testura ... ukimena kontuan hartzera eramaten gaituena. Futbolean atezainen “ukituaz” eta “helmenaz” hitz egin ohi da, kokatuta dauden moduarekin eta eskuekin zelaia ikusteko duten gaitasunaz. Chillida Real Sociedad-eko atezain izan zen Madrilera arkitektura ikastera joan aurretik eta 1948an Parisen eskultore izaten hasi aurretik.

E.C.: Zentzumen bat baino zerbait gehiago da ukimena, zentzumenen elkarrekintza da. Ikusmenaren, entzumenaren... bidez ere badihardu ukimenak. Eskuak badu bere misterioa, garunari bakarrik erantzuten ez diona. Orain, tarteka oroimena falta izaten zaidanean eta, esate baterako, izenez gogoratzen ez naizenean, eskuak hala ere eskultura hori leunki ukitzen du eta ikusi egiten du, nola ukitzen den, nolakoa den, ukitzen duzunean zer esaten duen, nola ikusten duzun axola gabe. Ukipen-espazio bat dago, ukimenak espazioaren propietateen, formen, eskuak jakinarazten duenaren berri ematen digu. Grekoen angelu zuzenaren historia da; lehena ez da matematika, laurogei graduen definizioa, gizakiak bere buruarekin egiten duen itzala baizik. Nik betidanik maneiatu izan ditut edo beti egon izan naiz sentimenaren bidez ulertu eta transmititu daitezkeen neurrietan.

Garrantzizko lanetako bat Tindaya proiektua da. Chillidak 50 metroko aldea duen kubo handi bat sortu nahi du mendiaren errailetan. Proiektu horrek oso desberdinak diren bi talderen haserrea piztu du. Batetik, inguruan interes urbanistikoak dituztelako, mendiaren hegalean eraiki nahi dutelako, proiektuaren kontra agertu direnak daude, edo kontra ez daudenak baina Chillidaren interbentzioak ondorioz ekar dezakeen boom turistikotik probetxu atera nahi dutenak. Artistak haxe exijitzen du, menditik itsasora ezer ere ez eraikitzea. Bestetik, talde ekologista batzuk daude proiektuaren kontra, mendia gizakiaren interbentziotik babestu nahi duena, interbentzio hori Chillidarena bada ere. Ez dakite natura- eta paisaia-kontzeptua gizakiaren interbentzioaren edo begiradaren emaitza dela.

E.C.: Ez dut ezer ere egingo inplikatuak dauden alde guztien artean adostasunik ez dagoen bitartean. Nire espazioa gizaki guztientzako espazioa da.

Fuerteventurako Tindaya proiektua, barrutik sortutako eskultura bat da. Izenburu horrekin, Barrutik, Chillidak burdin forjatuzko eskultura eseki bat sortu zuen 1953an. Tindayako espazio horretatik Caspar David Friedrich-en koadroetako pertsonaiek bezalaxe behatu ahal izango da itsasoaren zeruertza: sublimea posible da eskultoreak mendiaren barrualdean irekitzen duen eszenatoki natural horretatik.

Artistak berak gogora ekarri du 1984an “ikusi” zuela, *Mendi huts alabastroa* egin ondoren, sortze-lan hura benetako mendi baten barrualdera eramateko aukera:

E.C.: “Mendian lanean aritzen den jendea badago, zergatik ez ote nuen nik halakorik egingo? Mendian jende askok egiten du lan harria erauzten, ohartu gabe hori egitean, harria erauztean mendiaren barruan espazioa sartzen ari dela. Zergatik ez haiek zuzendu eta lan eskultoriko bat aurrera eraman?”.

Horrela, meatzetako baliabideen ustiapena eta mendiak adierazten duen ondarearen kontserbazioa elkartu nahi ditu Chillidak, mendiari balio erantsia emanez: hutsunea espazio-biltzaile gisa hartuta, XX. mendeko eskulturaren funtsezko kontzeptua, alegia. Baina Tindaya proiektuari gehien hurbiltzen zaion adibidea Zabalaga baserria da, Chillida eskultoreak bere Fundazioaren gunen izateko aukeratu duena. Zabalagan, Chillidaren interbentzioak ez du berarekin ekarri bertako parajeak eta gelak, sukaldeak, ukuilua eta abar zaharberritzea, ondoren birgaitzeko. Chillidak guztia erauzi du eta horrekin baserriaren espazioa sortu du, eskultura bihurtu du. Barrualdea, lehen arkitektura zena (bizitzeko eraikitzea) eskulturaren espazio (pentsatzeko eta gure lekua sentitzeko eremua) bihurtu da. Zabalagaren barrualde hutsean dago Tindaya proiektuaren lehenengo maketa.

Tindaya-ren ideiaaren ondoren, artistak lan bikaina sortu du Municherako, zortzi metro altu den obra, altzairuzko hiru gorputz, bakoitza zortzi tonako hiru xaflez osatua. Eskultura Munich hiriko hiru pintura-museoen artean jarriko dute, Pinakoteken plazan.

K.B.: Jarraitzen al duzu, jenio guztiek bezala, aurrera bakarrik egiten duen eta inoiz atzera egiten ez duen bidetik?

E.C.: Bukaeraraino jarraitzea espero dut. Azkenaldi honetan egin ditudan gauzak onenak bezain ondo daude. Arazo berri baten planteamendua da. Arazo bat ezagutzea soluzio bat ezagutzea bezain goresgarria da. Adibidez, aipatu duzun piezak trinkoa ematen du eta, hala ere, irekia dago barrutik. Biratuak dauden hiru piezak osatzen dute, gorantz zabaltzen doazenak, gero eta gehiago zabaltzen diren itsasoko olatuak bezala, argiaren bila. Halaxe deituko da: *Argiaren bila*.

Euskal Herrian, neguko argi iluna Eduardo Chillidaren aginte-zubiaren gainean erortzen ari da, Donostiako badian. Zeruertza, orain, urdinaren bi forma baino gehiago tinta iluneko bi orban bereizten dituen lerroa da; kobrezko matrize tintatzatuaren grabatutik papera bereizten duen lerroa. Bereizketaren, erlazioaren lerro horretan pausatu da beti artista euskaldunaren begirada sortzailea; bere espazioa — arrantzaleena bezala— zeruertzaren argiarena eta ukipenarena izan da.

[Itzultzailea: Bitez
Egokitapena: Guggenheim Bilbao Museoa]

PASARTEAK

GUGGENHEIM BILBAO MUSEOA

Eduardo Chillida-ren biografia eta ibilbide sortzailea ezagutzen dutenek badakite artistaren atzean emakume bat egon dela, beti, inoiz hutsik egin gabe, eta hari esker aritu zela eskultorea bere lan artistikoa dedikazio osoz burutzen. Testu labur honek Chillidaren emazte Pilar Belzunce Chillidaren Omenez izeneko erakusketa hau zabaldu aurretik eskaini dizkigun oroitzapen batzuk biltzen ditu, ez dira artearen historiagile baten ikuspegitik emandako oroitzapenak, zirrara eta sentimen osoz emandakoak baizik.

Ezkonberritan, Eduardo Chillidak eta Pilarrek Parisera bidaiatu zuten, Chillida, arkitektura-ikasketak utzi berriak, erabat ziur baitzegoen eskultore izan nahi zuela. Pilarrek gogoratzen du, Eduardo hain zegoela ziur, inoiz ezer zizelkatu ez bazuen ere, ez zuela zalantza izpirik izan, eta horregatik eman ziola baiezkora Parisera joan eta han bizitzen hasteari, artista dedikazio osoz aritu ahal izan zedin bere xede artistikoa betetzen. Han Chillidak gorputza eta arima eman zuen gainerakoen artea behatzen, idazle, filosofo eta pentsalariak ezagutzen, egin nahi zuenaren inguruan hausnartzen, bertako eraginak eta bizipenak xurgatzen, guztiak ere Hernanira itzultzean obra berezi eta intenporal batean islatu zirenak. Parisera iritsi eta hartu zuten hotelean Joan Miró eta bere emaztea ezagutu zituzten. Haien arteko laguntasunak urteak iraun zituen, eta bi artisten artean elkar mirespen eta errespetuzko harremana hasi zen.

Pili: Biak pertsona bikainak ziren, eta oso lagun onak; ikuspuntu artistikotik, egia da bihotzetik ateratzen zitzaiena egiten zutela. Beti zebiltzan bila eta bila, desio zuten hura aurkitzen zuten arte, bakoitza bere erara: Eduardo, hausnarketa filosofiko sakonetik; Miró, bere sineskortasun naifaren ikuspegitik. Biek egiten zuten buruan zutena, benetan bilatzen zuten hori.

Bai, Joan pertsona zoragarria zen. Eduardok hormigoizko eskultura egin zuenean Castellanako Aire Zabaleko Museorako, arazo politiko bat egon zen garai hartan Madrileko alkate zen Arias Navarro-rekin, eta ez zuten eskultura zintzilikatzen utzi, aurreikusia zegoen moduan, eta aitzaki gisa zubiak pisu hura ezin jasango zuela esan zuten. Uste dut José Antonio Fernández Ordoñez ingeniaria izan zela zubiaren egilea, Eduardoren lagun handia. Eduardok, haserre, esan zuen eskultura aurreikusi bezala zintzilikatzen ez bazen, berarekin eramango zuela, eta halaxe egin zuen. Arazoa konpontzen ez zenez, Eduardok Joan Miróri oparitu zion eskultura eta horregatik bukatu zuen Bartzelonako Miró Fundazioan. Urte batzuk geroago, eta Madrilén demokratikoki hautatutako alkate gisa Jose Luis Alvarez egonda, Eduardorekin jarri ziren berriz ere harremanetan eskultura berreskuratzeke, eta Miróri oparitu zitzaiola esan behar izan zitzaion. Mirók, bere aldetik, koadro bat egin zion Eduardori, bereziki egina gure etxeko toki zehatz batean jartzeko. Mirók, orduan, Madrili eman zion eskultura eta, azkenik, zubitik zintzilikatu zen.

Parisen Chillidak espazio bat behar zuen, toki argitsu bat, bertan lan egin ahal izateko. Azkenean, etxebizitza-estudio txiki bat aurkitu zuten Fôret de Chantilly-n, Paris kanpoaldean (Villenne-n); Pablo

Palazuelo-rekin batera bizi ziren, eta euren artean maitasunezko eta adiskidantzazko lotura sakonak sortu ziren. Pablo izan zen medikua Pilar, Guiomar, lehen alabaren esperoan zegoenean. Elikadurari buruzko aholkuak eman zizkion, bere burua zaintzeko esaten zion, paseatu zezala. Horrela bada, harreman handia izan zuten Pablarekin, eta bi artistak marrazki eta grabatuak elkartrukatu zituzten. Ez ziren hasiera errazak izan, baina Pilarrek ezin hobeto gogoratzen du etxebizitzatik goiko estudioa igotzen zen eskailera gorria, gogoratzen du argi zenital zoragarri batek argizatzen zuela.

Parisen Aimé Maeght-en galeriak artista garrantzitsuenen lanak ditu: Calder, Braque, Giacometti, Kandinsky, etab. eta, garai hartan, Chillida gazteena eta ezezagunena bazen ere, artista ospetsuek bultzatzen zuten Maeght, Chillidaren erakusketa bat egin zezan, eta horrela hasi zen urteak iraun zituen eta esparru pertsonalean ere eragin zuten artista-galeria harremana.

Pilarrek gogoratzen du, 1961ean Pariseko Maeght Galerian egindako erakusketa indibidualean, Georges Braque Eduardoren lan batez interesatu zela eta Eduardok, pozarren, oparitu egiten ziola esan ziola. Maeghtek Eduardori esan zion ahazteko opariak, galerietan ez baitu inork ezer oparitzen, baina Eduardorentzat gertakari hark asko esan nahi zuen. Braquek ere opari bat egin nahi izan zion —“artisten arteko elkartruke bat”—, hori ikusirik, Maeghtek erditik kentzea erabaki zuen. Eduardok Braqueri *Ametsen ingudea* (*Yunque de sueños*) oparitu zion eta Braquek, berriz, mihise bat Eduardori; oraindik ere Intzeneako egongelan dago zintzilik eta honela kontatzen digu anekdota Pilarrek:

Pili: Braquek esan zigun hiru asteko epean bere estudioa joateko deituko zigula. Abisua eman eta berehala joan ginen Pariserara, zirrarez beterik. Gaur egun ez dut artistarik ezagutzen Braque zen bezain ona denik, eta garai hartan oso zaharra zen. Benetako zaldun bat zen, ez zen bere etxetik ia mugitzen eta Picasso-ri buruzko gauzak kontatzen zizkigun, batzutan bisitan etortzen baitzitzaion. Egun batean lana bukatua zuela abisatu zigun, eta estudioan sartu ginenean hiru lan zituela ikusi genuen. Eduardok esan zuen: “Hau gehiegizkoa da. Zuk nirekin truke bat egin nahi duzu, nire lehenengo lanak diren horiekin, zu dagoeneko historiara artista ezin hobe baten gisa pasa zarenean”. Eduardori izugarri gustatzen zitzaion Braque. Hark honela erantzun zion: “Ea bada, Chillida, horko hiru koadro horietatik, zein iruditzen zaizu onena?” Hurbildu eta Eduardok bat hautatu zuen. “Bada, hurbildu eta ikusi bertan jartzen duena: *Pour Eduardo Chillida avec mon amitié*”. Deditakua zion dagoeneko; Braquek bazekien Eduardok lan hori hautatuko zuela, bien lanen artean antzekotasun bat baitzegoen. Ordutik aurrera bisitan gehiagotan joateko esan zigun, eta berarekin ginenean, gauza asko kontatzen zizkigun Picassorekin zuen harremanaz.

Maeghtek bazuen etxe bat Frantziako kosta urdinean, eta zenbait urtetan Miró eta Chillidatarrek gonbidatu zituen, uda han pasa eta bertan lan egitera. Egun haietako oroitzapenak gogoangarriak dira. Aimé-ri bere lanari buruz istorioak asmatzea gustatzen zitzaion, eta Eduardoren eta Pilarren semealabetako batzuek auto deigarri batean paseatzen zuten lur haietatik zehar, Mirórekin eta Madame Kandinskyrekin batera, azken hau eguzkitik aterki batez babesten zela. Miróren eta Chillidaren lagun mina zen Jose Luis Sert-i Aimé Maeghtek han bertan erakusketa-espazio bat nahiz etxe eta estudio txikiak —maisons des artistes delakoak— eraiki zitzala eskatu zion. Horrela sortu zen gaur egun Fondation Maeght denaren oinarria. Bertako irekiera-ekitaldira bertaratu ziren, besteak beste, Eduardo eta Pilar, Giacometti, Miró, Jaques eta Christine Dupin, Palazuelo, Sert, Artigas, etab.

Pili: Calder-ekin oso harreman estua izan genuen. Bazuen etxe bat, nolabaiteko haitzulo bat eta guzti zuena. Eduardok beti egin nahi izan zuen Sandy-rekin truke bat, baina beti iruditzen zitzaion Calderren lanak bereak baino askoz garestiagoak zirela eta horregatik iruditzen zitzaion zaila halakorik egitea. Hala ere, egun batean Calderrek bere mugikor bikainetako bat eskaini zion Eduardori, handia eta hagatxo lodiak zituenetako bat, baina Eduardori iruditu zitzaion ez genuela toki egokirik gisa horretako pieza bat behar bezala zintzilikatzeko. Egun batez Calderrek bere estudiora eraman gintuen eta gouachez beteriko karpeta bat erakutsi zigun; Eduardok ez zekien haietako bat hautatu behar zuenik, beraz, ez genuen ezer aipatu, orri guztiak pasa eta Calderrek haserre zera esan zigun arte: “baina, zer gertatzen da? Ez al zaizu batere gustatzen?”. Berehala Eduardok horietako bat hautatu zuen, ez baikenekien hura zela guri bere lanak erakustearen arrazoia. Eduardok beti miretsi izan zuen Calderren oreka-zentzua eta zentzu horrekin burutzen zituen pieza bikainak.

Picasso eta Eduardo ez ziren inoiz ezagutzera iritsi, nahiz eta, lehen esan dizudan moduan, Braquek hari buruzko gauza asko kontatzen zizkigun. Beste artista espainiarrei dagokienez, Eduardok asko estimatzen zuen Rafa Balerdi; Tàpies-ekiko ere adiskidetasun eta mirespen handia sentitzen zituen eta lanak ere trukatu zituzten: Tàpiesek etxean dugun koadro zoragarri bat oparitu zigun eta Eduardok alabastro bikain bat oparitu zion. Kontua da guk askotan utzi dugula oparitan jasotako koadroa, hainbat erakusketa egiteko, baina Tàpiesek ez du inoiz Chillidaren lana utzi, materiala oso delikatu baita eta, gainera, oso zaila da bere etxetik ateratzea, arkitektura konplikatu baitauka. (Pablo) Palazueloz gain, Eduardok maitasun eta mirespen handia sentitzen zuen beste artista espainiarrekiko, hala nola, Eusebio Sempere edo Lucio Muñoz artistekiko.

Pilarrek gogoratzen du, Hernanira itzultzean, bildutako bizipen, esperientzia, topaketa eta harreman guztiak oinarri hartuta, Eduardo lanean hasi eta ohartuko zela burdinarekin lehen arkatzez paperean marrazten zuena egin zezakeela. Orduan, txatar artean burdin pudelatuaren bila hasi zen, aire zabalean ezer gertatzen ez zaien burdin mota baita, normalean tamaina txikiko tresna eta erremintak egiteko erabiltzen dena. Laguntzaile bat ere bilatu zuen, forjaketan laguntzeko eta material hori bilatzen laguntzeko, txatar-mendira igota “eskaleen pare”, eta soldaketan laguntzeko. Juan Huarte izango da lehenengoetarikoa lan bat erosten Hernanin zeudenez geroztik. Chillidari buztinarekin izan zuen esperientzia ez zitzaion batere gustatu, eta albo batera utzi zuen erabat, baina egun batean, Saint-Paul-de-Vencen zegoela, soinu batzuk entzun eta zer gertatzen zen ikustera joan zen. Hans Spinner zen, lurrarekin ari zen lanean, eta hori Chillidarentzat deskubrimendu bat izan zen, aukera berriak ireki zizkion eta bere lurretan islatu zuen hori bera, ebaketa borobilak egin zituen banbuzko tutuerdiekin, oxidoak etab.

Pili: Eduardok mehatxu egin ohi zidan, berak benetan nahi zuen hori izatera iritsi ez ziren piezak leihotik botako zituela esaten zidan. Eta batzutan horixe egiten zuen! Nik galdetzen nion ia ez zitzaion iruditzen hori zela, pieza ongi zegoela, aski ona zela. Baina hala ez bazen, literalki botatzen zuen leihotik kanpora.

Pilarrek ingurura begiratzen du; pieza hauetako batzuk bere etxeko egongelan daude, eta ziur askoz oroitzapen askoz gehiago ekartzen dizkiotela.

[Itzultzailea: Bitez
Egokitzailea: Guggenheim Bilbao Museoa]

ARTISTEN BIOGRAFIAK

GALDER REGUERA

MAGDALENA ABAKANOWICZ

Falenty (Polonia), 1930 | Varsovian bizi da

1930 Falentyn jaioa, Polonian. Gurasoek Marta deitu zioten

1939 Naziek Polonia inbaditu zuten, eta tankeak bere etxe aurretik pasatzen ziren

1943 Gizon mozkor batek ama tirokatu zuen bere begien aurrean

1944 Varsoviako altxamendua. Ospitale batean lan egin zuen Poloniako hiriburuko zaurituentzat

1950 Magdalena izena hartu zuen. Varsoviako Arte Ederretako Akademian sartu zen

1954 Varsoviako Arte Ederretako Akademian graduatu zen. Urte hartatik aurrera, eta hirurogeiko hamarkadaren bukaeraraino hiru dimentsioko forma monumentalak sortu zituen, *Abakans* deitu zienak, berak fabrikatutako materialekin

1960 Erakusketa bat egin zuen Kordegarda Ministertwo Kultury i Sztuki-n, Varsovian

1962 Bakarkako lehenengo erakusketa egin zuen Poloniatik kanpo, Galerie Dautzenberg-en, Parisen

1965 Erakusketa bat egin zuen Gallery Zacheta-n, Varsovian. São Pauloko Bienaleko Sari Nagusia jaso zuen. Irakasle gisa hasi zen lanean Poznaneko Arte Ederretako Akademian, Polonian

1985 Erakusketa bat egin zuen Londresko Tate Gallery-n. Bere lana ikusgai egon zen Nouvelle Biennale de Paris-en, Parc de la Villette-n, Parisen

1987 Turner saria irabazi zuen, Tate Gallery-n, Londresen. Bere azkeneko lanen erakusketa bat egin zuen Bonnefanten Museum-en, Maastrichten, Holandan, ondoren Luzernako Kunstmuseum-en, Madrilgo Fundación Caja de Pensiones-en eta Anberesko Museum van Hedendaagse Kunst-en ikusi ahal izan zena

1988 Erakusketa ibiltari handia egin zuen Iparramerikatik, The Carnegie Museum of Art-en, Pittsburghen, St. Louis Art Museum-en, Museum of Contemporary Art-en, Los Angelesen, eta Art Gallery of Ontario, Toronton, ikusi ahal izan zena

1989 Erakusketa bat egin zuen Musée d'Art Moderne de la Ville de Paris-en

1990 *Between The Eyes* lana instalatu zuen Torontoko Yonge Square International-en, Kanadan

1991 Atzera begirako marrazki erakusketa egin zuen Mead Gallery-n, University of Warwick-en, Coventryn, Ingalaterran. *Nobody Here But Us* pieza instalatu zuen ASB Bank eraikinean, Auckland City-n, Zeelanda Berrian, eta *Let's Not Be Stupid*, University of Warwick-en, Coventryn, Ingalaterran

1992 Erakusketa bat egin zuen Museum der Stadt-en, Waiblingenen, Alemanian. Irakasle gonbidatu gisa sartu zen Londresko Chelsea School of Art-en. Frantziako Villeneuve d'Ascq-eko Musée d'Art Moderne-k *Between Fiction And Fact* bere lana instalatu zuen. Bere hiru pieza Alemaniako leku desberdinetan instalatu zituzten; *Building From The Inside* Krefeldeko Voltaplatz-en, *This Is Not A Story* Waiblingeneko Rathausplatz-en eta *One Step, Two Step* Nordhorneko Landspitz & Nieuwmarkt-en. Documenta 9-n parte hartu zuen, Kasselen

1993 Eskultura-erakusketa bat egin zuen Kunstverein Hannover-en, Alemanian. *Zeitweise* lana Vienako Mexicoplatz-en instalatu zuen, Austrian

1994 Erakusketa bat egin zuen La Filature Espace Culturel-en, Mulhousen, Frantzian

1995 Irakasle gonbidatu gisa sartu zen Vienako Hochschule für Angewandte Kunst-en. Robert Jakobsen saria jaso zuen, Museum Wurth-ek emana, Kunzelsaun, Alemanian

1996 Irakasle gisa sartu zen École Nationale Supérieure des Beaux Arts de Paris-en. Bere lanaren erakusketa garrantzitsua, Erdialdeko Amerika eta Hegoamerikako zenbait museotan ikusi ahal izan zena. Museo de Arte Contemporáneo de Caracas Sofía Imber-en (MACCSI) hasi zen eta ondoren Centro Wilfredo Lam-en, Habanan, Buenos Airesko Museo Nacional de Bellas Artes-en, Santiagoko Museo de Bellas Artes-en eta Mexiko Hiriko Museo Rufino Tamayo-n ikusi ahal izan zen. *One Is Asleep, One Is Awake* lana Tokyo International Forum Building-en instalatu zuten, Tokion, Japonian

1997 Frantziako Estatuak Chevalier des Arts et des Lettres izendatu zuen. Erakusketa bat egin zuen Musée Départementale de Rochechouart-en, Frantzian

1998 Royal Academician aukeratu zuen Londresko Royal Academy of Arts-ek

1999 Erakusketa bat egin zuen Liverpooleko Tate Galleryn. *How Much Does Your Mind Weigh* lana Millenium Dome-n instalatu zuten, Londresen

2001 Erakusketa bat egin zuen Dundee Contemporary Arts-en (DCA), Dundeen, Eskozian. Erakusketa bat egin zuen PS1 Institute for Art-en, New Yorken

2003 Erakusketa bat egin zuen Museum Ludwig-en, Kolonian, Alemanian. Erakusketa bat inauguratu zuen Centre Georges Pompidou-n, Parisen

2004 Bill Woodrowrekin batera erakusketa bat egin zuen New Art CentreSculpture Park & Gallery-n, Roche Courten, Salisbury, Ingalaterran; Queluz Jauregi Nazionalean, Lisboan, Portugalen, eta 2005ean Yorkshire Sculpture Parken, Ingalaterran

2005 Erakusketa bat egin zuen Artium Zentro-Museoan, Gasteizen. Literaturako Doktoretza lortu zuen Leicesterreko Unibertsitatean, Ingalaterran

GÜNTHER FÖRG

Füssen (Alemania), 1952 | Areusen bizi da (Suitza)

1952 Abenduaren 5ean jaioa, Füssenen, Alemanian

1973 Municheko Akademie der Bildenden Künste-n hasi zen artea ikasten, eta bertan graduatu zen 1979an

1974 Bakarkako lehenengo erakusketa egin zuen, *6 graue Bilder*, Akademie der Bildenden Künste-ko erakusketa aretoan, München

1977 Beste erakusketa bat egin zuen Akademie der Bildenden Künste-n, München

1980 Erakusketa bat egin zuen Rüdiger Schöttle galerian, München

1981 Erakusketa bat egin zuen Galerie van Krimpen-en, Amsterdamen

1983 Arkitekturen lehenengo argazki-saila egin zuen

1984 Erakusketa bat egin zuen Kunstraum München-en, München

1985 Bere lana ikusgai egon zen Parisko Nouvelle Biennale-n. Erakusketa bat egin zuen Stedelijk Museum-en, Amsterdamen, Jeff Wall argazkilariarekin batera

1986 Erliebeak eta eskulturak egiten hasi zen brontzez. Erakusketa bat egin zuen Kunsthalle Bern-en, Bernan, La Monnaie Antzokian, Bruselan, eta Westfälischer Kunstverein-en, Munsterren. Mies van der Rohe beka eman zion Krefeld hiriak

1987 Erakusketak egin zituen Museum Haus Lange-n, Krefelden, Alemanian, Haags Gemeentemuseum-en, Den Haagen, Holandan, eta Maison de la Culture et de la Communication de St. Etienne eta Centre d'Art La Criée de Rennes-en, Frantzia

1988 Mural handi bat egin zuen Gemeentemuseum-eko eskaileran, Den Haagen. Bakarkako lehenengo erakusketa New Yorken, Luhring, Augustine & Hodes Gallery-n, lehendik taldeko erakusketetan egon izan zen galerian

1989 Erakusketak egin zituen San Francisco Museum of Modern Art-en, Newport Harbor Art Museum-en, Newport Beachen, eta Milwaukee Art Museum-en, Milwaukeeen. *Günther Förg: The Complete Editions* erakusketa inauguratu zen Museum Boijmans-van Beuningen-en, Rotterdamen, Holandan, ondoren Neue Galerie am Landesmuseum Joanneum-en, Grazen, Austrian, ikusi ahal izan zena

1990 *Monotypien 1989* erakusketa egin zuen Museum van Hedendaagse Kunst-en, Genten, Belgikan, ondoren Museum Fridericianum Kassel-en, eta Museum der Bildenden Künste Leipzig-en, Alemanian, ikusi ahal izan zena

1991 Mural bat aurkeztu zuen Museum für Moderne Kunst-en (MMK) inaugurazioan, Frankfurt-en. Erakusketa bat egin zuen Japonian, Tokioko Touko Museum of Contemporary Art-en eta Musée d'Art Moderne de la Ville de Paris-en

1992 Pintura-irakasle gisa sartu zen Staatlichen Hochschule für Gestaltung-en, Karlsruhen. Eskultura-erakusketa egin zuen Kunstverein München-en, Munichen. Documenta 9-n parte hartu zuen, Kasselen

1993 Erakusketa bat egin zuen Musée Cantonal des Beaux Arts-en, Sionen, Suitzan. Azken hamar urteetako argazkien atzera begirakoa egin zuen Deutscher Werkbund, BDA Frankfurt/Main-en, eta Galerie der Stadt Stuttgart-en, Stuttgarten

1994 Grabatu-erakusketa egin zuen Kunstmuseum Bonnen, Bonnen, *Druckgraphische Serien* izenburupean

1995 *Couplet 4* erakusketa inauguratu zen Stedelijk Museum-en, Amsterdamen, S.F. Mancoba, A. R. Penck, I. Huber eta J. Pollockekin batera. Moskura joan zen bidaian. *Arkitektura Mosku* saila aurkeztu zuen Galerie Max Hetzleren, Berlinen, eta ondoren Napolesen eta New Yorken ikusi ahal izan zen

1996 Wolfgang-Hahn saria eman zioten Gesellschaft für Moderne Kunst-ek eta Museum Ludwig-ek, urte hartan bertan erakusketa bat izan zuen museoan

1998 Bere lanak ikusgai egon ziren Madrilgo Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía-n, ondoren Institut Valencià d'Art Modern-en (IVAM) ikusi ahal izan zen erakusketan. Erakusketa egin zuen Städtisches Museum Abteiberg-en, Mönchengladbach-en, eta Museum for Moderne Kunst-en, Ishøj-en, Danimarkan

1999 Erakusketa bat egin zuen Oldenburger Kunstvereinen, Oldenburg-en, eta Kunstverein Mannheim-en. Pintura- eta diseinu-irakasle izendatu zuen Municheko Akademie der Bildenden Künste-k

2000 Kopenhageko Arken Museum of Modern Art-ek bere lanaren atzera begirako erakusketa antolatu zuen. Erakusketa egin zuen Deutsche Guggenheim Berlin-en, Alemanian, eta Neues Museum Weserburg-en, Bremen-en

2001 Azkenaldiko lanak ikusgai jarri zituen Kunsthaus Bregenz-en, Austrian

2002 *Bauhaus-Architektur in Jerusalem und Tel Aviv* erakusketa inauguratu zen Schiller-Museum-en, Weimarren

2003 Argazki-erakusketa egin zuen Tel Aviv Museum of Art-en, Tel Aviven, Israelen. *Arkitektura Mosku* saila ikusgai jarri zuen Gemeentemuseum Den Haag-en, Holandan

2004 Erakusketa bat egin zuen Städtische Kunsthalle-n, Museen der Stadt-en, Recklinghausen-en, eta Internationales Kunstzentrum Ostbelgien-en (IKOB), Eupenen, Belgikan

2005 Erakusketa bat egin zuen Max Hetzler galerian, Berlinen, Alemanian

JUAN GENOVÉS

Valentzia, 1930 | Madrilen bizi da

1930 Maiatzaren 31n jaioa, Valentzian

1936 Haur zela Espainiako Gerra Zibila bizi izan zuen

1943 Eskola utzi zuen familiaren negozioan laguntzeko

1944 Marrazketa eskolak jaso zituen gaez Industri Perituen Eskolan

1946 San Carlos Arte Ederreko Eskolan sartu zen

1951 Madrilera joan zen

1953 II. Bienal Hispanoamerikarrean parte hartu zuen, Habanan

1955 Lehenengo Saria jaso zuen Madrilgo XV. Salón del Círculo de Bellas Artes-en

1957 Bere lehenengo bakarkako erakusketa egin zuen Madrilén

1961 Fernando Mignoni, José Jardiel eta Gastón Orellana pintoreekin batera Grupo Hondo taldea sortu zuen. Parisko II. Bienalean parte hartu zuen. Bere lana ikusgai egon zen *Contrast in Spanish Painting Today* erakusketa ibiltarian, Tokio, San Francisco, New York eta Washingtonen ikusi ahal izan zena

1962 Veneziako 31. Bienalean parte hartu zuen

1963 Grupo Hondo desegin zen

1965 Bakarkako erakusketa egin zuen Madrilgo Liburutegi Nazionalean. São Pauloko VII. Bienalean parte hartu zuen

1966 Harremanetan hasi zen Marlborough galeriarekin. Erakusketa bat egin zuen Bilboko Arte Modernoko Museoa. Epaimahaiaren Ohorezko Saria jaso zuen Veneziako 33. Bienalean

- 1967** Urrezko Domina jaso zuen San Marinoko VI. Biennale Internazionale -n
- 1968** Stuart Cooperren *A Test of Violence* pelikula filmatu zuten, Genovésen lanean oinarritua
- 1969** Erakusketa bat egin zuen Marlborough galerian, Erroman, eta Tokio Gallery-n, Tokion
- 1970** Coltejer Bienalean parte hartu zuen, Medellinen, Kolonbian
- 1971** Erakusketa bat egin zuen Frankfurtoko Kunstvereinen eta Berlingo Haus am Waldsee Museoan. Bere lana *Artist as Adversary* erakusketan egon zen ikusgai New Yorkeko Museum of Modern Art-en (MoMA)
- 1972** Erakusketa bat egin zuen Rotterdameko Museum Boijmans van Beuningen-en, Bogotako Museo de Arte Moderno-n eta Stuttgarteko Württembergischer Kunstverein-en
- 1973** Londresera joan zen
- 1976** *Vanguardia artística y realidad social* erakusketan parte hartu zuen, Veneziako Bienalean
- 1982** Erakusketa bat egin zuen Caceresko Museo de Arte Contemporáneo-n
- 1983** Centro Cultural de la Villa de Madrid-ek bere lanaren lehenengo erakusketa antologikoa egin zuen
- 1985** Plastika-Arteen Sari Nazionala jaso zuen. Erakusketa bat egin zuen Albaceteko Museoan
- 1986** Habanako Bienalean parte hartu zuen
- 1989** Bere lana ikusgai egon zen *Object and Concept* erakusketan, New Yorkeko Solomon R. Guggenheim Museum-en
- 1991** Bere lanaren atzera begirako erakusketa ikusgai egon zen Fundación Caixa Galicia-n, Coruñan, Unicaja-ren José María Fernández aretoan, Malagan, eta San Telmo Museoan, Donostian
- 1993** Valentziako Institut Valencià d'Art Modern-ek (IVAM) bere lanaren erakusketa antologikoa egin zuen
- 1994** Erakusketa bat egin zuen Fundación Marcelino Botín-en, Santanderren
- 1999** Bere lanaren erakusketa ibiltaria egin zuten Hegoamerikan zehar. Leku hauetan egon zen: Museo de Bellas Artes de Buenos Aires, Argentina, Museo Nacional de Artes Visuales de Montevideo, Uruguai, Museo de Arte de Lima, Peru, Centro Wifredo Lam, Habana, Kuba, eta azkenik, hurrengo urtean, Museo de Arte Contemporaneo Sofia Imber, Caracas, Venezuela

2000 Erakusketa bat egin zuen Miami Art Museum-en, Miamin

2002 Erakusketa bat egin zuen Museo de Arte Modernon, Mexikon. Premi de les Arts Plàstiques saria eman zion Valentziako Generalitatek

2003 Erakusketa bat egin zuen Centro Cultural Isabel de Farnesio-n, Aranjuezen, *Sueños y Secuencias* izenburupean. *El Abrazo* eskultura instalatu zuten, 1977an ultraeskuineko talde batek Atochan hil zituen abokatuen oroimenez, Antón Martín plazan. Madrilgo Udala

2005 *Genovés. Pintures, dibuixos i escultures (1994–2004)* erakusketa inauguratu zen Centro Cultural Bancaja-n, Valentzian. Arte Ederretako Urrezko Domina eman zion Espainiako Estatuak

LUIS GORDILLO

Sevilla, 1934 | Madrilen bizi da

1934 Abuztuaren 24an jaioa, Sevillan

1951 Zuzenbide-ikasketak hasi zituen Sevillako Fakultatean, eta 1956an amaitu zituen

1956 Pinturan soilik jardutea erabaki zuen eta Sevillako Escuela Superior de Bellas Artes de Santa Isabel de Hungría-n hasi zen prestatzen

1958 Hilabete batzuk igaro zituen Parisen

1959 Lehenengo bakarkako erakusketa egin zuen Sevillako Informazio- eta Turismo-aretoan. Parisa itzuli zen eta bi urtez geratu zen bertan

1962 Londresara joan zen eta itzultzean Madrilén ezarri zuen bere egoitza

1964 Erakusketa bat egin zuen Madrilgo Edurne galerian

1970 Erakusketa bat egin zuen Madrilgo Daniel galerian eta Veneziako 35. Bienalean parte hartu zuen

1971 Harremanetan hasi zen Fernando Vijande arte-merkatariarekin orduan Vandrés galerian zegoena. São Pauloko Bienalean parte hartu zuen

1974 Sevillako Centro de Arte M-11k bere lanaren erakusketa antologikoa egin zuen

1976 Veneziako Bienalean parte hartu zuen, *Vanguardia Artística y Realidad Social* erakusketan, ondoren Bartzelonako Miró Fundazioan ikusi ahal izan zena. Bere lana *Pintura Española* erakusketan egon zen ikusgai, Basileako Azokan

1977 Bere lanaren erakusketa antologikoa inauguratu zen Madrilgo Ondare Artistiko eta Kulturalaren Erakusketa-Aretoa

1978 Mentoneko Bienalean parte hartu zuen, Frantzian

1980 Antonio Machónek *Alma Nok* liburua argitaratu zuen, Gordilloren testu eta serigrafiekin

1981 Erakusketa antologiko bat egin zioten Bilboko Arte Eder Museoan. Plastika-Arteen Sari Nazionala eman zion Espainiako Estatuak

1982 Bere lana *New Spanish Figuration* erakusketan egon zen ikusgai Londresko Institute of Contemporary Art-en

1983 Erakusketa antologiko bat egin zioten Pontevedrako Bienalean

1984 Bere lana ikusgai egon zen *Pintura Moderna Española* erakusketan, ondoren Atenasen, Budapestean, Innsbrucken, Grazen, Varsovia, Sarajevon eta Berlinen ikusi ahal izan zena

1985 São Pauloko Bienalean parte hartu zuen

1986 Bere lanaren monografia kaleratu zen, Francisco Calvo Serraller-ek egina, Ed. de León-ek argitaratua

1991 Erakusketa bat egin zuen Municheko Michael Hasenclever galerian. Plastika-Arteen Andaluzia Saria jaso zuen. Madrilgo Erkidegoaren Plastika-Sorkuntzaren Saria jaso zuen

1992 Harremanetan hasi zen Marlborough galeriarekin

1993 Institut Valencià d'Art Modern-ek (IVAM) bere lanaren atzera begirakoa egin zuen. Bere lan grafiko guztiaren erakusketa inauguratu zen Bilboko Arte Eder Museoan

1994 Plastika-Arteen CEOE saria jaso zuen

1996 Bere lana *Nuevas abstracciones* erakusketan egon zen ikusgai Madrilgo Velázquez Jauregian, eta ondoren Bielefeldeko Kunsthalle-n, Alemanian, eta Museu d'Art Contemporani de Barcelona-n (MACBA) ikusi ahal izan zen. Arte Ederretako Urrezko Domina eman zion Espainiako Estatuak

1998 Tomás Francisco Prieto saria eman zion Real Casa de la Moneda Fundazioak

1999 *Spanish art at the end of the Century* erakusketan parte hartu zuen Würth Museoan, Künzelsau-n, Alemanian. Museu d'Art Contemporani de Barcelona-k (MACBA) bere lanaren erakusketa antologikoa egin zuen, hurrengo urtean Essengo Folkwang Museoan ikusi ahal izan zena, Alemanian.

2000 Paper gaineko bere lana ikusgai egon zen Madrilgo Real Casa de la Moneda-n.

2004 Aragón-Goya 2003 saria jaso zuen arte garaikideari egindako funtsezko ekarpenagatik. *Gordillo Duplex* erakusketa inauguratu zen Cuencako Museo de Arte Abstracto-n

2005 Sevilla hiriko Domina jaso zuen

JOAN HERNÁNDEZ PIJUAN

Bartzelona, 1931 | Bartzelona, 2005

1931 Bartzelonan jaioa

1945 Bartzelonako Arte- eta Lanbide-Eskolan (Llotja) ikasi zuen 1947ra arte

1952 Bartzelonako I Sant Jordi Goi Mailako Arte Eder Eskolan sartu zen, eta bertan 1956ra arte prestatu zen

1956 Bakarkako bere lehenengo erakusketa egin zuen Mataróko Udal Museoan

1957 Grabatua eta Litografia ikasi zituen Parisko Arte Eder Eskolan

1960 Veneziako 30. Bienalean parte hartu zuen. Bere lana *Before Picasso, After Miró* erakusketan egon zen ikusgai, New Yorkeko Solomon R. Guggenheim Museum-en

1961 Erakusketa bat egin zuen Lleidako Cercle de Belles Arts-en, Katalunian. São Pauloko Bienalean parte hartu zuen

1963 Manichiko Bienalean parte hartu zuen, Tokion, Japonian

1967 Zenbait erakusketa egin zituen Jugoslaviako hiri desberdinetan

1970 Rijekako Marrazki Bienalean parte hartu zuen, Kroazian. Veneziako 35. Bienalean parte hartu zuen

1976 Lan grafikoaren erakusketa egin zuen Parisko FIACen. Irakasle gisa sartu zen Sant Jordi Goi Mailako Arte Eder Eskolan, Bartzelonan

- 1978** Bere lana ikusgai egon zen Art Fair-en, Washingtonen
- 1979** Erakusketa bat egin zuen Genevako Musée d'Art et d'Histoire-n, eta bertan bere lanaren katalogo arrazoitua aurkeztu zuen. Basileako Azokan parte hartu zuen
- 1981** Plastika-Arteen Sari Nazionalea jaso zuen. Erakusketa bat egin zuen New Yorkeko Guild Gallery-n
- 1985** Kataluniako Generalitat-ek Sant Jordi Gurutzea eman zion
- 1982** Erakusketa bat egin zuen Madrilgo Museo Español de Arte Contemporáneo-n. Bere lana ikusgai egon zen Parisko FIACen
- 1983** Lan grafikoaren erakusketa bat egin zuen Ibizako Museu d'Art Contemporani-n
- 1984** Erakusketa bat egin zuen Musée Puig-n (CDADD), Perpignanen, Frantzia
- 1985** Erakusketa bat egin zuen Bartzelonako Caixa aretoan
- 1986** Chicago International Art Exhibition azokan parte hartu zuen
- 1987** Bartzelonako Workshop-Art Triangle-n parte hartzera gonbidatu zuten. Bere lana ikusgai egon zen ARCO-n, Madril
- 1988** Bere lana ikusgai egon zen Art Köln azokan, Alemanian
- 1990** Bi mural egin zituen Bartzelonako Sant Jordi Pabilioirako
- 1991** 80ko hamarkadako lan grafiko guztiaren erakusketa egin zioten Bilboko Arte Eder Museoan, eta zegokion katalogo arrazoitua egin zuten
- 1992** Hogei urteko pintura-lanaren (1972–1992) erakusketa egin zioten Centre Cultural Tecla Sala-n, Hospitalet de Llobregat-en. Bere lana ikusgai egon zen Kataluniako Pabilioian, Sevillako Nazioarteko Erakusketan
- 1993** Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía-k *Espacios de silencio 1972–1992* atzera begirako erakusketa inauguratu zuen, ondoren Monterreyko Museoan, Mexikon, ikusi ahal izan zena. Mural bat egin zuen Bartzelonako Unibertsitaterako
- 1994** Dekano hautatu zuten Bartzelonako Unibertsitateko Arte Eder Fakultatean
- 1995** Erakusketa bat egin zuen Fundación Marcelo Botín-en, Santanderren

1996 Mural bat pintatu zuen Castelldefelseko Santa Maria Elizan, Bartzelonan. Erakusketa bat egin zuen Manresako Fundació Caixa erakusketa-aretoan, Bartzelonan. Parisko FIACen parte hartu zuen

1998 *Sentimiento de paisaje 1976–1998* erakusketa ibiltaria inauguratu zuen, Galerie Credito Valtellinese-n, Refettorio delle Stelline-n, Milanen, eta Kunstverein-en, Frankfurtan ikusi ahal izan zena

1999 Erakusketa bat egin zuen Frankfurter Kunstkabinetten, Frankfurtan, Alemanian eta erakusketa bat inauguratu zuen Revillagigedo jauregiko Centro Cultural Cajastur-en, Gijonen

2000 Bere marrazkien atzera begirako erakusketa egin zuten Salzburgoko Rupertinum Museum-en, Austrian. Madrilgo San Fernando Arte Ederretako Errege-Akademian sartu zen, eta bertan “La mirada sobre el cuadro. Nota sobre la (imposibilidad) de la enseñanza de la pintura” diskurtsoa eman zuen

2002 Marbellako Fundación Museo del Grabado Contemporáneo-k azken hamaika urteetan egindako grabatuen erakusketa inauguratu zuen

2003 *Joan Hernández Pijuan. Volviendo a un lugar conocido* atzera begirako erakusketa inauguratu zen Museo d’Art Contemporani de Barcelona-n (MACBA). Ondoren, Malmö Konsthall-en, Malmö, ikusi ahal izan zen, Suedian

2004 Plastika-Arteen Premi Ciutat de Barcelona saria eman zioten

2005 Erakusketa bat egin zuen Gustavo de Maeztu Museoan, Lizarran, Nafarroan. Arte Ederretako Errege-Akademiak Arte Grafikoaren Sari Nazionala eman zion bere ibilbideagatik. Abenduaren 28an hil zen, 74 urte zituela, Bartzelonako bere etxean

DAVID HOCKNEY

Bradford (Ingalaterra), 1937 | Los Angelesen bizi da

1937 Uztailaren 9an jaioa, Bradforden, Ingalaterran

1953 Bradford School of Art-en ikasi zuen, eta bertan graduatu zen 1957an

1959 Londresko Royal College of Art-en sartu zen, eta 1962an graduatu zen eta ezagutu zuen bertan R.B. Kitaj eta “Pop Britainiarra” izeneko taldearen gainerako artistak

1961 Bi hilabeteko egonaldia egin zuen New Yorken, eta koadro bat saldu zion Museum of Modern Art-i (MoMA).

1962 Eskolak ematen hasi zen Londresko Maidstone School of Art-en

1963 Bakarkako lehen erakusketa Londresko Kasmin Gallery-n, aurreko urtean kontratu bat sinatu zuenarekin. New Yorkera joan zen eta Andy Warhol ezagutu zuen

1964 Bere lehen egonaldia egin zuen Los Angelesen, eta bertan margotu zituen igerileku sail ezagunak. Bakarkako lehen erakusketa egin zuen New Yorken, Alan Gallery-n

1965 Erakusketa bat egin zuen Amsterdameko Stedelijk Museum-en

1966 Alfred Jarryren *Ubu Errege* antzezlanaren eszenografia eta jantziak diseinatu zituen Londresko Royal Court Theatre-rentzat

1967 Eskolak eman zituen Kaliforniako Unibertsitatean, Berkeleyn. Lehenengo Saria irabazi zuen John Moores Exhibition-en, Liverpoolen

1968 Erakusketa bat egin zuen New Yorkeko Museum of Modern Art-en (MoMA). Documenta 4-n parte hartu zuen, Kasselen. Veneziako 34. Bienalean parte hartu zuen

1969 Eskolak eman zituen irakasle gonbidatu gisa Hochschule für bildende Künste-n, Hanburgon

1970 Londresko Whitechapel Gallery-k bere lanaren atzera begirako lehenengo erakusketa egin zuen, ondoren Hannoverren, Rotterdamen eta Belgradon ikusi ahal izan zena

1973 Parisa joan zen bizitzera bi urtez

1974 Parisko Musée des Arts Décoratifs-ek bere lanaren atzera begirako erakusketa egin zuen

1976 Bere autobiografia, *David Hockney by David Hockney*, argitaratu zen. Grabatu-sorta bat egin zuen Wallace Stevensen *The Man with the Blue Guitar* ilustratzeko

1977 Documenta 6-n parte hartu zuen, Kasselen

1978 Los Angelesen ezarri zen. Bere marrazkien erakusketa zabal batek, *Travels with Pen, Pencil and Ink*, hiru urteko ibilaldia egin zuen AEB, Kanadatik eta Ingalaterratik

1979 Eskolak eman zituen San Francisco Art Institute-n

1980 Zenbait eszenografia diseinatu zituen New Yorkeko Metropolitan Opera-rentzat, Ravel-en, Poulenc-en eta Erik Satier-en obretarako. Erakusketa bat egin zuen Tate Galleryn, Londresen

1981 Bere lau lan ikusgai egon ziren *A New Spirit in Painting* erakusketan, Londresko Royal Academy of Arts-en. Hockneyren lehenengo monografia argitaratu zen, Marco Livingsgton-ek egina

1982 Bere argazki-collage famatuak egiten hasi zen. Erakusketa bat egin zuen Centre Georges Pompidou-n, Parisen

1983 Walker Art Center-en, Minneapolis-en, *Hockney Paints the Stage* erakusketa inauguratu zen

1988 Los Angeles County Museum of Art-ek bere lanaren atzera begirako erakusketa handia egin zuen, ondoren New Yorkeko Metropolitan Museum of Art-en eta Londresko Tate Gallery-n ikusi ahal izan zena

1989 São Pauloko Bienalean parte hartu zuen. "Praemium Imperiale" saria jaso zuen pintura-sailean, Japan Art Association-ek emana, Japonia

1991 Londresko Royal Academy-ko kide izendatu zuten

1993 Bere autobiografiaren bigarren liburukia argitaratu zuen *That's the way I see it* izenburupean

1995 Bere lanaren atzera begirako erakusketa zabala egin zuten Hamburger Kunsthalle-n, Hanburgen, hurrengo urtean Londresko Royal Academy of Arts-en eta Los Angeles County Museum of Art-en ikusi ahal izan zena. Erakusketa bana egin zuen Boijmans van Beuningen Museum-en, Rotterdamen, eta Museum of Contemporary Art-en, Tokion. Veneziako Bienalean parte hartu zuen

1997 Koloniako Museum Ludwig-ek bere argazki-lanen atzera begirako erakusketa egin zuen, ondoren TURINGO Galleria d'Arte Moderna e Contemporanea-n, Italian, ikusi ahal izan zena. Companion of Honour izendatu zuten

1998 Erakusketa bat egin zuen National Museum-en, Washington DCn

1999 Centre Georges Pompidou-k *David Hockney. Espace Paysage* inauguratu zuen. Aldi berean, eta Parisen ere, ikusgai egon ziren bere lanak Musée Picasso-n eta argazkiak Maison Européenne de la Photographie-n

2000 Bere lanak ikusgai egon ziren *Encounters: New Art from Old* taldeko erakusketan, Londresko National Gallery-n

2001 Los Angelesko Museum of Contemporary Art-ek bere argazkien atzera begirako erakusketa egin zuen

2003 Lorenzo de Medici saria jaso zuen Florentzian, Italian, bere ibilbide artistikoaren errekonozimendu gisa. Londresko National Portrait Gallery-k *Five Double Portraits* erakusketa inauguratu zuen

2004 Rosa d'Oro saria jaso zuen, Italiako Novecento argitaletxeak emana

2005 National Portrait Gallery, hurrengo urtean bere 150. urteurrena ospatzeko, Hockneyk egindako erretratuen erakusketa bat prestatzen hasi zen

ANISH KAPOOR

Bombay (India), 1954 | Londresen bizi da

1954 Bombayn jaioa, Indian

1970 Familia Londresara joan zen bizitzera

1973 Londresko Hornsey College of Art-en sartu zen, eta bertan jarraitu zuen lau urtez

1977 Londresko Chelsea School of Art-en osatu zuen bere prestakuntza

1979 Bidaia luzea egin zuen Indian zehar, bere lanean izugarrizko eragina izan zuena

1980 Lehenengo bakarkako erakusketa egin zuen Patrice Alexandre-n, Parisen

1982 Artista egoiliar gisa sartu zen Walker Art Gallery-n, Liverpoolen. Harremanetan hasi zen Londresko Lisson Gallery-rekin, eta erakusketa bat egin zuen han urte hartan bertan. Veneziako 40. Bienalean parte hartu zuen

1983 São Pauloko XVII. Bienalean parte hartu zuen, *Transformations: New Sculpture from Britain* erakusketan

1985 Bakarkako erakusketa egin zuen Basileako Kunsthalle-n, ondoren Eindhoveneko Stedelijk Van Abbemuseum-en ikusi ahal izan zena, Holandan. Parisko Bienalean parte hartu zuen

1987 Paper gaineko lanen erakusketa egin zuen Sydneyko Ray Hughes Gallery-n, ondoren Museum of Modern Art of Brisbane-n ikusi ahal izan zena, Australian

1990 Britainia Handia ordezkatu zuen Veneziako 44. Bienalean. Duemila saria eman zioten bertan. Marrazki-erakusketa bat egin zuen Tate Gallery-n, Londresen

1991 Turner saria eman zion Tate Gallery-k, Londresen. *Anish Kapoor and Abstract Art in Asia* erakusketa inauguratu zen Fukuoka Art Museum-en, Fukuokan, Japonian. Bakarkako erakusketak egin zituen Grenobleko Centre National d'Art Contemporain-en, Frantzia, Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofia-n, Madril, Kunstverein Hannover-en, Alemanian, eta Sixth Japan Ushimado International Art Festival, Ushimadon, Japonian

1992 Erakusketa bat inauguratu zuen Museum of Contemporary Art San Diego-n, La Jollan, urte hartan eta hurrengoan lowako Des Moines Art Center-en, Ottawako National Gallery of Canada-n, eta Torontoko The Power Plant Contemporary Art Gallery-n ikusi ahal izan zena. Documenta 9-n parte hartu zuen, Kasselen. David Connor-ekin elkarlanean, *Building for a Void* eraikuntza egin zuen Sevillako Expo 92rako

1993 Erakusketa bat egin zuen Tel Aviv Museum of Art-en, Israelen. Londresko Queen Elizabeth Hall-en estreinatu zen *River Run* baletarako eszenografiaren diseinuan parte hartu zuen. Brian Elias konpositorearekin elkarlanean *Echo* sortu zuen, musika mekanismoak dituzten bost eskulturez osatutako multzoa

1994 Erakusketa bat egin zuen Moderna Galerija Ljubljana-n, Eslovenian

1995 Bere lana ikusgai egon zen *Fémininmasculin. Le sexe de l'art* erakusketan, Centre Georges Pompidou-n, Parisen

1996 Erakusketa bat egin zuen Aboa Vetus & Ars Nova Museum-en, Turkun, Finlandian

1997 Honoris Causa Doktorea izendatu zuten London Institute-k eta Leeds University-k

1998 Santiago Compostelako Centro Galego de Arte Contemporanea-n *At the Edge of the World* instalazioa jarri zuen ikusgai, kupula gorri bat, zortzi metroko diametroa duena eta museoaren aretoetako batean esekia. *Her Blood* pieza aurkeztu zuen La Chapelle de la Salpêtrière-n, Parisen

1999 Honoris Causa Doktorea izendatu zuen University of Wolverhampton-ek Erakusketa bat egin zuen Baltic Centre for Contemporary Art-en, Gatesheaden, Ingalaterran, eta *Taratantara* pieza instalatu zuen bertan

2000 *The Edge of the World* pieza iraunkorki instalatu zuen Axel Vervoordt Kanaal-en, Wijnegemen, Belgikan

2001 Ohorezko Kide izendatu zuen Royal Institute of British Architecture-k. Valentziako eta Shangaiko Bienaleetan parte hartu zuen

2002 *Marsyas* pieza, ia 140 metro luze eta 35 altu dena, Tate Modern-eko Turbina-Aretoan jarri zuen ikusgai, Londresen. *Sky Mirror* pieza instalatu zuen Nottingham Playhouse-n

2003 *My Red Homeland* erakusketa inauguratu zen Kunsthhaus Bregenz-en, Austrian. Erakusketa bat egin zuen Museo Archeologico Nazionale-n, Napolesen, Italian. Institut Valencià d'Art Modern-en (IVAM) III. Julio González Saria jaso zuen, Eduardo Chillida-rekin ex-aequo

2004 British Memorial Garden Trust lehiaketa irabazi zuen, New Yorkeko Hanover Square-rako monumentu bat eraikitzeko deitutakoa. *Melancholia* erakusketa inauguratu zen, Musée d'Art Contemporain

Grand Hornu-n, Belgikan. *Cloud Gate* pieza instalatu zuen Millennium Park-en, Chicagon, eta *Origin of the World* pieza 21st Century Museum of Contemporary Art-en, Kanazawa Museum-en, Japonian

2005 Erakusketa bat egin zuen Scaï The Bathhouse galerian, Tokion, Japonian

ELSWORTH KELLY

Newburgh, New York, 1923 | Spencertownen bizi da (New York)

1923 Maiatzaren 31n jaioa, Newburgen, New Yorken

1944–45 Ameriketako Estatu Batuetako armadan egon zen II. Mundu Gerran, Frantzia, Ingalaterran eta Alemanian

1946 Bostongo School of the Museum of Fine Arts-en sartu zen, eta bertan marrazketa eta pintura ikasi zituen. 1948an graduatu zen

1948 Parisera joan zen eta École des Beaux-Arts-en sartu zen

1949 Bere lehenengo lan abstraktuak pintatu zituen. John Cage ezagutu zuen

1950 Bere aurreneko taldeko erakusketa egin zuen Europan, Parisko Galerie des Beaux-Arts-en. Jean Arp, Georges Vantongerloo eta Francis Picabia ezagutu zituen

1951 Bere lehenengo bakarkako erakusketa egin zuen Parisen, Galerie Arnaud-en. Panel anitzez osatutako bere lehenengo lana egin zuen: *Colors for a Large Wall*. Brancusi ezagutu zuen eta haren estudioa bisitatu zuen

1952 Joan Miró eta Alberto Giacometti ezagutu zituen

1953 Marcel Breuer eta Alexander Calder ezagutu zituen

1954 New Yorkera itzuli zen

1956 Bakarkako lehenengo erakusketa egin zuen New Yorken, Betty Parsons Gallery-n

1957 Bere lana *Young America 1957* erakusketan egon zen ikusgai, New Yorkeko Whitney Museum of American Art-en

1958 Erakusketa bat egin zuen Galerie Maeght-en, Parisen

1959 Bere lehenengo eskultura-erakusketa egin zuen, New Yorkeko Betty Parsons Gallery-n. Bere lana *Sixteen Americans* erakusketan egon zen ikusgai, New Yorkeko Museum of Modern Art-en (MoMA). Jasper Johns eta Frank Stella ezagutu zituen

1963 Kellyren lehenengo bakarkako erakusketa museo batean, Washington, DCko Gallery of Modern Art-en. Ondoren, erakusketa Bostongo Institute of Contemporary Art-en egon zen ikusgai

1966 AEBko Pabilioian egon zen bere lana ikusgai, Veneziako 33. Bienalean

1968 Documenta 4 erakusketan parte hartu zuen, Kasselen

1969 Mural bat egin zuen UNESCOrako, Parisen

1973 New Yorkeko Museum of Modern Art-ek (MoMA) bere lanaren atzera begirako erakusketa egin zuen. Ondoren, Kaliforniako Pasadena Art Museum-en, Minneapolisko Walker Art Center-en eta Detroit Institute of Arts-en ikusi ahal izan zen.

1974 AEBko National Institute of Arts and Letters-eko kide hautatu zuten. "The Painting Prize" jaso zuen, Art Institute of Chicago-k emana

1977 Documenta 6 erakusketan parte hartu zuen, Kasselen

1979 Azkenaldian egindako lanen erakusketa egin zioten New Yorkeko Metropolitan Museum of Art-en. *Ellsworth Kelly: Painting and Sculpture 1963-1979* inauguratu zuten, Amsterdamgo Stedelijk Museum-en. Ondoren, Londresko Hayward Gallery-n, Parisko Centre Georges Pompidou-n eta Baden-Badengo Staatliche Kunsthalle-n ikusi ahal izan zen

1982 New Yorkeko Whitney Museum of American Art-ek bere eskulturen atzera begirako erakusketa egin zuen, ondoren Saint Louis Art Museum-en egon zena

1983 Eskultura bat instalatu zuen Mies van der Rohe-ren Farnsworth House-n, Illinoisen, AEB

1984 Washington DCko National Gallery of Art-ek areto bat eskaini zien bere pinturei, 1987 arte iraun zuena

1987 Texasko Fort Worth Art Museum-ek paper gaineko bere lanen atzera begirako erakusketa inauguratu zuen. Ondoren, Bostongo Museum of Fine Arts-en, Torontoko Art Gallery of Ontario-n, Kanadan, Baltimore Museum of Art-en, San Francisco Museum of Modern Art-en eta Kansas Cityko Nelson-Atkins Museum of Art-en ikusi ahal izan zen. Detroit Institute of Arts-ek bere grabatuen atzera begirako bat antolatu zuen, ondoren AEBko museo ugartan egon zena. Frantziako Errepublikak Chevalier de l'Ordre des Arts et des Lettres izendatu zuen

1988 Eskultura bat instalatu zuen Minneapolisko Walker Art Center-en

1989 Amsterdamgo Overholland Museum-ek paper gaineko bere lanen erakusketa bat egin zuen

1992 *Ellsworth Kelly: The Years in France, 1948–1954* inauguratu zuten Parisko Galerie Nationale du Jeu de Paume-n. Ondoren, erakusketa hura Alemanian ikusi ahal izan zen Münsterreko Westfälisches Landesmuseum-en, eta Washington, DCko National Gallery-n. Documenta 9 erakusketan parte hartu zuen, Kasselen

1993 Londresko Tate Gallery-n erakusketa bat egin zuen. Errepublika Frantsesak Chevalier de la Légion d'Honneur izendatu zuen. Manhattango Pratt Institute-k Honoris Causa Doktore izendatu zuen

1996 New Yorkeko Solomon R. Guggenheim Museum-ek bere lanaren atzera begirako erakusketa handi bat egin zuen. Ondoren, Los Angelesko Museum of Contemporary Art-en, Londresko Tate Gallery-n eta Municheko Haus der Kunst-en ikusi ahal izan zen

1998 Erakusketa bat egin zuen Metropolitan Museum of Art-en, New Yorken

2000 “Praemium Imperiale” saria jaso zuen pintura-sailean, Japoniako Japan Art Association elkarteak emana

2001 Bere lehenengo marrazki-erakusketa egin zuten Fogg Art Museum-en, Cambridgeko Harvard University-n. Ondoren, Atlantako High Museum of Art-en, Art Institute of Chicago-n, Suitzako Kunstmuseum Winterthur-en, Municheko Städtische Galerie im Lenbachhaus-en eta Bonnekoko Kunstmuseum-en ikusi ahal izan zen

2002 Basileako Fondation Beyeler-ek bere lanaren gaineko erakusketa bat egin zuen. Frantziako Errepublikak Commandeur des Arts et des Lettres izendatu zuen

2003 *Ellsworth Kelly: Red Green Blue* erakusketa inauguratu zuten San Diegoko Museum of Contemporary Art-en. Ondoren, Houstongo Museum of Fine Arts-en eta New Yorkeko Whitney Museum of American Art-en egon zen ikusgai

2005 Michiganeko Grand Rapids Art Museum-ek *Drawn from Nature, The Plant Lithographs of Ellsworth Kelly* erakusketa antolatu zuen. Ondoren, Dartmouth College-ko Hood Museum of Art-en, St. Ives-eko Tate Gallery-n, Ingalaterran, New Yorkeko AXA Gallery-n eta, azkenik, 2007an Sevillako Centro Andaluz de Arte Contemporáneo-n egon zen ikusgai. Williamstown-eko Williams College-k, Massachusettsen, Arte Ederretako Honoris Causa Doktorea izendatu zuen

ANSELM KIEFER

Donaueschingen (Alemania), 1945 | Barjacen bizi da (Frantzia)

1945 Martxoaren 8an jaioa, Donaueschingenen, Alemanian

1966 Urte betez Zuzenbidea ikasten aritu ondoren, artea ikasten hasi zen Peter Dreher-en zuzendaritzapean, Albert-Ludwigs-Universität-en, Friburgon

1969 Staatliche Akademie der Bildenden Künste-n jarraitu zituen ikasketak, Karlsruhe. *Besetzungen* (okupazioak) argazki-saila egin zuen, Europako leku desberdinetan bere burua nazien agurra eginez erakutsiz, alemanen okupazioa pertsonalizatzeko. Bakarkako lehenengo erakusketa egin zuen Galerie am Kaiserplatz-en, Karlsruhe

1970 Staatliche Kunstakademie Düsseldorf-en sartu zen, eta bertan Joseph Beuys ezagutu zuen eta bi urte gehiago egon zen

1973 Zurezko barne espazioen gaineko lan-sail famatua egin zuen, “ganbarako koadroak” deitu ohi zaienak eta bere estudioko teilatupea motibotzat dutenak, Höpfingenen, Odenwalden. Erakusketa bat egin zuen Galerie Michael Werner-en, Kolonian

1977 Bakarkako erakusketa egin zuen Bonnekko Kunstverein-en. Documenta 6-n parte hartu zuen

1978 Erakusketa bat egin zuen Bernako Kunsthalle-n, Suitza

1979 Bakarkako erakusketa egin zuen Stedelijk Van Abbemuseum-en, Eindhovenen

1980 Veneziako Bienalean parte hartu zuen, Alemaniako Errepublikaren Pabilioian, *Verbrennen, verholzen, versenken, versanden* erakusketarekin

1981 Erakusketa bat egin zuen Museum Folkwang-en, Essenen, ondoren Whitechapel Art Gallery-n, Londresen, ikusi ahal izan zena

1982 Documenta 7-n parte hartu zuen, Kasselen

1984 Erakusketa bat egin zuen Städtische Kunsthalle Düsseldorf-en, ondoren Musée d'Art Moderne de la Ville de Paris-en eta Israel Museum-en, Jerusalemen, ikusi ahal izan zena

1986 Erakusketa bat egin zuen Amsterdameko Stedelijk Museum-en

1987 Bere lana ikusgai jarri zuten Art Institute of Chicagon, urte hartan eta ondorengoan Philadelphia Museum of Art-en, Museum of Contemporary Art-en, Los Angelesen, eta Museum of Modern Art-en (MoMA), New Yorken, ikusi ahal izan zen erakusketan. Documenta 8-n parte hartu zuen, Kasselen

1989 *Zweistromland* amaitu zuen, 32 tonako pieza, non berunezko 200 liburu zortzi metro luze diren apaletan ordenatuak agertzen diren, 1986an hasitako lana izanik

1990 Wolf Foundation Prize of Painting saria jaso zuen, Jerusalemen

1991 Erakusketa bat egin zuen Neue Nationalgalerie-n, Berlinen

1992 Barjacera joan zen bizitzera, Frantziara

1993 Erakusketa bat egin zuen Marian Goodman Gallery-n, New Yorken. Ikusgai jarritako lanen artean 20 *Jahre Einsamkeit* (Bakardadeko 20 urte) zegoen, 1971 eta 1991 urte bitartean egindako lan pilo handi bat. Erakusketa bat egin zuen Sewon Museum of Art-en, Tokion, ondoren Kyoto National Museum of Art-en eta Hiroshima Museum of Contemporary Art-en ikusi ahal izan zena

1995 Kosmosari buruzko pintura monumentalen saila egiten hasi zen. Erakusketa bat egin zuen Kukje Gallery-n, Seulen

1996 Erakusketa bat egin zuen Centro Cultural Arte Contemporáneo-n, Mexiko DFn

1997 Pintura-sail bat egiten hasi zen, arkitektura arkaiko hutsak aurkeztuz. Erakusketa bat egin zuen Museo Correreren, Venezian, Veneziako 47. Bienalaren barruan

1998 Erakusketa bana egin zuen Museo di Capodimonten, Napolesen, eta Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía-n, Madrilan

1999 New Yorkeko Metropolitan Museum of Art-ek (MoMA) paper gaineko bere lanaren atzera begirako erakusketa egin zuen. "Praemium Imperiale" saria eman zion, pintura sailean, Japan Art Association-ek, Japonian

2000 Erakusketa bat egin zuen National Gallery-n, Londresen

2001 Basileako Fondation Beyeler-ek bere lanaren atzera begirako erakusketa egin zuen. Erakusketa bat egin zuen Londresko Royal Academy of Arts-en, orain Ohorezko Kide den elkartean, eta Louisiana Museum of Modern Art-en, Humlebaeken, Danimarkan

2002 Officier de l'Ordre des Arts et des Lettres izendatu zuen Frantziako Errepublikak

2004 Erakusketa bat egin zuen Napolesko Museo Archeologico Nazionale-n

2005 *Heaven and Earth* erakusketa inauguratu zen Modern Art Museum of Fort Worth-en, hurrengo hilabeteetan Montrealeko Musée d'Art Contemporain-en, Hirshhorn Museum and Sculpture Garden-en, Washingtonen, eta San Francisco Museum of Modern Art-en ikusi ahal izan zena

PER KIRKEBY

Kopenhage, 1938 | Hellerupen bizi da (Danimarka), eta Frankfurten

1938 Irailaren 1ean jaio zen, Kopenhagen

1957 Naturaren Historia ikasi zuen Kopenhageko Unibertsitatean, eta 1964an graduatu zen. Aldi hartan Groenlandiako espedizio ugaritan parte hartu zuen

1962 Kopenhageko Eksperimenterende Kunst-skole-n sartu zen, eta bertan pintura, grabatua eta bideo-sorkuntza ikasi zituen

1964 Bere lehenengo erakusketa indibiduala egin zuen Hovedbibliotek-en, Kopenhagen

1965 Hiru urteko beka jaso zuen Denmark State Fund for the Arts-etik

1966 “Happening” jaialdi batean parte hartu zuen Joseph Beuys-ekin, Bengt af Klintberg-ekin, Bjørn Nørgaard-ekin eta Henning Christiansen-ekin, Kopenhagen. Hamarkada hartan Fluxus mugimendura elkartu zen. Espainian zehar ibili zen Joseph Beuysekin batera

1967 Bere lehenengo nobela argitaratu zuen, *2,15* izenburua duena

1968 Academy Council-ek Urrezko Domina eman zion, artista gazte daniarrei eskainia

1969 *Landskaberne* (Paisaiak) irudizko nobela argitaratu zuen

1971 Bidaia bat egin zuen Mexikotik, Hondurastik eta Guatemalatik. Maia kultura ezagutu zuen, bere lanean garrantzi handia hartu zuena. Saiakera-bilduma bat argitaratu zuen, *Hændelser på rejsen*

1973 2 *digte* poesia-liburua argitaratu zuen

1974 Erakusketa bat egin zuen Michael Werner galerian, Kolonian. *Flyvende blade* saiakera bilduma argitaratu zuen

1975 Høvikoddeneko Henie Onstad Kunstsenter-ek paper gaineko bere lanaren atzera begirako erakusketa egin zuen

1976 Danimarka ordezkatu zuen Veneziako Bienalean

1977 Bere lehenengo erakusketa egin zuen Danimarkatik kanpoko museo batean, Museum Folkwang Essen-en

1978 Irakasle gisa sartu zen Staatliche Akademie der Bildenden Künste-n, Karlsruhe. Saiakera-bilduma bat argitaratu zuen, *Naturens blyant* izenburupean

1979 Erakusketa bat egin zuen Kunsthallen, Bernan, eta Aarhus Art Museum-en, Aarhusen. Saiakera-sail bat argitaratu zuen, *Naturstudiet* izenburupean

1980 Bere lana ikusgai egon zen *A new Spirit in Painting* erakusketan, Royal Academy of Arts-en, Londresen

1981 Bere lehenengo brontzezko eskulturak egin zituen. Bakarkako erakusketak egin zituen Stockholmeko Moderna Museet-en eta Bruselako Musée des Beaux-Arts-en. Veneziako Bienalean parte hartu zuen. *Bravura* saiakera-bilduma argitaratu zuen

1982 Documenta 7-n parte hartu zuen. Arte Ederretako Danimarkako Errege-Akademiako kide izendatu zuten

1984 Eindhoveneko Stedelijk Museum-ek *Munch-Jorn- Kirkeby* erakusketa antolatu zuen. Saiakera-bilduma berri bat argitaratu zuen *Naturhistorie* izenburupean

1985 Azkenaldiko lanen erakusketa egin zuen Whitechapel Art Gallery-n, Londresen

1987 Koloniako Museum Ludwig-ek bere lanaren atzera begirako garrantzizko erakusketa egin zuen

1988 Irakasle gisa sartu zen Städelschule Frankfurt am Main-en. *Efterbilleder* eta *Edvard Weie* liburuak argitaratu zituen

1989 Erakusketak egin zituen Kunstmuseum Winterthuren, The Nordic Arts Centre-n, Helsinkin, eta Institut Valencià d'Art Modern-en (IVAM)

1990 Erakusketa bat egin zuen Louisiana Museum of Modern Art-en, Humlebaeken, eta Moderna Museet-en, Stockholmen. Prince Eugén Domina jaso zuen

1992 Documenta 9-n parte hartu zuen

1993 Veneziako Bienalean parte hartu zuen. Sari hauek jaso zituen: Ars Fennica, Finlandiako Henna and Pertti Niemistö Ars Fennica Art Foundation-ek emana, eta Arthur Kopcke, Kopenhageko Kopcke Foundation-ek emana

1994 São Pauloko Bienalean parte hartu zuen

1995 Istanbulko Bienalean eta Carnegie International-en parte hartu zuen. *Fisters klumme* liburua argitaratu zuen

1996 Henrik Steffens Saria jaso zuen, Alemanian, eta Coutts Contemporary Art Foundation-en Arte-Saria, Suitzan

1998 Bakarkako erakusketa egin zuen Londresko Tate Gallery-n, eta Aarhus Art Museum-en

2000 Brontzezko zortzi eskultura handi ikusgai jarri zituen Berlingo Bundesrat-en

2001 Sabai-mural handi bat egin zuen Aarhus-eko unibertsitatean

2002 Erakusketa bat egin zuen Louisiana Museum of Modern Art-en, Humlebaek-en, eta Museum Ludwig-en, Kolonian

2003 Salzburgoko Rupertinum Museum für moderne und zeitgenössische Kunst-ek bere lan grafikoaren atzera begirako erakusketa egin zuen. Herbert Boeckl Saria jaso zuen bere ibilbideagatik

2004 Städtisches Kunstmuseum Singen-ek paper gaineko bere lanen atzera begirako erakusketa egin zuen

2005 Olio-pinturak jarri zituen ikusgai L.A. Louver Galleryn, Venicen, Kalifornian

R. B. KITAJ

Cleveland, 1932 | Los Angelesen bizi da

1932 Urriaren 29an jaioa, Clevelanden (Ohio)

1950 New Yorkeko Cooper Union Institute-n sartu zen

1951 Lehen aldiz joan zen Europara eta Vienako Akademie der Bildenden Künste-n sartu zen

1957 Oxfordera joan zen eta Ruskin Scholl of Drawing and Fine Art-en ikasi zuen 1959ra arte

1959 Londresko Royal College of Art-en ikasi zituen graduondoko kurtsoak 1961era arte, eta bertan David Hockney ezagutu zuen

1962 Irakasle izan zen Londresko Camberwell Scholl of Arts & Crafts-en eta Slade Scholl of Fine Arts-en 1965era arte

1963 Lehenengo bakarkako erakusketa egin zuen Londresko Marlborough galerian. *Pictures with Commentary*, *Pictures without Commentary* zen erakusketaren izenburua

- 1965** Lehenengo erakusketa egin zuen museo batean, Los Angeles County Museum of Art-en
- 1967** Irakasle izan zen urtebetez Kaliforniako Unibertsitatean, Berkeleyn. Erakusketa bat egin zuen Cleveland Museum of Art-en eta Stedelijk Museum-en, Amsterdamen
- 1969** Erakusketa bat egin zuen Boijmans van Beuningen Museum-en, Rotterdamen
- 1970** Hannoverreko Kestner-Gesellschaft-ek bere lanaren atzera begirako erakusketa egin zuen. Ondoren, Rotterdam-eko Boijmans van Beuningen Museum-en ikusi ahal izan zen. Urtebetez Kaliforniako Unibertsitatean, Los Angelesen, eskolak eman zituen
- 1976** Pintura figuratiboko *The Human Clay* erakusketa polemikoaren komisario izan zen, Londresko Hayward Gallery-n
- 1978** Artista egoiliar gisa sartu zen New Hampshireko Dartmouth College-n. Erakusketa bat egin zuen Parisko Grand Palais-ean, FIACen barruan
- 1980** *The Artist's Eye* erakusketaren komisario izan zen, Londresko National Gallery-n. Bere lanak ikusgai egon ziren San Francisco Museum of Modern Art-en, *20 American Artists* erakusketaren barruan
- 1981** Washingtingo Hirshhorn Museum and Sculpture Garden-en atzera begirako erakusketa inauguratu zuten, ondoren Cleveland Museum-en eta Düsseldorfeko Kunsthalle-n ikusi ahal izan zena. Urtebetez Parisen bizi izan zen
- 1982** American Academy of Arts and Letters-eko kide izendatu zuten. Honoris Causa Doktorea izendatu zuten University of London-en. Bere lanak *A New Spirit in Painting* erakusketan ikusgai egon ziren, Londresko Royal Academy of Arts-en
- 1983** Bere lana New Yorkeko Solomon R. Guggenheim Museum-en ikusgai egon zen, *Aspects of Postwar Painting in Europe* erakusketaren barruan
- 1989** Bere lehenengo "First Diasporist Manifesto" argitaratu zuen
- 1991** Honoris Causa Doktorea izendatu zuten Londresko Royal College of Art-en eta baita akademikide ere
- 1994** Atzera begirako erakusketa inauguratu zuen Londresko Tate Gallery-n, ondoren Los Angeles County Museum of Art-en eta New Yorkeko Metropolitan Museum of Art-en ikusi ahal izan zena. Londresko Victoria and Albert Museum-ek bere grabatuen atzera begirako erakusketa egin zuen
- 1995** Veneziako Bienalean parte hartu zuen, eta bertan Urrezko Lehoia jaso zuen

1996 Chevalier des Arts et des Lettres izendatu zuen Frantziako Errepublikak. Honoris Causa Doktore izendatu zuten Ingalaterrako Durham University-n. FIACen parte hartu zuen, Espace Eiffel Brany-n parte hartuz

1997 Los Angelesa joan zen. Erakusketa bat egin zuen Royal Academy's Summer Exhibition-en, eta bertan "Wollaston Award" saria jaso zuen. Chicagoko Azokan parte hartu zuen

1998 Bere lanaren atzera begirako erakusketa inauguratu zuten Osloko Astrup Fearnley Museet for Moderne Kunsten, ondoren Madrilgo Museo Nacional Centro de Reina Sofía-n, Vienako Jüdisches Museum der Stadt Wienen eta Hannoverreko Sprengel Museum-en ikusi ahal izan zena

2001 *Kitaj, In the Aura of Cézanne and Other Masters* erakusketa inauguratu zuten Londresko National Gallery-n

2004 Bilboko Arte Eder Museoak *Kitaj: Hispanista baten erretratua* erakusketa antolatu zuen

2005 "Second Diasporist Manifesto Work in Progress" argitaratu zuen

JANNIS KOUNELLIS

Pireo (Grezia), 1936 | Erroman bizi da

1936 Pireon jaioa, Grezian

1956 Erromara joan zen bizitzera eta Accademia di Belle Arti-n sartu zen

1960 Bakarkako lehenengo erakusketa egin zuen, *L'alfabeto di Kounellis* izenburupean, Erromako Galleria la Tartaruga-n

1961 Lissone saria jaso zuen

1963 Kanean aurkitutako elementuak erabiltzen hasi zen bere pinturetan. San Marinoko Bienalean parte hartu zuen

1967 Bere lana ikusgai egon zen *Arte povera e IM spazio* erakusketan, Galleria La Bertesca-n, Genovan, Germano Celant izanik komisarioa, "arte povera" terminoa barneratu zuena. Lankidetzan hasi zen Mario Merz-ekin, Michelangelo Pistoletto-rekin eta Guiseppe Penone-rekin. Parisko Bienalean parte hartu zuen

1969 Bere erakusketa famatua egin zuen, Erromako Galleria l'Attico-n bizirik zeuden hamabi zaldi sartu zituenekoa. Parisko Bienalean parte hartu zuen

1970 Bere lana ikusgai egon zen Tokioko Bienalean

1972 Bakarkako lehenengo erakusketa New Yorken, Sonnabend Gallery-n. Documenta 5-en parte hartu zuen, Kasselen

1974 Veneziako 36. Bienalean parte hartu zuen

1976 Veneziako 37. Bienalean parte hartu zuen

1977 Bere lehenengo erakusketa Atenasen, Jean & Karen Bernier Gallery-n. Erakusketa bat egin zuen Bernako Kunstmuseum-en, Suitzan, eta Rotterdameko Museum Boymans van Beuningen-en. Documenta 6-n parte hartu zuen, Kasselen

1978 Primo Pascali saria jaso zuen. Veneziako 38. Bienalean parte hartu zuen

1979 Erakusketa bat egin zuen Folkwang Museum-en, Essenen, Alemanian

1980 Musée d'Art Moderne de la Ville de Paris-ek bere lanaren atzera begirako erakusketa egin zuen. Veneziako 39. Bienalean parte hartu zuen

1981 Bere lanaren atzera begirako erakusketa inauguratu zuten Stedelijk Van Abbemuseum-en, Eindhovenen, hurrengo urtean Fundación Caja de Pensiones-en, Madrilén, Whitechapel Art Gallery-n, Londresen, eta Staatliche Kunsthalle-n, Baden-Badenen, ikusi ahal izan zena

1982 Documenta 7-n parte hartu zuen, Kasselen

1984 Erakusketa bat egin zuen Museum Haus Esters-en, Krefelden, Alemanian. Veneziako 41. Bienalean parte hartu zuen

1985 Bordeleko Musée d'Art Contemporain-ek bere lanaren garrantzizko erakusketa egin zuen

1986 Chicagoko Museum of Contemporary Art-ek bere lanaren atzera begirako erakusketa egin zuen, ondoren Montrealeko Musée d'Art Contemporain-en ikusi ahal izan zena

1987 Erakusketa bat egin zuen Institute of Contemporary Art-en, Nagoyan, Japonian

1988 Veneziako 43. Bienalean parte hartu zuen

1989 Erakusketa bat egin zuen Bartzelonako Espai Poble Nou-n

- 1966** Artista egoiliar gisa sartu zen Stanford University-n, eta irakasle gonbidatu izan zen Berkeleyko University of California-n
- 1967** Bere lana Italiako Pabilioian egon zen ikusgai Montrealgo Expo '67-n. Carnegie International Saria jaso zuen Pittsburghen
- 1969** Museum Boijmans van Beuningen-en erakusketa bat egin zuen, Rotterdamen
- 1970** Erakusketa bat inauguratu zuen Berkeleyko University Art Museum-en, ondoren AEBko beste zenbait museotan egon zena
- 1975** Bere lanaren atzera begirako garrantzizko erakusketa inauguratu zuten Milango Rotonda della Besana-n

- 1976** Erakusketa bat egin zuen Parisko Musée d'Art Moderne de la Ville-n
- 1980** Eskolak emateko gonbidatu zuten Oaklandeko Mills College-n, eta 1984ra arte egon zen bertan
- 1981** Henry Moore Grand Prize jaso zuen, Hakone Open- Air Museum-ek emana
- 1982** Erromako Opera-Antzokiak egindako eskari batetik eszenografo gisa hasi zen berriro lanean. Bere eskultura-sorta, *Pillari per Amaliegaven*, instalatu zuen Kopenhagen
- 1984** Bere lanaren atzera begirako garrantzizko erakusketa egin zuten Florentziako Forte di Belvedere-n. *Arnaldo Pomodoro: A Quarter Century* erakusketa inauguratu zuten Columbus Art Museum-en, Columbusen, eta ondoren AEBko beste zenbait museotan egon zen
- 1988** Bakarkako erakusketa batekin parte hartu zuen Veneziako Bienalean
- 1990** Eskultura-sailean "Praemium Imperiale" saria jaso zuen, Japoniako Japan Art Association-ek emana
- 1991** Bere *Disco solar* Moskuko Gazteriaren Jauregiaren aurrean instalatu zuten
- 1992** Bere *Papyrus* Alemaniako Darmstadt hirian instalatu zuten. Ubu Saria jaso zuen Bernard-Marie Koltèsen *Kotoisailen bakardadean* obraren eszenografiatik. Letretako Honoris Causa Doktorea izendatu zuten Dublingo Trinity College-n
- 1993** Ohorezko Bazkide izendatu zuten Milango Academia de Brera-n
- 1994** Kanagawako Hakone Open Air Museum-ek *Arnaldo Pomodoro, 1956-1993* atzera begirako erakusketa inauguratu zuen. Ondoren, erakusketa Japoniako beste zenbait museotan egon zen, besteak beste, Museum of Toyamako Modern Art-en, Kurashikiko Ohara Museum-en eta Nishinomiya Otani Memorial Art Museum-en
- 1995** *Opere scelte per una costituenda Fondazione* erakusketa inauguratu zuten Riminiko Museo della Citta-n. Arnaldo Pomodoro Fundazioa sortu zuen, eskultura garaikidea eta bere lana dokumentatzeko eta aztertzeko.
- 1996** Bere *Esfera con esfera* New Yorkeko Nazio Batuen Plazan instalatu zuten. Cavaliere di Gran Croce dell' Ordine Al Merito izendatu zuen Italiako Errepublikak
- 1999** Carrarako Eskultura-Bienalean parte hartu zuen
- 2000** Parco della Reggia e Giardino Inglese-n erakusketa bat egin zuen, Casertan

2003 *Reconstructing Forms: Contemporary Sculpture by Arnaldo Pomodoro* erakusketa Muscarelle Museum of Art-en inauguratu zuten, Williamsburgen

2005 Irailean Arnaldo Pomodoro Fundazioaren espazio berria inauguratu zuten Milanen, 3000 m²-koa, erakusketa-gune eta artisten laborategi izaten jarraituz

ROBERT RAUSCHENBERG

Port Arthur, Texas (AEB), 1925 | New Yorken eta Floridan bizi da

1925 Urriaren 22an jaioa, Milton Ernest Rauschenberg izenez, Port Arthurren, Texasen

1944 Soldadutza egin zuen Ameriketako Estatu Batuetako Itsas Armadan

1947 Ikasketa-beka bat lortu zuen eta Kansas City Art Institute-n matrikulatu zen. Robert izena hartu zuen

1948 Parisko Académie Julian-en izena eman zuen eta, AEBra itzultzean, Black Mountain College-n, Ipar Carolinan

1950 Aurreko urtean New Yorkera bizitzera joan ondoren, eskolak hartu zituen Art Students League-n, eta bertan ezagutu zuen Cy Twombly

1951 Bere lana ikusgai egon zen *Abstraction in Photography* erakusketan, New Yorkeko Museum of Modern Art-en (MoMA). Bakarkako lehenengo erakusketa egin zuen Betty Parsons Gallery-n, New Yorken. *White Paintings* eta *Black Paintings* sailak hasi zituen

1952 Theater Piece # 1 antzezpenean parte hartu zuen, John Cagék antolatua eta artearen historiako lehenengo "happening"-tzat hartua. Bidaia bat egin zuen Europa eta Afrikatik Cy Twomblyrekin

1954 Bere lehenengo *Combines* egiten hasi zen, eskulturaren eta pinturaren alderdiak konbinatzen dituzten lanak

1959 Documenta 2-n, Kasselen, eta São Pauloko Bienalean parte hartu zuen. Bere lana ikusgai egon zen *L'Exposition Internationale du Surréalisme* erakusketan, Galerie Daniel Cordier-en, Parisen, André Breton-ek eta Marcel Duchamp-ek antolatutakoan

1960 Erakusketa bat egin zuen Galerie Daniel Cordier-en, Parisen. Marcel Duchamp ezagutu zuen

1961 Bere lana ikusgai egon zen *The Art of Assemblage* erakusketan, Museum of Modern Art-en (MoMA), New Yorken

1962 Serigrafia erabiltzen hasi zen

1963 New Yorkeko Jewish Museum-ek bere lanaren atzera begirako lehenengo erakusketa egin zuen

1964 Londresko Whitechapel Art Gallery-k bere lanaren atzera begirako erakusketa egin zuen. Veneziako Bienalean parte hartu zuen, eta Nazioarteko Pintura-Sari Nagusia irabazi zuen bertan, baita Documenta 3-n ere, Kasselen

1965 Erakusketa bana egin zuen Houstongo Contemporary Arts Museum-en eta Minneapolisko Walker Art Center-en

1968 *Autobiography* lana aurkeztu zuen, ia bost metro altu den grabatua, Whitney Museum of American Art-en, New Yorken. Erakusketa bat egin zuen Amsterdameko Stedelijk Museum-en eta Musée d'Art Moderne de la Ville de Parisen. Documenta 4-n parte hartu zuen, Kasselen

1970 Bere lanaren atzera begirako erakusketa handia inauguratu zuten Minneapolis Institute of Arts-en. Bere lanak erretiratu egin zituen Estatu Batuetako Pabilioitik Veneziako Bienalean, Vietnamgo gerraren kontrako protesta gisa

1972 *Venetian* saila hasi zuen

1975 *Spread* saila hasi zuen. Erakusketa bat egin zuen Veneziako Museo d'Arte Moderna Ca' Pesaro-n. Arte Ederretako Honoris Causa Doktorea izendatu zuen Tampako Unibertsitateak, Floridan

1976 Washingtoneko National Collection of Fine Arts, Smithsonian Institution-ek bere lanaren atzera begirako erakusketa egin zuen. Erakusketa bat egin zuen Forte di Belvedere-n, Florentzian

1977 *Scales* saila hasi zuen. Documenta 6-n parte hartu zuen, Kasselen

1980 Berlingo Staatliche Kunsthalle-k bere lanaren atzera begirako erakusketa egin zuen

1981 Argazki-erakusketa egin zuen Musée National d'Art Moderne Centre Georges Pompidou-n, Parisen

1982 Bi urtez ibili zen Japoniatik, Txinatik, Thailandiatik eta Sri Lankatik bidaiatzen

1984 ROCI (Rauschenberg Overseas Culture Interchange) aurkeztu zuen New Yorkeko Nazio Batuen eraikinean, garapen bidean dauden hamaika herrialdetan bere lanak ikusgai jarriko dituen erakusketa-proiektua izanik

1985 Mexiko DFko Museo Rufino Tamayo-k egin zion harrera ROCI proiektuaren lehenengo erakusketari. Urte hartan bertan Txilen, Venezuelan, Txinan eta Tibetean egon zen ikusgai. Erakusketa bat egin zuen Fundación Juan Marchen, Madrilan, ondoren Fundació Joan Miró-n ikusi ahal izan zena, Bartzelonan

1986 *Shiners* saila egin zuen

1987 Erakusketa bat egin zuen Metropolitan Museum of Art-en, New Yorken

1989 *Borealis* saila hasi zuen. ROCI erakusketa inauguratu zen Moskuko Kultur Etxe Nagusian, artista baten lehenengo erakusketa SESBen II. Mundu Gerraren ondoren

1990 Robert Rauschenberg Foundation sortu zuen. Erakusketa bat egin zuen Whitney Museum of American Art-en, New Yorken

1991 ROCI proiektuari amaiera eman zion erakusketa inauguratu zen National Gallery of Art-en, Washingtonen

1992 *Waterworks* saila hasi zuen

1993 Hiroshima Art Prize eman zioten Hiroshima City Museum of Contemporary Art-en, Hiroshiman, non urte hartan bertan erakusketa bat izan zuen

1994 Erakusketa bat egin zuen Kunstsammlung Nordrhein-Westfalen-en, Düsseldorf

1995 Bere eskulturen atzera begirako erakusketa handia egin zioten Modern Art Museum of Fort Worth-en

1996 Erakusketa bat egin zuen Monastero Mechitarista dell'Isola di San Lazzaro degli Armen-en, Venezian

1997 New Yorkeko Solomon R. Guggenheim Museum-ek bere lanaren atzera begirako erakusketa garrantzitsua egin zuen, hurrengo urtean Guggenheim Bilbao Museoan ikusi ahal izan zena

1998 "Praemium Imperiale" saria eman zion, pintura-sailean, Japan Art Association-ek, Japonian

1999 Erakusketa bat egin zuen San Francisco Museum of Modern Art-en

2004 Erakusketa bat egin zuen Wadsworth Atheneum Museum-en, Hartforden. Bere lanaren atzera begirako erakusketa egin zioten Palazzo di Diamanti-n, Ferraran

2005 Julio González Eskultura-Saria eman zion Institut Valencià d'Art Modern-ek (IVAM), Valentzian, non *Gluts* saileko hogeita zazpi lan ikusgai jarri zituen

JULIÃO SARMENTO

Lisboa, 1948 | Estorilen bizi da

1948 Azaroaren 4an jaioa, Lisboan

1967 Lisboako Escola Superior de Belas Artes-en sartu zen, eta bertan pintura eta arkitektura ikasi zituen 1974ra arte. *Graça de sua Graça* lanarekin, orain galdua dagoen 8 mm-ko filmarekin hurbildu zen lehen aldiz bideoaren mundura

1975 1,2,3 egin zuen, kontserbatzen den 8 mm-ko bere film zaharrena

1976 Bere lehenengo bakarkako erakusketa egin zuen Galeria de Arte Moderna-n, SNBAn, Lisboan

1977 Bere lana ikusgai egon zen *Alternativa Zero* erakusketan, Galeria Nacional de Arte Moderna-n, Lisboan

1978 Erakusketa bat egin zuen Centro de Arte Contemporânea-n, Museu Nacional de Soares dos Reis-n, Oporton

1979 Bere lehenengo bakarkako erakusketa egin zuen atzerrian, Bernako Galerie Erika + Otto Friedrich-en

1980 Parisko XI. Bienalean eta Veneziako Bienalean parte hartu zuen

1982 Documenta 7-n parte hartu zuen, Kasselen

1985 Art 16'85-en parte hartu zuen, Basilean

1986 Erakusketa bat egin zuen Malagako Arte Eder Museoan

1987 Documenta 8-n parte hartu zuen, Kasselen

1991 Erakusketa bat egin zuen Fundación Luis Cernuda-n, Sevillan, eta Witte de With Center for Contemporary Arts, Rotterdamen. New Yorkeko Louver Gallery-k Sarmentoren lehenengo bakarkako erakusketa antolatu zuen hiri horretan

1992 Bakarkako erakusketa egin zuen Fundação de Serralves-en, Oporton. Bere lana ikusgai egon zen *Regard Multiple* erakusketan, Centre Georges Pompidou-n, Parisen

1993 Erakusketa bat egin zuen Centro de Arte Moderna-n, Fundação Calouste Gulbenkian-en, Lisboan

1994 *The White Paintings* erakusketa inauguratu zen Centre des Arts Saidye Bronfman-en, Montrealean. Erakusketa bat egin zuen Institut Valencià d'Art Modern-en (IVAM), Valentzian

1995 *Quatre Mouvements de la Peur* erakusketa inauguratu zuen, Edifício das Caldeiras-en, Universidade de Coimbra-n. Erakusketa bat egin zuen Palacio Nacional de Sintra-n

1996 *Two Rooms* erakusketa egin zuen Van Abbemuseum-en, Eindhovenen. Erakusketa bat egin zuen Galeria da Universidade do Minho-n, Museu Nogueira da Silva-n, Bragan. Arte Garaikideari buruzko 3. jardunaldietan, Porto'96-n, parte hartu zuen

1997 Portugal ordezkatu zuen Veneziako Bienalean. Eskolak eman zituen urte hartan Center for Contemporary Art-en (CCA), Kitakyushun, Japonian. Municheko Haus der Kunst-ek 1981az geroztik egin zuen lanaren atzera begirako erakusketa egin zuen

1998 Eskolak eman zituen Municheko Akademie der Bildenden Künste-n ondorengo bi urteetan. Erakusketa bat egin zuen Galleria d'Arte Moderna-n, Bolonian

1999 *Julião Sarmento: Fundamental Accuracy* erakusketa inauguratu zen Hirshhorn Museum and Sculpture Gardenen, Washington, DCn. Erakusketa bat egin zuen Rio de Janeiroko Paço Imperial-en, *Segredos e Mentiras* izenburupean. Madrilgo Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofia-k *Flashback* atzera begirako erakusketa inauguratu zuen, ondorengo urtean Centro de Arte Moderna José de Azeredo Perdigão-n, Fundação Calouste Gulbenkian-en ikusi ahal izan zena, Lisboan

2001 Erakusketa bat egin zuen Museu de Arte Contemporânea-n, Fortaleza de S. Tiago-n, Funchalen. Veneziako Bienalean parte hartu zuen

2002 Lisboako Museu do Chiado-k 70eko hamarkadako bere lanaren erakusketa egin zuen. São Pauloko XXV. Bienalean parte hartu zuen, *Iconografias Metropolitanas* erakusketaren barruan

2003 Bere lana *Reel Sculpture: Film into Art* erakusketan egon zen ikusgai, San Francisco Museum of Modern Art-en

2004 Eindhoveneko Van Abbemuseum-ek *Echo* atzera begirako erakusketa antolatu zuen, Sarmentok baliabide desberdinekin egindako lana erakusten zuten hirurogeitik gora obrak osatua. *Ghosts* erakusketa egin zuen Centro de Artes Visuais-en (CAV), Coimbran. "Video Zone"-ren bigarren edizioan parte hartu zuen, Tel Aviveko Center for Contemporary Art-eko Bideoarte Bienalean

2005 Erakusketa bat egin zuen New Yorkeko Sean Kelly Gallery-n, eta Lisboako Palácio Nacional de Queluz-en

SEAN SCULLY

Dublin, 1945 | New York, Londres eta Bartzelona artean bizi da

1954 Ekainaren 30ean jaioa, Dublinen, Irlandan

1949 Familia Londresa joan zen bizitzera

1960 Bi urtez aprendiz gisa aritu zen inprimategi batean lanean, baita mezulari gisa diseinu grafikoko estudio batean

1962 Arratsaldezkola hartzen zituen Londresko Central School of Art-en, 1965era arte

1965 Londresko Croydon College of Art-en sartu zen, eta bertan 1968ra arte ikasi zuen

1968 Arte Ederrak ikasi zituen Newcastle University-n, eta bertan “First Class Honours” tituluarekin lizentziatu zen 1972an

1970 Stuyvesant Foundation-en saria jaso zuen

1971 Frank Knox beka jaso zuen

1972 Lehen aldiz joan zen AEBko Harvard University-ko Visual Arts Center-en ikasketak jarraitzera, Cambridgen, Massachusettsen

1973 Bere bakarkako lehenengo erakusketa egin zuen Rowan Gallery-n, Londresen. Eskolak ematen hasi zen Chelsea College of Art and Design-en eta Goldsmiths College of Art and Design-en, Londresen

1975 Ameriketako Estatu Batuetara joan zen. Harkness beka jaso zuen. *Changes* saila egin zuen

1977 Bere bakarkako lehenengo erakusketa egin zuen New Yorken, Duffy-Gibbs Gallery-n. Eskolak ematen hasi zen New Jerseyko Princeton University-n, eta bertan bost urtez egon zen

1979 Emazte Catherine Leer-ekin batera, eurentzat garrantzi berezia duen artelan bat urtero aukeratzea erabaki zuen *Catherine Paintings* izena eman zien beren bilduma pribatuan gehitzeko

1980 Erakusketa bat egin zuen Catherine Leerekin batera Berlingo Museum für SubKultur-en. Mexikora bidaiari joan ondoren, naturalean pintatzen eta akuarelak eta tenperak lantzen hasi zen

1981 Erresuma Batuetako Arts Council-ek bere lanaren atzera begirako erakusketa antolatu zuen. Ikon Gallery-n inauguratu zen, Birminghamen, eta ondoren Sunderlanden, Dublinen, Belfasten, Londresen eta Washington DCn ikusi ahal izan zen. Irakasle gisa hasi zen New Yorkeko Parsons School of Art-en, eta bertan hiru urtez egon zen. *Backs and fronts* poliptikoa amaitu zuen

1983 AEBko hiritar bihurtu zen. Lehen aldiz hasi zen inprimagile batekin lankidetzan. Guggenheim beka lortu zuen

1984 Bere lana *An international survey of recent painting and sculpture* erakusketan egon zen ikusgai, New Yorkeko Museum of Modern Art-en (MoMA). National Endowment for the Arts delakoaren beka eman zioten

1985 Bere lanaren erakusketa bat inauguratu zuten Museum of Art-en, Carnegie Institute-n, Pittsburghen, eta ondoren Bostongo Museum of Fine Arts-en ikusi ahal izan zen

1988 Erakusketa bat egin zuen Chicagoko Arts Institute-n eta Berkeley University Art Museum-en

1989 Londresko Whitechapel Art Gallery-k bere lanaren erakusketa bat egin zuen, ondoren Madrilgo Velázquez jauregian eta Municheko Städtische Galerie im Lenbachhaus-en ikusi ahal izan zena. Turner sarirako proposatu zuten

1993 Lehen aldiz jarri zen ikusgai *Catherine Paintings* saila, Museum of Modern Art-en, Fort Worthen, Texasen

1994 Estudio berria estreinatu zuen Bartzelonan

1995 *Sean Scully: Twenty Years* erakusketa inauguratu zen Hirschorn Museum and Sculpture Garden-en, Washington DCn, eta ondoren High Museum of Art-en, Atlantan, La Caixa de Pensiones-en, Bartzelonan, eta hurrengo urtean Irish Museum of Modern Art-en, Dublinen, eta Schirn Kunsthalle-n, Frankfurten, ikusi ahal izan zen

1996 *Floating Paintings and Works on Paper* erakusketa inauguratu zen Galerie Nationale du Jeu de Paume-n, Parisen, ondoren Neue Galerie der Stadt Linz-en, Linzen, eta hurrengo urtean Lisboako Culturgest-en ikusi ahal izan zena. Paper gaineko bere lanen atzera begirako erakusketa handia inauguratu zen Municheko Graphische Sammlungen, urte hartan bertan Essengo Museum Folkwang-en eta Hovikoddengo Henie + Onstad Art Center-en, Norvegian, ikusi ahal izan zena. Hurrengo urteetan, erakusketa Ingalaterra, Irlanda, Danimarka eta AEBko zentro desberdinetan egon zen ikusgai, eta 2000n amaitu zen New Yorkeko Albright-Knox Art Gallery-n, Buffalon, New York

1997 Argazki-erakusketa bat egin zuen lehen aldiz Rekalde aretoan, Bilbon. Manchester City Art Gallery-k bere lanaren atzera begirako erakusketa egin zuen

1999 Bere lan grafikoaren atzera begirako erakusketa inauguratu zen Vienako Albertina-n, eta ondoren Musée du Dessin et de l'Estampe Originale-n, Gravelinesen (Frantzia) eta Von der Heydt Museum-en, Wuppertalen ikusi ahal izan zen. Estudio berria estreinatu zuen New Yorken, eta bertan *Chelsea Wall* pintatu zuen

2000 Ohorezko Kide izendatu zuten London Institute of Arts and Letters-en. Marrazki-erakusketa bat egin zuen New Yorkeko Metropolitan Museum of Art-en. Caeneko Musée des Beaux Arts-ek bere lan grafikoaren atzera begirako erakusketa egin zuen

2001 *Pinturak, marrazkiak, argazkiak 1990–2001* erakusketa inauguratu zen Kunstsammlung Nordrhein Westfalen-en, Düsseldorf-en, eta ondoren Haus de Kunsten, Munichen, eta Institut Valencià d'Art Modern-en (IVAM), Valentzian ikusi ahal izan zen. *Wall of Light* saila jarri zuen ikusgai Monterreyko Museo de Arte

Contemporáneo-n. Aosdána-ko (artista irlandarren elkarte) kide izendatu zuten, Irlandako arteari egin dion ekarpenagatik

2002 Eskolak ematen hasi zen Municheko Akademie der Bildenden Künste-n. São Pauloko Bienalean parte hartu zuen

2003 Arte Ederretako Honoris Causa Doktorea izendatu zuten Massachusetts College of Art-en, Bostonen, eta National University of Ireland-en, Dublinen. Erakusketa bat egin zuen Sara Hildén Art Museum-en, Tampereen, eta ondoren Stiftung Weimarer Klassik-en, Weimarren, eta hurrengo urtean National Gallery of Australia-n, Canberran, ikusi ahal izan zen

2005 *Wall of Light* erakusketa egon zen ikusgai Phillips Collection-en, Washington DCn, eta ondoren Modern Art Museum of Fort Worth-en, Dallasen, Cincinnati Art Museum-en, Ohion, eta Metropolitan Museum of Art-en, New Yorken. Dublingo Hugh Lane Municipal Art Gallery-k espazio berri bat eraiki zuen bere zortzi pintura biltzeko. 2006ko udaberrian inauguratuko da

RICHARD SERRA

San Francisco, 1939 | New Yorken eta Cape Bretonen bizi da

1939 Azaroaren 2an jaioa, San Franciscon

1957 University of California-n sartu zen, Berkeleyn, eta bertan Ingeles Filologian graduatu zen 1961ean

1961 Arte Ederretako ikasketak hasi zituen Yale Universityn, eta 1964an amaitu zituen. Urte haietan Philip Guston, Robert Rauschenberg, Ad Reinhardt eta Frank Stella ezagutu zituen

1963 Josef Albers-ekin lan egin zuen *The Interaction of Color* liburuan

1964 Bi urtez Europan zehar ibili zen. Lehenik Parisen, Yale University-k eman zion bidaia beka batekin, eta ondoren Florentzian, Fulbright bekarekin

1966 Bakarkako lehenengo erakusketa egin zuen Galleria La Salita-n, Erroman. Eskulturan ez ohikoak ziren materialekin hasi zen lanean, kautxuarekin eta beirazuntzarekin. AEBra itzuli zen, eta New Yorken ezarri zen, non maiz egoten zen Carl Andre, Walter De Maria, Eva Hesse, Sol LeWitt, Robert Smithson, Robert Morris edo Bruce Nauman artistekin

1968 *Splash* saila hasi zuen. *Hand Catching Lead* 16 mmko filma egin zuen

1969 *One-Ton Prop (House of Cards)* pieza egin zuen, berunezko lau xafla, elkarren kontra eutsita mantentzen direlarik zutik. Bere lehenengo erakusketa izan zuen AEBn, Leo Castelli Warehouse galerian, New Yorken

1970 Bakarkako erakusketa Pasadena Art Museum-en. John Simon Guggenheim Memorial Foundation-en beka jaso zuen

1972 Documenta 5-en parte hartu zuen, Kasselen

1975 Skowhegan Medal eman zioten. Erakusketa bat egin zuen Portland Center for the Visual Arts-en

1977 Bere marrazkien erakusketa egin zioten Amsterdameko Stedelijk Museum-en. Documenta 6-n parte hartu zuen, Kasselen

1978 Kunsthalle Tübingen-ek bere lanaren atzera begirako erakusketa egin zuen, ondoren Staatliche Kunsthalle-n, Baden-Badenen, ikusi ahal izan zena

1980 Erakusketa bana egin zuten Museum Boijmans van Beuningen-en, Rotterdamen, eta Hudson River Museum-en, Yonkers-en, New Yorken

1981 Erakusketa bat egin zuen Mönchehaus-en, Museum für Moderne Kunst-en, Goslarren. Veneziako Bienalean parte hartu zuen

1982 Bidaia bat egin zuen Espainian zehar arkitektura mozarabiarra aztertzeko. Saint Louis Art Museum-ek marrazki-erakusketa egin zion, ondoren Carol Taylor Art-en, Dallasen, ikusi ahal izan zena. Documenta 7-n parte hartu zuen, Kasselen

1983 Erakusketa bat izan zuen Musée Nationale d'Art Moderne, Centre Georges Pompidou-n, Parisen. Veneziako Bienalean parte hartu zuen

1985 Eskulturak eta marrazkiak jarri zituen ikusgai Museum Haus Lange-n, Krefelden

1986 Eskultura-erakusketa egin zuen Museum of Modern Art-en (MoMA), New Yorken, eta marrazki-erakusketa Louisiana Museum-en, Humlebaeken

1987 Marrazkiak jarri zituen ikusgai Westfälisches Landesmuseum für Kunst und Kulturgeschichte-n, Munsterren. Documenta 8-n parte hartu zuen, Kasselen

1988 Berlineko Neuer Berliner Kunstverein-ek bere lan grafikoaren atzera begirako erakusketa inauguratu zuen, ondoren Wilhelm - Hack Museum-en, Ludwigshafenen, Ulmer Museum-en, Ulmen, eta azkenik Graphische Sammlung der ETHn, Zurichen, ikusi ahal izan zena. Hamar eskultura jarri zituen ikusgai Stedelijk Van Abbemuseum-en, Eindhovenen

1990 Bonnefantenmuseum-ek, Maastrichten, bere marrazkien atzera begirako erakusketa egin zuen. Erakusketa bat egin zuen Bordeleko Musée d'Art Contemporain-en eta Kunsthaus Zürich-en

1991 *Afangar Icelandic Series* sailak jarri ziren ikusgai Museum of Modern Art-en (MoMA), New Yorken. Erakusketa bat egin zuen Malmö Konsthall-en, Malmön. Wilhelm Lehmbruck eskultura-saria jaso zuen, Duisburgon

1992 Madrilgo Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía-k bere lanaren atzera begirako erakusketa egin zuen. *Weight and Measure* erakusketa inauguratu zen Tate Gallery-n, Londresen. Erakusketa bat egin zuen Kunstsammlung Nordrhein – Westfalen-en, Düsseldorf-en, Céretoko Musée d'Art Moderne-n eta Saarlandmuseumen, Saarbrücken-en

1993 New Yorkeko Solomon R. Guggenheim Museum-ek museoaren bilduma iraunkorreko bere lanen erakusketa egin zuen. *Wall to Wall* erakusketa egin zuten Naoshima Contemporary Art Museum-en, Kagawan, Japonian. American Academy of Arts and Sciences-eko kide aukeratu zuten

1994 *Richard Serra: Weight and Measure Drawings* erakusketa inauguratu zen Drawing Center-en, New Yorken, ondoren St. Louis Art Museum-en, Baltimore Museum of Art-en, eta Gulbenkian Fundazioan, Lisboan, ikusi ahal izan zena. Paper gaineko lanak jarri zituen ikusgai National Museum of Art-en, Osakan. “Praemium Imperiale” saria eman zion, eskultura-kategorian, Japan Art Association-ek, Japonian. Arte Ederretako Honoris Causa Doktorea izendatu zuen California College of Arts and Crafts-ek, Oaklanden

1996 Marrazki-erakusketa egin zuen Musée National d'Histoire et d'Art-en, Luxenburgon

1997 *Torqued Ellipses* ikusgai jarri zituen Dia Center for the Arts-en, New Yorken. Guggenheim Bilbao Museoa *Sugea* obra enkargatu zion eta inaugurazioko erakusketan erakutsi zen.

1998 Erakusketa bat egin zuen Museum of Contemporary Art-en, Los Angelesen

1999 Alemaniako Museum Kurhaus Kleve-k bere lan grafikoaren atzera begirako erakusketa egin zuen, ondoren Alemaniako, Austriako eta Suitzako zenbait museotan ikusi ahal izan zena, azkenik Genteko Stedelijk Museum voor Actuele Kunst-en (SMAK) amaitzeko. *Richard Serra* erakusketa Guggenheim Bilbao Museoa artistaren *Bihurritu eliptikoak* biltzen dituen. *New York Times*-en aburuz “azken hamarkadan, edo agian atzeragotik ere, egin izan den erakusketarik ikusgarriena”

2001 Espiral sail bat ikusgai jarri zuen Veneziako Bienalean, non Urrezko Lehoia eman zioten bere ibilbide artistikoagatik. Urrezko Domina eman zion, eskultura-sailean, American Academy of Arts and Letters-ek

2002 Orden Pour le Mérite für Wissenschaften und Künste-ko kide izendatu zuten Alemanian

2004 Erakusketa bat egin zuen Museo Archeologico Nazionale di Napoli-n, Napolesen

2005 Plastika-Arteen Cristóbal Gabarrón Nazioarteko Saria eman zioten. Iraunkorki instalatu zuen zortzi piezaz osatutako eskultura-multzoa, *Denboraren materia*, Guggenheim Bilbao Museoaren Arcelor 104. aretoan. Instalazio honi buruz zera esan da: “Azken 50 urteotako eskultura-erakusketa garrantzitsuenak”. *Five*

Plates Counter Clockwise Pentagon lana instalatu zuten Bilboko Arte Eder Museoaren sarreran, Eduardo Chillidaren *Elkartoki IV* lanaren ondoan

JOEL SHAPIRO

New York, 1941 | New Yorken bizi da

1941 Irailaren 27an jaioa, New Yorken

1956 New Yorkeko Bayside High School-en ikasi zuen, eta pintura-eskolak jaso zituen New Yorkeko Museum of Modern Art-en, 1959ra arte

1959 Bi urtez ikasi zuen Coloradoko Unibertsitatean, Boulderren

1962 New Yorkeko Unibertsitatean sartu zen, eta bi urte geroago graduatu zen

1965 Boluntario gisa sartu zen Bake-Zerbitzuan eta bi urte igaro zituen Indian

1967 New Yorkera itzuli zenean Arte Masterrean sartu zen New Yorkeko Unibertsitatean, eta bi urte geroago amaitu zuen

1968 Lanean hasi zen Jewish Museum-en

1969 *Anti-Illusion: Procedures / Materials* taldeko erakusketan parte hartu zuen Whitney Museum of American Art-en, New Yorken. Eskolak ematen hasi zen Hofstra University-n, Hempsteaden, New Yorken

1970 Bere lehenengo bakarkako erakusketa egin zuen Paula Cooper Gallery-n, New Yorken

1973 Garrantzizko bidaia egin zuen Europan zehar, eta Londres, Paris eta Erroma bisitatu zituen

1974 Bere lehenengo erakusketa egin zuen Europan, Salvatore Ala galerian, Milanen. Artista gonbidatu gisa sartu zen Princeton University-n

1975 National Endowment for the Arts-en beka bat jaso zuen

1976 Lehenengo bakarkako erakusketa egin zuen museo batean, Museum of Contemporary Art-en, Chicagon. Sidneyko Bienalean parte hartu zuen

1977 Whitney Museum of American Art-en Bienalean parte hartu zuen, New Yorken, eta Documenta 6-n, Kasselen

- 1979** Whitney Museum of American Art-en Bienalean parte hartu zuen, New Yorken
- 1980** Londresko Whitechapel Art Gallery-k bere lanaren garrantzizko erakusketa antolatu zuen. Veneziako Bienalean parte hartu zuen
- 1981** Hiru pieza jarri zituen ikusgai Israel Museum-en, Jerusalemen eta Whitney Museum of American Art-en Bienalean parte hartu zuen, New Yorken
- 1982** New Yorkeko Whitney Museum of American Art-ek bere lanaren atzera begirako erakusketa egin zuen. Documenta 7-n parte hartu zuen, Kasselen
- 1983** Bere lana ikusgai egon zen *New Art* taldeko erakusketan, Londresko Tate Gallery-n. Eskultura publiko bat egiteko eskaria jaso zuen Cigna Corporation-etik, Los Angeles
- 1984** Brandeis University Creative Arts Award saria jaso zuen
- 1985** Marrazkiak eta eskulturak jarri zituen ikusgai Stedelijk Museum-en, Amsterdamen
- 1986** Skowhegan Eskultura Domina jaso zuen
- 1988** Lan bat instalatu zuen Fukuoka Sogo Bank-en, Fukuokan, eta beste bat Kawamura Memorial Museum of Art-en, biak Japonian
- 1989** Lan bat egiteko eskaria jaso zuen Dartmond Collegeko Hood Museum of Art-erako. Whitney Museum of American Art-en Bienalean parte hartu zuen, New Yorken
- 1990** Des Moines Art Center-ek bere lanaren erakusketa bat antolatu zuen, ondoren Baltimore Museum of Art-en eta Miamiko Center for the Fine Arts-en ikusi ahal izan zena. Erakusketa hark Shapioren lanean figurazioak izandako eboluzioa arrazoitzen zuen. Humlebaekeko Louisiana Museum for Moderne Kunst-ek bere lanaren erakusketa bat inauguratu zuen, ondoren Valentziako Institut Valencià d'Art Modern-en (IVAM), Kunsthalle Zürich-en eta Calaiseko Musée des Beaux-Arts-en ikusi ahal izan zena. Eskultura-Domina eman zion American Academy of Arts and Letters-ek
- 1991** Eskultura bat egiteko eskaria jaso zuen Washington DCko United States Holocaust Memorial Museum-erako. 1993an jarri zuten lehen aldiz jendaurrean
- 1992** Bere lana *Century in Sculpture* erakusketan egon zen ikusgai, Stedelijk Museum-en, Amsterdamen
- 1994** Lanak instalatu zituen New Yorkeko Sony Plazan, eta Berlingo Tishman Speyer eraikinean. *Three figures / Fifteen Elements* lana hasi zuen, ordura arte egindako handiena, International Airport of Kansas City-rako. Swedish Royal Academy of Fine Arts-eko kide aukeratu zuten

1995 Eskulturen erakusketa bat egin zuen kanpoaldean Minneapolisko Walker Art Center-en, ondoren Nelson- Atkins Museum of Art-en ikusi ahal izan zena, Kansas Cityn

1996 Lan grafikoaren erakusketa University of Missouri-ko Gallery of Art-en, Kansas Cityn. Pieza iraunkor bat instalatu zuen Israel Museum-en, Jerusalemen

1997 Artista Egoiliar izendatu zuten Phillips Academy-n, bere lanaren atzera begirako erakusketa egin zuen horretan. Erakusketa bat egin zuen Haus der Kunst-en, Munichen

1998 American Academy of Arts and Letters-eko kide aukeratu zuten

1999 Bere eskulturen atzera begirako erakusketa egin zuten Yorkshire Sculpture Park-en, Wakefielden, Ingalaterran. Erakusketa bat egin zuen National Gallery of Canada-n, Ottawan, eta American Academy-n, Erroman. Bere lan batzuk Koloniako Eskulturen Parkean, New Yorkeko Rockefeller University-n eta Washingtoneko National Gallery of Art Sculpture Garden-en instalatu zituzten

2000 Erakusketa bat egin zuen Spoleto Festival USAn, Middleton Place-n, Charlestonen, ondoren McNay Art Museum-en, San Antonion, eta Denver Art Museum-en ikusi ahal izan zena. Bere lan bat International Sculpture Collection-en instalatu zuten, Rotterdamen

2001 *Joel Shapiro on the Roof* erakusketa inauguratu zen New Yorkeko Metropolitan Museum of Art-en

2002 Eskultura bat instalatu zuen University of Chicago-ko David and Alfred Smart Museum of Art-en

2003 Erakusketa bat egin zuen University of Florida-ko Samuel P. Harn Museum of Art-en

2004 Bere azkeneko eskulturak erakutsi zituen L.A. Louver Gallery-n, Venicen, Kalifornian

2005 Erakusketa bat egin zuen John Berggruen Gallery-n, San Franciscon

ANTONI TÀPIES

Bartzelona, 1923 | Bartzelonan bizi da

1923 Abenduaren 13an jaioa, Bartzelonan

1944 Bartzelonako Unibertsitatean sartu zen Zuzenbidea ikasteko, baina utzi egin zuen karrera amaitu aurretik justu. Marrazketa ikasi zuen Academia Valls-en, Bartzelonan

1948 Bartzelonako Udazkeneko Azokan parte hartu zuen. Joan Miró ezagutu zuen eta lagun onak egin ziren

1949 *Dau al Set: Un aspecto de la pintura catalana* erakusketan parte hartu zuen, Bartzelonako Institutu Frantsesean

1950 Bakarkako lehenengo erakusketa egin zuen Galeries Laietanes-en, Bartzelonan. Carnegie International-en parte hartu zuen, Pittsburghen

1951 Parisa joan zen beka bati esker, eta bertan Picasso ezagutu zuen

1952 Veneziako Bienalean parte hartu zuen

1953 São Pauloko Bienalean parte hartu zuen

1955 Kolonbiako Errepublikaren saria jaso zuen Bienal Hispanoamerikarrean, Bartzelonan

1957 Bakarkako erakusketa egin zuen Martha Jackson Gallery-n, New Yorken. São Pauloko Bienalean parte hartu zuen

1958 Veneziako Bienalean parte hartu zuen, eta bertan UNESCO saria eman zioten. Carnegie Institute-ren lehenengo saria jaso zuen, Pittsburghen. Marcel Duchamp ezagutu zuen

1960 *Before Picasso, after Miró* erakusketan parte hartu zuen, New Yorkeko Solomon R. Guggenheim Museum-en, eta *New Spanish Painting and Sculpture*-n, Museum of Modern Art-en, New Yorken. Tokioko Bienalean parte hartu zuen

1962 Bere lanaren atzera begirako lehenengo erakusketa Kestner Gesellschaft-en, Hannoverren, eta ondoren beste batzuk New Yorkeko Solomon R. Guggenheim-en eta Zuricheko Kunsthaus-en

1964 Documenta 3-n parte hartu zuen, Kasselen, formatu handiko zortzi lan ikusgai jarriz

1965 Londresko Institute of Contemporary Arts-ek bere lanaren atzera begirako erakusketa egin zuen

1967 St. Galleneko Kunstmuseum-ek bere lan grafikoaren atzera begirako erakusketa egin zuen. Harremanetan hasi zen Galerie Maeght-ekin, Parisen, eta urteetan zehar erakusketak egin izan zituen bertan

1970 Bere idatzien bilduma argitaratu zuen *La práctica de l'art* izenburupean

1972 Rubens saria jaso zuen, Siegenen, non bere lanaren atzera begirako erakusketa egin zioten Städtische Galerie im Haus Seel-en

1973 Musée d'art moderne de la Ville de Paris-ek bere lanaren atzera begirako erakusketa egin zuen, ondoren Genevan eta Charleroin ikusi ahal izan zena

1974 Bere lanaren atzera begirako erakusketak egin zituzten Louisiana Museum-en, Humlebaeken, eta Nationalgalerie-n, Berlinen. *L'art contra l'estètica* liburua argitaratu zuen

1976 Fondation Maeght-ek, Saint Paul de Vencen, bere lanaren atzera begirako erakusketa egin zuen, ondoren Fundació Joan Miró-n, Bartzelonan, ikusi ahal izan zena. Erakusketa bat egin zuen Seibu Museum of Art-en, Tokion. *España: Vanguardia Artística y Realidad Social* erakusketan parte hartu zuen, Veneziako Bienalean

1977 Atzera begirako erakusketa ibiltaria inauguratu zen Iparramerikako hainbat hiritan, Albright-Knox Art Gallery-n, Buffalon, hasi eta Musée d'Art Contemporain-en, Montrealen, amaitzeko. Paper gaineko bere lanen atzera begirakoa inauguratu zen Bremengo Kunsthalle-n, ondoren Baden-Badengo Staatliche Kunsthalle-n eta Winterthur Kunstmuseum-en ikusi ahal izan zena

1978 *Memoria personal* liburu autobiografikoa argitaratu zen

1979 Ohorezko kide izendatu zuen Berlineko Arte Eder Akademiak

1980 Bere lanaren atzera begirako erakusketak egin zituzten Museo Español de Arte Contemporáneo-n, Madrilan, eta Stedelijk Museum-en, Amsterdamen

1981 Espainiako Estatuak Arte Ederretako Urrezko Domina eman zion. Londresko Royal College of Art-ek Honoris Causa Doktore izendatu zuen

1982 Veneziako Bienalean parte hartu zuen, Scuola di San Giovanni Evangelista-n erakusketa bat eginez. Wolf Fundazioaren saria jaso zuen, Jerusalem

1983 Dimentsio handiko bere eskultura bat instalatu zuten Picassoren omenez, Bartzelonan. Officier des Arts et des Lettres izendatu zuen Frantziako Errepublikak. Urrezko Domina eman zion Generalitat de Catalunya-k eta Rembrandt saria eman zion Toepfer Fundazioak

1984 Fundació Antoni Tàpies eratu zen Bartzelonan

1985 Erakusketa bat egin zuen Palazzo Reale-n, Milanen, eta Musée d'art Moderne-n, Bruselan. Prix National de Peinture saria jaso zuen, Frantzian

1986 Vienako Wiener Künstlerhaus-ek bere lanaren erakusketa antologikoa inauguratu zuen, ondoren Stedelijk van Abbemuseum-en ikusi ahal izan zena, Eindhovenen

1988 Bere lana ikusgai egon zen *Aspects of Collage, Assemblage and the Found Object in Twentieth-Century Art* erakusketan, Solomon R. Guggenheim Museum-en, New Yorken. Honoris Causa Doktore izendatu zuen Universitat de Barcelona-k

1990 Madrilgo Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía-k bere lanaren atzera begirakoa inauguratu zuen, ondoren Fundació Joan Miró-n, Bartzelonan, ikusi ahal izan zena. Ohorezko kide izendatu zuen Real Academia de Bellas Artes de San Fernando-k. Arteetako Príncipe de Asturias saria jaso zuen

1992 *Tàpies. Comunicació sobre el mur* erakusketa inauguratu zen Fundació Antoni Tàpies-en, ondoren Institut Valencià d'Art Modern-en (IVAM) eta Londresko Serpentine Gallery-n ikusi ahal izan zena. Honorary Fellow izendatu zuen Royal Academy of Arts-ek, Londresen

1993 *Rinzen* instalazioa egin zuen Veneziako Bienaleko Espainiako Pabilioian, eta Urrezko Lehoia jaso zuen lan horrengatik

1994 Parisko Galerie Nationale du Jeu de Paume-k bere lanaren atzera begirako erakusketa egin zuen. Herbert-Boeckl-Preis saria jaso zuen, Salzburgon

1995 Bere lanaren atzera begirakoa inauguratu zuten New Yorkeko Solomon R. Guggenheim Museum-en. Premi Nacional d'Arts Plàstiques saria eman zion Generalitat de Catalunya-k

1996 Bere lanaren garrantzizko erakusketa eraman zuten Japoniako hainbat museotara

1997 *El tatuatge i el cos* erakusketak, Fundació Antoni Tàpies-en egina, azken berrogeita hamar urteetan egindako paper eta kartoi gaineko bere lanak ikusgai jarri zituen. *Rinzen* lana iraunkorki instalatu zuten Museu d'Art Contemporani de Barcelona-n (MACBA)

2000 Bere lanaren atzera begirako erakusketa inauguratu zen Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía-n, Madrilen, ondoren Haus der Kunst-en, Munichen, ikusi ahal izan zena

2001 Parisko Bibliothèque Nationale de France-k bere lan grafikoaren atzera begirako erakusketa egin zuen

2002 Erakusketa bat egin zuen Musée Picasso-n, Antibesen. Grabatu eta Lan Grafiko Sari Nazionala eman zion Calcografía Nacional-ek

2003 Erakusketa bat egin zuen Kunsthalle in Emden-en. Arte Ederretako Velázquez saria jaso zuen

2004 *Antoni Tàpies. Retrospectiva* erakusketa inauguratu zen Museu d'Art Contemporani de Barcelona-n (MACBA), ondoren Museo Patio Herreriano-n ikusi ahal izan zena, Valladoliden. Erakusketa bana egin zuen Fundación Marcelino Botín-en, Santanderren, eta Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía-n, Madrilen

2005 Tokioko Hara Museum-ek bere lanaren atzera begirako erakusketa egin zuen. Lissone saria eman zioten bere ibilbide osoaren errekonozimendu gisa

PEDRO TXILLIDA

Donostia, 1952 | Donostian bizi da

1952 Abenduaren 10ean jaioa, Eduardo Chillida eskultorearen eta Pilar Belzunceren semea

1973 Filosofia eta Letrak karrera egin zuen 1977ra arte, eta Giza Geografian espezializatu zen, Madrilgo Universidad Complutense-n

1977 Autodidakta gisa hasi zen pintatzen

1981 Bakarkako lehenengo erakusketa egin zuen Bizkaiko Aurrezki Kutxan, Bilbon

1983 Erakusketa bat egin zuen Alençon galerian, Madrilen. Arteder azokan parte hartu zuen, Bilbon. *Autorretratos* erakusketa ibiltarian parte hartu zuen, Gasteizko Arte Eder Museoan, Iruñeako Arte Eder Museoan eta Donostiako San Telmo Museoan ikusi ahal izan zena

1984 Erakusketa bat egin zuen Galería 16-n, Donostian

1985 Stockholmeko arte-azokan parte hartu zuen. Erakusketa bat egin zuen Grafiart galerian, Finlandian, eta Fajl galerian, Suedian

1986 Bakarkako erakusketak egin zituen Gasteizko Arte Moderno Museoan, eta Alemaniako Monchehaus Museum fur Moderne Kunst-en

1989 Erakusketa bat egin zuen Galería 16-n, Donostian. Chicagoko azokan parte hartu zuen

1990 Erakusketa bat egin zuen M.L. Wirth galerian, Suitzan

1992 ARCOOn parte hartu zuen, Madrilen

1993 ARCOOn parte hartu zuen. Madrilen

1994 Erakusketa bat egin zuen Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioan, Bilbon. ARCOOn parte hartu zuen, Madrilen, baita Caracas, Kolonia eta Ganteko azoketan ere

1996 Eskulturak egiten hasi zen

1997 Bakarkako erakusketa egin zuen Aramburu jauregian, Tolosan. ARCOOn parte hartu zuen, Madrilen, baita Frankfurtoko azokan, FIACen, Parisen, eta Arte Ederretan aplikatutako Kirolaren XII. Nazioarteko Bienalean ere

1998 Bakarkako erakusketa egin zuen Eibarko Kultur Etxean. ARCON parte hartu zuen, Madrilén, eta FIACen, Parisen

1999 Erakusketa bat egin zuen Colón XVI galerian, Bilbon. *Pedro Txillida-Irudiak* erakusketa inauguratu zen Miraballesko Kultur Etxean, ondoren Bizkaiko Kultur Etxe desberdinetan ikusi ahal izan zena, hurrengo urtean Galdakaokoan amaitzeko. ARCON, Madrilén, FIACen, Parisen, eta Koloniako azokan parte hartu zuen

2001 Erakusketa bat egin zuen Sala Pelaires-en, Palman, Mallorcan

2002 Bakarkako erakusketak egin zituen Colón XVI galerian, Bilbon, eta F. Galvany galerian, Toulousen

2003 Erakusketa bat egin zuen Forsblom galerian, Helsinkin

2004 Eskultura- eta pintura-sorta bat ikusgai jarri zuen Trama galerian, Bartzelonan

2005 Erakusketa bat egin zuen Trama galerian, Madrilén, eta Forsblom galerian, Helsinkin

MANOLO VALDÉS

Valentzia, 1942 | New Yorken bizi da

1957 Martxoaren 8an jaioa, Valentzian

1957 Arte Eder ikasketak hasi zituen Valentziako San Carlos Eskolan. Bi urte geroago eskola utzi eta bere ibilbide profesionalari ekin zion

1964 *España libre* erakusketa ibiltarian parte hartu zuen Italian. Manolo Valdésék eta Rafael Solbes-ek bakoitzak bere aldetik egin zituzten erakusketak beste artista espainol batzuekin batera. Urtearen amaieran, Joan Antonio Toledo, Rafael Solbes eta Manolo Valdésék Equipo Crónica sortu zuten. Toledok handik gutxira utzi zuen taldea. Gainerako biek 1981era arte mantendu zuten Equipo Crónica, Rafael Solbes hil zen arte

1965 Bere lehenengo bakarkako erakusketa egin zuen Il Centro galerian, Turinen. Lissone saria jaso zuen, Milanen, Italian

1967 Bere lehenengo erakusketa egin zuen Valentzian Val i 30 galerian. Bere lana *Le Monde en Question* erakusketan egon zen ikusgai, Musée d'Art Moderne-n, Parisen

1969 Bilboko Grises galerian, *Guernica 69* sail osoa jarri zuen ikusgai

- 1970** II Bienale de l'Estampe-n parte hartu zuen, Musée d'Art Moderne-n, Parisen
- 1971** Salon de Mai-n parte hartu zuen, Parisen
- 1973** Parisko Bienalean parte hartu zuen
- 1974** Zenbait erakusketa egin zituen Frantziako zentro desberdinetan, besteak beste, Pauko Musée d'Art Modernen, Parisko Musée d'Art Moderne-n, ARCn, Saint-Etienneko Maison de la Culture-n edo Reimseko Maison de la Culture-n
- 1976** Veneziako Bienalean parte hartu zuen
- 1977** Zenbait erakusketa egin zituen Alemanian, besteak beste Frankfurter Kunstverein-en, Badischer Kunstvereinen, Karlsruhe-n, edo Kunstverein-en, Hannover-en. Bere lana *Mitologies Quotidiennes II* erakusketan egin zen ikusgai, Musée d'Art Moderne-n, Parisen
- 1978** Parisko FIACen eta Boloniako Azokan parte hartu zuen
- 1979** Lehenengo Grabatu-Saria jaso zuen Tokioko Grabatu-Bienalean
- 1980** Bere lana *Vanguardia Española del Siglo XX* erakusketan barne hartu zuten Monterreyko Arte Eder Museoa, Mexikon
- 1981** Equipo Crónica desegin zen Rafael Solbes hil ondoren. Valdésekin bukatu gabe utzi zuen Equipo Crónica-ren lana eta bere irudiak formulatzen hasi zen
- 1982** Bakarkako erakusketak egin zituen Valentzian eta Bartzelonan
- 1983** *Art contre/Against Apartheid* taldeko erakusketa ibiltarian parte hartu zuen, Frantzian, Espainian, Italian, AEB-n eta Alemanian ikusi ahal izan zena
- 1984** Valentziako Alfons Roig Saria eta Arte Ederretako Sari Nazionala jaso zituen
- 1985** Espainiako Pintura-Domina Nazionala eman zioten
- 1986** Irakeko Bienaleko Domina jaso zuen Bagdadeko Plastika-Arteen Nazioarteko Azokan (Irak)
- 1989** *Equipo Crónica, 1965-1981* atzera begirako erakusketa egin zuen Institut Valencià d'Art Modern-en (IVAM) eta Madrilgo Centro de Arte Reina Sofía-n
- 1991** Chicago International Art Exhibition, 1992 erakusketan parte hartu zuen

1993 Venezuelako Errepublikaren Condecoración de la Orden de Andrés Bello saria jaso zuen Ohorezko Banda kategorian. Art Miami-n parte hartu zuen

1996 Valentziako Institut Valencià d'Art Modern-ek (IVAM) Valdésen lanaren atzera begirako erakusketa egin zuen. Parisko FIACen parte hartu zuen

1998 *Spanische Kunst am Ende des Jahr-hunderts* taldeko erakusketan parte hartu zuen, Museum Würth-en, Alemanian. Arte Ederretako Urrezko Domina jaso zuen

1999 Erakusketa bat egin zuen San Franciscoko museoan. Espainiako ordezkari aukeratu zuten, Esther Ferrer-ekin batera, Veneziako 48. Bienalean

2000 *Menina* izenburua duen eskultura instalatu zuten Alcobendasko Chopera pasealekuan, Madrilén. Erakusketa bat egin zuen BilbaoArte Fundazioan, Bilbon. Madrilgo ARCO-n parte hartu zuen, eta bertan Arte-Kritikarien Espainiako Elkartearen saria jaso zuen

2001 Valentziako I. Arte Bienalean eta Parisko FIACen parte hartu zuen

2002 Guggenheim Bilbao Museoak bere lanaren atzera begirako erakusketa inauguratu zuen, azkeneko hamar urteetan egindako hirurogeita hamar artelan bilduz, *Manolo Valdés. Pintura eta Eskultura* erakusketan. Bere marrazkien lehenengo erakusketa egin zuten, Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioan, Bilbon. Bere lan grafikoaren erakusketa ibiltaria ikusgai egon zen Jordaniako, Siriako, Turkiako, Libanoko eta Marokoko hainbat hiritan. Art Basel-en parte hartu zuen

2004 Koloniako Azokan parte hartu zuen. Premios Valencianos del siglo XXI saria jaso zuen, Valentzian

2005 Erakusketa bat egin zuen Beelden aan Zee Museoan, Haya, Holandan. *Meninas* erakusketa inauguratu zuten Parisko Jardins du Palais Royal-en, ondoren Zurichen eta Oviedon ikusi ahal izan zena

ZAO WOU-KI

Pekin, 1921 | Parisen bizi da

1921 Pekinen jaioa, 1921eko otsailaren 13an

1935 Hamalau urterekin hasi zituen arte-ikasketak, Hang- Chouko Arte Ederretako Eskolan

1941 Irakasle gisa lan egin zuen Arte Ederretako Eskolan bertan. Lehenengo bakarkako erakusketa egin zuen Elkarre Txinatar-Sovietarrean, Choung-Kingen

1947 Erakusketa bat egin zuen Ta-Hsin Departament Store-n, Shangain

1948 Parisa joan zen

1949 Erakusketa bat egin zuen Creuze galerian, Parisen. Litografiaren teknika erabiltzen hasi zen

1950 Litografien erakusketa egin zuen La Hune galerian, Parisen

1951 Pinturen eta akuarelen erakusketa egin zuen Mainstreet Gallery-n, Chicagon

1955 Bere lehenengo erakusketa egin zuen museo batean, Fine Arts Museum-en, Cincinnatin. São Pauloko Bienalean parte hartzera gonbidatu zuten

1960 Veneziako Bienalean parte hartu zuen

1962 Bere pinturen, akuarelen eta litografien erakusketa inauguratu zen Madrilgo Ateneoaren aretoan. Litografia-sail bat egin zuen André Malrauxen *La tentation de l'Occident* libururako. Frantziako hiritar bihurtu zen

1964 Bere lanaren atzera begirako erakusketa egin zen Massachussets Institute of Technology-ko Hayden Galleryn, Cambridgen, AEBn

1965 Lehen aldiz museo batek bere lanaren atzera begirako erakusketa egin zuen; Essengo Folkwang Museum-ek. Gainera, erakusketa bat egin zuen Albertina-n, Vienan

1966 Bere pinturak ikusgai egon ziren Maison de la Culture-n, Caenen

1968 Bere lanaren erakusketa egin zuten San Franciscoko Museum of Art-en

1969 Bere lanaren atzera begirako erakusketa egin zuten Montrealgo Musée d'Art Contemporain-en, ondoren Musée du Québec-en ikusi ahal izan zena

1970 Charleroiko Palais des Beaux-Arts-ek bere lanaren atzera begirako erakusketa inauguratu zuen

1973 Erakusketa bat egin zuen Musée d'Art et d'Histoire-n, Neuchâtelen

1974 Pintura-erakusketa egin zuen Sochauxeko Maison des Arts et Lettres-en. Formatu handiekin lanean hasi zen berriro

1977 Formatu handiak ikusgai jarri zituen Fuji Televisión Gallery-n, Tokion

1979 Parisko FIACen parte hartu zuen

1980 Irakasle gisa sartu zen École Nationale Supérieure des Arts Décoratifs-en, Parisen

1982 Bere lanaren erakusketa ibiltaria egin zuten Japonian, Fukuoka City Museum-en hasi, eta Tokio eta Kyototik igaro ondoren, Kamakura Museum of Modern Art-en amaitu zena. Erakusketa bat egin zuen Singapur eta Hong-Kongen baita ere

1983 Erakusketa bat egin zuen The National Museum of History-n, Taipein. Bere lana Pekingo Arte Eder Museoan ere ikusgai egon zen

1984 Officier de la Légion d'Honneur izendatu zuen Frantziako Errepublikak

1988 Parisko FIACen parte hartu zuen. *Autorretratu*a argitaratu zuen, Françoise Marqueten lankidetzarekin idatzitako autobiografia

1992 Lisboako Calouste Gulbenkian Fundazioak bere lanaren atzera begirako erakusketa egin zuen

1993 Bere lanaren atzera begirako erakusketa egin zioten Fine Arts Museum-en, Taipein. Commandeur de la Légion d'Honneur izendatu zuen Frantziako Errepublikako Lehendakariak

1994 "Praemium Imperiale" saria jaso zuen pintura-sailean, Japan Art Association-ek emana

1995 Bere lanaren atzera begirako erakusketa egin zuten Zaragozako Centro de Exposiciones Iber Caja-n, eta Neverseko Maison de la Culture-n

1996 Bere lanaren atzera begirako erakusketa inauguratu zen Kaohsiung Museum of Fine Arts-en, Taiwanen, ondoren Museum of Art-en, Hong Kongen ikusi ahal izan zena

1998 Pekingo Kantonen bere lanaren atzera begirako erakusketa egin zuten. Erakusketa bat egin zuen Angerseko Musée des Beaux-Arts-en. Zeramikazko mural bat diseinatu zuen Lisboako "Atlantic" metro-geltokirako

2000 Erakusketa bat egin zuen Parisko Musée du Petit- Palais-en

2001 Institut Valencià d'Art Modern-ek (IVAM) bere lanaren atzera begirako erakusketa egin zuen eta hirurogei pintura eta hamar marrazki ikusgai jarri zituen, 1948 eta 2000 urte bitartean eginak. Erakusketa bat egin zuen Musée d'Ixelles-n, Bruselan. Taylor Fundazioaren saria jaso zuen

2002 Académie des Beaux Arts-eko kide aukeratu zuten

2003 Erakusketa bat egin zuen Marlborough Gallery-n, New Yorken. Parisko Galerie Nationale du Jeu de Paume-k bere lanaren atzera begirako erakusketa handia egin zion

2004 Bere lanaren erakusketa desberdinak egin zituzten Frantziako museoetan, besteak beste, Musée Fabre-n, Montpellierran, Musée des Beaux-Arts-en, Dunkerquen, eta Musée du Dessin et de l'Estampe Originale-n, Gravelinesen

[Itzultzailea: Bitez
Egokitzapena: Guggenheim Bilbao Museoa]